

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

VII Zenbakia.

1989
Jorrala-Ekainila

AURKIBIDEA

	Orr.
Aita Santi. (Barruko azalean)	
Euzkera, euzko gogolantzearen oñarria. A. Urestarazu.	1
Euskerazko izenak erdiarako idazkeran. Bixente Latiegi.	4
"Eziña Egiña". Aita Olabide.	8
Erro, Juan Bautista. M. Urreta.	11
Ogibide ta Langintzak. Arrinda, A. eta D.	18
Saguño. P. Etxebarria, S.J.	27
Euskera dala-ta. A. Santi Onaindia.	31
Kintana'ren arrazoi ta euskera. J. Gaztañaga.	34
"Tene". Sabin Muniategi.	36
Aita Lino. E. Erkiaga.	43
Aita Lino'ren lan ezkutuak. K. Etxenagusia.	47
Dima. A. Zubikarai.	51
Txuri ta Gorri liburuak. J. Gaztañaga	55
Elbire Zipitria Sariak. Euskerazaintza	58
Idazkiak Idazki. -Euskerazaintza- E.J.ko A. Batzordea.	61
Aita Lino olerkari. L. Arostegi. (Atzeko azal-barruan)	
Omenaldia. (Atzeko azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

AITA SANTI ONAINDIA

Aita Santi Onaindia'k omenaldi errikoi bat artu dau bere bizi-erri dan Zornotza'k eskeiñita.

Iru egunetako jaiak, Maiatza'ren 11 eta 13 bitartean.

Asierako Mai-inguru bat, omenduaren ezaugarri lez, Andolin Eguskitza, Jon Kortazar eta Andu Lertxundi partaide zirala, Juanjo Ziarruzta'ren zuzendaritzapean.

Gero Aita Santi'k bere bizitzaren zear ainbatetan aztertu eta goratu dauan "Lauaxeta" olerkariari buruzko filma, Zine-Klubean.

Azkenez, larunbatez, Erri-meza, Aita Santi'gaz batera aldarean 24 eleizgizon eukaristia barrizatzen. Koroan Zornotza'ko abesbatza Goikoetxea'ren meza abestuten. Sermolari Aita Luis Arostegi, karmeldarren "probintziala".

Ondoren, konbentuko areto baten, euskaltzalez beteta, goramenezko jai labur bat. Laburra baiña biozkorra.

Lekuona'tar Juan Mari'k gogoratu eban omenduaren lan ugari ta onurakorra. Zornotza'ko Udalaren aipamenak, euskal erakundetako ordezkarien eskintzak, bertsolarien laudorioak, Bizkai'ko Aldun Nagusiaren besarkadak, eta abar. Txaloak, lorak eta... malkoak.

Bere bizitzan omenaldiak artzen oituta egonarren. biotzari zotin ainbeste ezau-pide ta esker agerpenek.

Azkenez, auzoko jatetxe baten, anaitasunezko "mai ingurua". Maiburu, esan bearrik ez, betikoa: Aita Santi. Honoris causa.



EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao

IRAKASKINTZA

EUZKERA, EUZKO-GOGO-LANTZEAREN OÑARÍA

Euzko-gogo-lantzea zer dan edo nolakoa dan edo zelango izan beaf dan esan eta ikusi baño lenago, ene ustez, itzaren eta izkuntzaren izatea, beren yardutea ta beren gafantzia nabaritzea beaf-beafezkoa dala deritzaigu, gure gogo-bizia, gure oldozpenak eta gure izaera zeintzuk diran eta nola jokutzen duten adierazteko, naiz itza naiz izkuntza ezinbestekoak diralako.

Guziok ongi dakigunez, itza mintzatzeko dugu beafa, bai ta besteek diñotena entzuteko ta ulertzeko, alkafi buruz mintzatzan ari-izateko, idazteko, irakurtzeko ta bereziki gure oldozpenak eratu ta erabiltzeko ere. Azken eginkizun au, noski, etzaye geyenei azaltzen, beste eginkizunen artean ondo artuta edo ez dalako, baña oso argi ikus diteke ori, gaya zerbait sakondu nai duenarentzat.

Unamuno'k bein esan zuenez "itzen bidez oldozten da"; ta ofelaxe dala ikus dezakegu guztiok ofezaz oldozten asi ta bereala. Bai, naiz eta oldozpen txikiena izan eta gutxi edatzen bada ere baitezpadakoa izaten zayo edonori itzak erabiltzea; oguzi gabeko itzak dira oyek, baña bai egiazko itzak; eta eziña izango zai gu beti itzik gabe oldozpen labufena ere izan eta erabiltzea.

Ondorioz, itzaren gafantzia argi ta garbi ikusteko da, izadiaren beste izaki guziek ez duten almen aundia bezala agertzen zaiguna ta gizonarena bakafik izaten ikusten dalarik. Of gizonaren almena ere, itzaren bidez erakus dezakena, ofela bizian eta beste izaki guztien gain-gañean kokaturik dagoela ikusteko.

Goazen orain izkuntzaren gafantzia ere begiratzera, ori be txikia ezpaita. Izkuntza, berezkoak diran arau batzuek alkaturik dagozen itzen multzoa da, ta itzegiteko bide egokiena dugu, bai ta gizonak alkafi beren asmo, iritzi, gurari ta galderak ageferazteko be, guztion gogo-biziari edatzeko bide egokia izaten, guztiok ere alkaturik bizi-izateko era egokienetakoa dugularik.

Izkuntza sakon eta bereziki ari da beti guztion eta bakoitzaren bizian eragiten. Asko dira Ludi'an barna mintzatzan diran izkuntzak, guziek lan bera egiten, aipatu ditugun azpegi oyetan zeaf eta orain oaferazi nai dugun beste ontan, asko aipatzen eztan azpegian.

Irakaskintza dugu alde guztietan ezagupenak artzeko ta jakinerazteko erabiltzen dan bide zabala ta egokiena bezela. Efi guztietan beren irakaskintzak alik eta ongienik antolatzeko alegin aundienetan barna ari dira buru-belafi, bakoitzak berea atontzen. Eta bakoitzak be bere izkuntza darabil sendo, ortarako bide berezi ta egokiena bezela arturik. Irakasteko gayak, gutxi gorabera, berberak ditugu irakaskintza guztietan eta izkuntza da bakafik irakaskintzak alkafetik bereizten dituen; beraz, nolako izkuntza alako irakaskintza egiten da; besterik ikusi gabe ortxe dugu izkuntzaren gafantzi aundia. Efi bakoitzean berea dana, irakaskintzari bere margoa ematen diolarik.

Alaz ere, ezta of gelditzen izkuntzaren eragipena ta oso aundiagoa da irakasle ta ikasleen baitan betetzen duena. Irakaskintza izkuntza baten bidez burutzean,

irakasle ta ikasle oyek izkuntza ofen itzak erabiliko dituzte, nai ta nai ez, beren oldozpenak erabiltzeko ta edatzeko, ta azkenez izkuntza beraren gogoaz elikaturik izango dira, gogo ori bafeneraño sartzean, eta egitan norberaren gogoa izkuntza ofena bera eginda geratuko da.

Orixe dugu, zalantzik gabe, izkuntza bakoitzak sakonenik burutzen duen bere eragipena, ta gurean irakasteko ta ikasteko erabili ditugun bi erderak, españera ta parantzearena diralarik, bi erdera oyen gogoak ditugu gure barnean jaun eta jabe eragiten. Era ortaz gure oldozpenak erdal-itzen bidez egiten ditugu ta gure gogoa ere erdal-izkuntzaz eratua dago. Alakotz, egitan gure baitan erdaldunak gera euzkaldunak baño geyago, ta era ortaz egingo dugun gure gogo-lantzea be erdalduna izan beaf osorik. Nola egokera ortatik irten eta ben-benetan euzkalduna izan diteken beste batera eldu?; eztago bide bat baño besterik, euzkerarena.

Ikusi dugunez, izkuntza bakoitza, irakaskintzan batik-bat erabiltzean, berari dagozkion gogo-lantzearen aste ta oñafia da, gogo-lantze ori sortu, koskondu ta tinkotzeko, ta guzti ori egin beaf-izango du euzkerak gure egiazko euzkal-gogolantzea burutzeko, eztago beste biderik. Orduan ezinbestekoa zaigu gure irakaskintza guzia euzkeraren bidez eta euzkeraz ongi atondu, euzkal-irakaskintza ematen eta artzean elbururaño eldu al-izateko; ta orduan bakafik euzkal-gogolantzea egin al-izango dugu. Izkuntza guztian bidea bera izan beaf gure izkuntzak eraman beaf-izango duena.

Ibili al-izango da euzkera bide ortan barna, berarenak diran almen ta indafak soilik erabiltzen? Zalantzik ez bayetz erantzuteko; ta bidezkoa izango zaigu almen eta indaf oyek zeintzuk diran begiratzea, ebazkizuna alde guzietatik aztertzean eta gogo-lantzeari dagozkion azpegiak be ikustean. Begira dezagun:

Izen-jokoan badugu euzkerarena dan bereizitasun aipagafia, bertan ondo bereizten baitira izaki zentzundunak zentzungabekoengandik.

Aditz-jokoaren egitura guztiik edefa azaltzen zaigu bere era ta aldi guzietan barna. Bi aldi, oraiñaldi ta lenaldia, agertzen dira beste aldi guztien oñafi bezela, oyetatik eñaz ateratzen diralarik, eta aditzen efo, egile ta betegafi guztiak ongienik adieraztean; eta iñun agertzen eztana euzkal-aditzan ikus dezakegu, itzegiten zayonari dakion af ala eme izatea oafereztean; e.b.; "egin duk" esaten zayo afari ta gauza bera esateko "egin dun" emeari, -k ta -n atzizkien bitartez; ofi alkaf-betegafi deitzen diogu.

Aipa dezagun "alkaf" itz onen bereizitasuna, izen eta izenordeak batera adierazten dituen; e.b.: ni zurekin eta zu nirekin gatozela esan ordez, zu ta ni alkafekin gatoz esan diteke; zuk ikusten nauzu ta nik ikusten zaitut esan ordez, zuk eta nik alkaf ikusten dugu esaten da, "alkaf" ori beste notiñen bat izango bailitzan.

Zeingabeko asmoak eta zeatzezkoak azaltzeko, ba-dauzka euzkerak atzizki bereziak; e.b.: "-men" eta "pen", eta oyen bidez onela diñogu: "oroimen" gogoratzeko almena adierazten, eta "oroipen" gogoratutakoa esateko; berdin "gogoramen" eta "gogorapen" esan dezakegu.

Oyen antzera ona emen beste bi atzizki: "-tasun" eta "-keri", nolakotasuna adierazteko; lenengoa nolakotasun ona ala txafa esateko darabilgu, baña txafa izan ezker oñoren efu gabekoa izanik; "-keri", ordea, beti efudunaren nolakotasuna adierazteko da; e.b.: "izakera" norberarena dan era. Berdin "adiera" ta "adikera", "egoera" ta "egokera", "erabilera" ta "erabilkera"; ta abaf.


Oñela goi-jakintzari dagozkion asmoak bereziki adierazteko, ba-dauzka euzkerak itz eta atzizki egokiak ere diranak, oldozmenaren litsak ongienek zedafitzeko erak; beraz, goi-jakintzaren goraberak ederki erakusteko bide ugari ta oso zabalak erabil ditzakegu ondo.

Gogokoa dana soñekoa danarenetik, eta alderantziz, bereizteko be, ba-dauzka euzkerak oso egokiak diran itzak, onela erabiltzean, e.b.: "gure baitan" eta "guregan"; lenengo bi itzen bidez, "gure baitan", gure barne-barneko muiñean,

gure gogoan gagoena adierazten da: "guregan" itz onen bitartez gure soñean dagoena. Berdin esan ditekete: "gure baitatik" eta "guregandik", "gure baitara" ta "guregana"; ta abaf.

Alakotz, alde batetik ba-dauzka euzkerak goi-yakintzaren eta beste yakintzaen beafetan ere asmoak adierazteko bere bideak; eta bestetik orotarako ta irakaskintzarako, bide egokia bezela, ongi zuzentzeko almen berezia ere. Onela izanik, euzkerak euzkal-gogoari eusteko bide bakaf eta beafa dala oaf dezakegu, ta ondorioaz euzkal-gogo-lantze egiteko ere, beste izkuntza guztiek dagitena betetzeko. Argi agertzen zaigu, ofelaxe, euzkera gure euzkal-gogoari eusteko ta gure euzkal-gogo-lantzea eratzeko ere oñafi gotof eta indartsua dala. Ondorioaz euzkera da orotarako erabili beaf duguna, batik bat irakaskintzarako ta gogoari dagokion guzia ikasi, irakasi ta edatzeko ere; gayezkoa dana ba erabiltzeko, esan beafik ez, bera izango da beti gureztat bide egokiena; gureztat eta orotarako ezinbestekoa izanik. Euzkera gurean oro dala esan genezake eskerki.

Ufestarazu'tar Andoni





EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

BEDERATZIGAREN MENDEKO LAU LAURUKI IV

864'garren urteko larruki bat azertzen ari gera. Larruki ontan Didako Kontea-
ren agindua beteaz, Tamaro apaiz lumalariak aipatzen dizkigun toponimo edo
erri izenak, Mena'n eta Aiala'n zeuden danak.

Non-egote orri-buruz, oztopo irukoitz bat egin nuan nik, aldizkari onen VI zen-
bakian (1989; Urtarrilla-Epailla), Rozas, Angulo ta Barcena Billarkaio'ren alboan
zeuden erriak zirala esanaz. Egotez, Mena'n eta Aiala'n bait zeuden iru oiek ere.
Gazteiz'tik at nengoan ori idatzi nuanean, eta adierazten nion irakurleari, doko-
mentuak begien aurrean ez neuzkala ari nintzala idazten. Bekit ori nere utsegite
aren zuritzegarri.

* * *

Amazazpi toki-izen gelditu zitzaizkigun azertuak izan gabe. Ea, gaur amaz-
piak azaltzeko erarik aurkitzen dugun!

ERVICO-. Madoz'ek ez dakar ez ERVI'rik, ez ERBI'rik, ez ERUI'rik, ("v" erdia-
roan "u" bezala eta "u" "v" bezala erabiltzen bait ziran maiz aski).

*ERBI, gaur-egun Araba'rena dan —eta erdiaroan eusko-laterri berezia izan
zan— AIALA* araneko erriska baten izena dugu. Beraz, gure larrukiko ERVICO
ura, Erbi au bera ez ba'zan ere, Aiala'n egongo zan zalantzarik gabe. Izena eus-
kalduna zuala beintzat, zalantzan ipiñi ez daitekean gauza da.

"Ko" atzizkia, maiz diminutibo edo ttipigarria dugu euskeraz (mutiko, zaldiko,
ollasko, zatiko, belasko...). Beraz, ERVICO ura ERBITXO ote genduan?

Juan Antonio Llorente kanonigo edestilari ondo ezagunak Euzkadi'ren askata-
sunaren aurka XIX mendearen asieran idatzi zuan liburu petral batean dionez,
gure larruki ontako ERVICO Araba'ko ERBI omen da.

Erbi'tik dator ERBITI abizena. Orrelako izen-abizenetan, "erbi", Mitxelena'ren
ustez, erbia da; gure landetako piztitxo izutia. Ortaz, Erbiti, "erbi ugariko lekua"
izango litzake.

Oker dabillega iduritzen zait. Abere-izenak oiñarritzat artuta tajaturiko giza-izen
eta toki-izenak baditugu euskeraz; baiña gutxi! Jendeak uste duan baiño gutxia-
go.

Orregaitik, oraingo ontan zuzenago dabillega iduritzen zait Lopez Mendiza-
bal'dar Isaka, "erbi" ori landare baten izena dala dionean naiz, agian, landare ori

berak aipatzen digun "albia" izan ez. Ez dakit nondik atera duan "erbi" "albi" gaztelerazko "heno" dirala. Azkue'k, orrelakorik ez dakar. Ez da ori arritzeko gauza; Azkue'ren iztegia, eta gure iztegi guztiak, botanikari dogokionez, oso motzak bait dira.

Nere ustez, ERBI ori ARBI, arbi basatia izatea ere baleike. Danadala, asko dira Euskalerrian ERBI'tik datorzkigun izenak. Ikus batzuk:

ERBIDEA (Amarita, Araba); ERBINA (Alda, Araba); ERBILETA, (Erbi-Oleta?); ERBIDESOLO (Olano, Araba); ERBITEGI (Lopidana, Araba); ERBITEGI eta ERBITEGIARRATIA (Markinez, Araba); ERBISKUN (Oñate, Gip.). ERBIZ, Zubero'ko abizena da, ERBIN, lapurdi'koa; eta ERBINART Benaparro'koa, Kerexeta'k dioskunez.

Izen oiei begaritzea naikoa da, "Erbi", izen oietan, erbiaren izena ez dala oartzeko.

ERBIDEA, seguruaski, ERRIBIDEA da; Erbiti, Erbiza, Erbitz, eta ERBISOLOA, eta oien antzekoak, "arbi" izenetik sortuak dirala esango nuke nik. ARBI'z asten diran itzak asko bait ditugu euskeran. Arbina adibidez, Araba'n Legutiano'ko ibaitxo baten izena da. ALBIÑA esaten diote gaur, baiñan 1.408'ko idazki batek ARBINA esaten dio bein baiño geiagotan.

* * *

PENNA.— Latiñez, "ARKAITZ" esan nai du. Norbaitek, ez naiz oroitzen orain nork, Penna ori Bena eta Beña'ren aldakuntza dala esanik dauka. Baleike, "nn" "ñ" irakurtzen bait zuten antziñate artan, eta "b" ta "p" alkarren artean errez aldatzen bait dira. Euskal abizenetan Bena ta Beña'z asten diranak bat baiño geiago ditugu: Beñaran, Benaske, Beñako... Peña ere gure artean abizen ugaria dugu, eta ez gaur goizekoa, XVIII mendeko dokumentuetan agertzen bait da.

"Bena" edo "beña" zer dan, ez dizut esango. L. Mendizabal'entzat, "larre" edo "pastizal" da, "b" edo "p" protetiku eta "ena", "eña"z eratua. Nondik atera duan ori, ez dakit.

Larruki zarretan PENNA, euskerazko AITZ latineratua dala esango nuke nik, orrelako itzulpenak egiteko oitura bai bait zuten idazle zaar aiek.

RESA.— Ezin izan dut Mena'n edo Aiala'n zegoan argitu. Ez da laterazko itza. Ezta gaztelerazkoa ere. Beraz, gaizki idatzitako euskal-izen bat izango da. ARE-TSA, "arenal", ote? Abizen lez, aski sarritan aurkitu izan dut RESA gure lurralde ontan, eta L. Mendizabal'en iritziz euskal-abizena omen da; "helechal" bere ustez: "IRE-TSA". Bai ote?

PONNATA.— Itz ez-ezaguna neretzat, oso-osoan. Ezin izan dut bere aztarnik idoro. Latera ez bait da, eta ez bait da gaztelera ere, naitanaiz au ere gaizki idatzitako euskal-izen bat dugu. Ueska'n bada PON izeneko auzo bat. Iparraldean. XV mendera arte euskalerrri izandako lurretan, Benabarre deritzan erri eza-gunaren alboan. (1)

ANNIS.- Irakurtzean, AÑIS. Eta zuzen idaztekotan, AÑITZ edo ANITZ, agian; gure "tz"ren otsa idazteko eso gaizki ibiltzen bait ziran lumalari zar aiek.

ANIZ, gaur, Baztan'go toki-izen bat da. ANIZLARREA berriz, Goizueta'n dago. Añibarro, Ania eta Anies, euskal-abizenak dira; "ani-aga", "ani-ets", L. Mendizabal'entzat: "pastizal". Nork jakin! AÑIBARRO'ren "barro" ori, "landa" omen da: "campo". Ni ez naiz ezer esatera ausartzen. Zuri, zer iduritzen zaizu?

(1) Agian, lumalariak POMATA idatzi nai izan zuan. "Poma", erdiaroko lateran, zugaitz zitu-emalleari esaten zitzaion, sagarrondoari bereiziki. Ortaz, gure larruki ontako izen ori, SAGASTI edo SAGARDUI lateratu bat ote dugu?

ANIZPE, Naparroa'ko Ezkurra'n, ibaitxo bat duzu, eta ANIZKETA, baso bat Gipuzkoa'ko Goierrian.

SALVATON.— Gaur ez dugu gure artean Salvaton'ik. Bai ordea SALMANTON eta SAL aurrizkiz asten diran izen ugari: Salbide; Salzate; Salbarredi; Salbagarai; Salbo; Salturri; Salturrietxeberri; Saloguen Goikoa eta Beekoa (Gipuzkoa'n). Sal-turtegi eta Sallurtegi (Araba'n).

Gaur, SALMANTON, Aiala'n dago, eta ezpairik gabe, larrukian agertzen zaigun SALVATON bera da.

lñork ez daki "SAL" aurrizkia zer izan daitekean, naiz Lopez Mendizabal'ek "albe" avena dala eta "alba" "heno" dugula esan.

"S", izen oietan, "Z" izatea baleike, batzuetan beintzat. Ala, SALBURUA, ZALBURUA izatea. Gipuzkoa'ko Salturri eta Salturrietxeberri, SALUTATOREITURRI eta SALUTATOREITURRI'ko ETXEBERRI ote ditugu? SALUTATOREETXE bat bai bait zan Gipuzkoa'n bertan dagoan Olaberri'n.

(Salutare, keiñu eta izkutuko itzen bitartez gaixoak sendatzen ibiltzen ziran aztiei esan oi zitzaien).

SALVATA.— Angulo'ren ondoan zegoala dio larrukiak; Aiala'n beraz. Ain zuzen, Sierra Salvada esaten zaio Aiala aranaren egoaldeko mendi-kateari. Badu mendi orrek euskerazko izena: GAROBEL. Baiñan "SAL" eta "SALBA", esan dugunez, euskal-aurrizkiak diralarik, baleike gaurko Sierra Salvada eta lengo mendeetako Sierra Salvata'ren SALBATA ori euskal izena izatea jatorriz. SALBA-ATEA, agian?

PONTE ZERCI.— "Zerzi'ko zubia", esan nai du. Lurralde aski zabala genduan ZERTZI ori, bost eliz edo elizatxo bai bait zituan: "Et ego Didaco comite sic tra-do similiter alios monasterios, id est, S. Martini..., S. Juliani et Basilise..., S. Vicenti et Leti..., Sancta Justa et Rufina..., et S. Felicis Nolensis". ZERTZI Mena'n edo Aiala'n zegoan, ez dakit. Euskal izena zuala, bai; baiñan zer izan daitekean, ez. "Helechal", Lopez Mendizabal'entzat. Ez zait ordea etimologi egokia iduritzen, "era", "ira" edo "garoa" danik ez bait dakit.

"ZER" aurrizkiak asten diran itzak asko aurkituko dituzu Kerexeta'n. Laburdi'ko ZERTZIAT adibidez. ZERTZI-ATE?, "Puerto de Zertzi"? "ATE", "Puerto" dela edo-nork daki. ARRATE, "puerto del roquedal" adibidez; Mendatea, "el puerto del monte". ZERTZI-ATE'ko eta SALBA-ATEA'ko (eta SALBA-RREDI ta orrelako ize-netako) lenen erdia zer dan jakiten dago zailtasuna. Ziur landareren bat.

FLUISO.— Aiala'n zegoan. Gaur Lujo deritza. Uste ontakoa da Llorente ere. Errixka onen izena, LUYO ikusiko duzu erdiaroko beste dokumentu batean (1487). Orrela dator beintzat Dic. Geograf. Hist. de la Real Academiaren "Fuero de Ayala" atalean.

Luja, Aiala bertako abizena da. Lujar, Enkarterrietako mendi bat. Luja'tik sortu-tako abizenak baditugu: Lujan, Lujanbio. Ospetsua azkeneko au, Pasai-Doniba-ne'ko trañeruaren patroï baten eta lau bertsolarien abizena dalako: Lujanbio Retegi'tar Joxemanuel TXIRRITA, eta Lujanbio Zabaleta'tar Anjel, Juanjoxe eta Nikolas anai errederiarren abizena.

Lujo'rekin badute noski aidetasuna, Luxo, Luso, Luko, Luka, Luxa, Lujua eta auen antzeko beste izen ugari batzuk. Lujar, eta beste batzuk.

Etimologia ez da erreza. Lujar, Enkarterrietako mendi bat dugu; Lujarra, 1559'an Bizkaï'n Diputadu Orokorra izendatua izan zaneren izena. Oñaztarra omen zan. Luko, Araba'ko erritxo bat; eta Bizkaikoa berriz Lujua.

"LU" ori zer ote da? Ankazgora ikusiko dituzu etimologilariak oiña ziur non ipi-ñi ez dakitela. Ez ote da "LUR"? LUXUA, LURTSUA ote? "Lur"ek aisa ta maiz galtzen bait du bere azkeneko "R" ori beste izen baten zati gertatzen danean.

LUJUA, Euskaltzaindiak, LOIU biurtu digu. Orrelako ganoragabekeri asko egin ditu len ere eta ari da oraindik egiten. Erri orren izena LUJUA da; ez, Loïua. LOÏUA, Lujoa'ren fonetik-era besterik ez da, arabarren agoetan MOSTRUN

Monasterioguren deritzan erriaren fonetik-era dan bezala. ZUMARRA, Zumarragarena dan lez. Millaka aurkitu daitezke orrelako jokaerak erriaren eguneroko izkeran. Baiñan erriak ondo daki, erri oien izenak, egiazko izenak, LUJUA, MONASTERIOGUREN, ZUMARRAGA, dirala. Ez, LOIUA, MOSTRUN edo ZUMARRA.

CORONELLAS.— Ez dakit zer izan daitekean. 864'garren urtean, Aiala'n eta Mena'n, ez zan euskera besterik itzegiten. Tamaro apaizak berak, —edo ark IX mendean idatzitakoa XII'ean gaizki bir-idazi zuan lumalariak oker emandako euskal-izen bat dugu, naitanaiez, Coronellas au.

KORO, euskal abizena da, eta baditu bera aurrizki daramaten beste batzuk: Korobarrutia, Koroño, eta besteren bat. KORO, Kerexeta'ren ustez ORO'ren aldakuntza da. Emen ordea, oztopo-arri gaitzarekin egin dugu topo, "oro" zer dan iñork ez bait daki. Oronoz, Orobi, Orokieta, Oroia eta oien antzekoetan, ORO'k ez ote "muño" esan gura? ORO, Arba'n beintzan muño baten izena da. An dago Oro'ko Andramari'ren baseliza, eta an dago, keltiarren "kera" edo estiloko "castrum" edo gudaterako babestoki bat. Naparroa'n berriz ORO Gesalaz araneko erriska bat da: gaurko Salinas de Oro'ren auzoa.

Beste batzuetan, KORO, (Korostola, Korostiza, eta orrelako izenetan), "GORO"-ren aldakuntza dala dirudi.

DESOLIO.— Aiala'n dagoan SOJO'ren lateratutako izena omen da. Ablatibu eran. Obeto oraindik, nominatibu eran 983'garren urteko larruki batean: DESOLIUM. Azkeneko dokumentu au, Albelda'ko kartulario edo gutundian aurkitzen da.

Desolium au ordea, ez da Araba'ko Sojo, Naparroa'ko Desolio baizik.

Aiala'n bertan, Sojo bat ezeze bada SOJOGUTI bat ere. "GUTI", atzizki ttigarrri edo diminutibua da: "GUTTI" edo "GUTXI" bezala. "TXO" esan nai dute. SOJO zer izan daitekean ordea, iñork ez daki. Lopez Mendizabal'en ustez, "OI"tik dator, eta "oi" ori, gazteleraz "pastiza" omen da; euskeraz, "larre". "Auskalo" gure baserritarrak esateko oitura duten lez. (SOJO, SOIO = "s" protektiku edo edergarria + "oi" + "o" atzizki toki adierazlea?) Auskalo!

A! zeñien bearrezkoa dugun landarizti edo fitologiazko iztegi orokor bat!

Kerexeta'k Desolio, SOJO'ren aldakuntza dala dio. Barka bezait nere lagun aundi orrek, baiñan ez nator ortan berekin bat.

DESOXO irakurri bearko litzake Desolio, Sojo'ren aldakuntza izateko, baiñan lumalari zar aiek ez zuten "LI" "X" adierazteko erabiltzen, "LL" adierazteko baizik. Beraz, Desolio, DESOLLO irakuri ber dugu gaur.

Ortaz, Sojo'rekin baiño aidetasun geiago luke SOLLO edo ZOLLO'rekin gure DESOLIO'k. Bai ote zan 864'ean izen ortako erriren bat Aiala'n?

ZOLLO, Igao'ren gaiñean, Bizkai'n dugu. SOLLO Araba'n abizena da.

DESOLIO "D'Esolio" ("De Esolio") balitz, ESOLIO zer dan jakin bearko genduke. "ESO" sarritan aurkitzen dugu euskal-izenetan: Esoain, Esoin, Esola, abizenak dira. Esoinberria, Berastegi'ko basetxe baten izena, eta Esolaga, Billabona'ko batena. Araba'n, Elosu'n, bada Esotaoste deritzan mendia. Esozia berriz, Soraluze'n toki-izen bat. An dago soraluzetarren zaindari dan Miren Neskutsaren baseliza. ESO bera, Aragoi'en iparraldean, Naparroa'ko mugatik urbil, mendi baten izena da.

Euskal izenak dirala, ezpairik gabeko gauza da, baiñan ez zaizkit atsegin ematen zaizkien etimologiak, edo itz-erroak.

* * *

Lau toki-izen eta Doneen izenak gelditzen zaikigu aztertzeke. Datorren egunean egingo dugun lana, Jainkoak nai ba'du.

Latiegi'tar Bixente

YAKINTZA

EZIÑA EGIÑA

Yaunak eta andreak:

Iru eratakoak dira yai auetan goratzen ari geran Aita Lafamendik burutu zitun lanak:

Andoain'en alde,
Euskeraren alde,
ta Euskalefiaren alde egindakoak.

Andoain'en alde A. Lafamendi'k egin zunaz igandeko itzaldian, zuen Efétoze Yaunak ederki itz egin zizuen.

Euskalefiaren alde egindakoak Azkue Yaunak bart azaldu zizkigun.

Euskeraren alde bi lan nagusi egin zitun: Ormaetxea Yaunak asteartean erakutsi zizuen Iztetgia, ta kaxkafa dirudien idaztiño edo liburutxo au. Ofetaz mintzatzeko natofkizue gauf.

Egun auetantxe betetzen dira befeun urte azaldu zanetik; eta befeungafen urte au ospatzekoxe bildurik emen gaude.

Zer du, ba, liburu onek oren pozik andoaindarek eta euskeldun zintzo guziek aren yayotzagatik yai egiteko?

Ufütian, Salamanka'n yayo zan: baña bizia eman zion andoindaf bikañak, Garagofi ta Lafamendi'taf Manuel'ek.

Egun auetantxe betetzen dira befeun urte azaldu zanetik; eta befeungafen urte au ospatzekoxe bildurik, emen gaude.

Zer du, ba, liburu onek ofen pozik andoaindarek eta euskeldun zintzo guziek aren yayotzagatik yai egiteko?

Ufütian, Salamanka'n yayo zan: baña bizia eman zion andoindaf bikañak, Garagofi ta Lafamendi'taf Manuel'ek, Euskalefian biotza zeukan, oinperatuta zegon euskera yasotzeko asmoz beterik.

Gogo bizi ori pil pil dago liburu onen ofialdeetan, ta andik datofkio daukan gafantzia.

Eziña egiña deritza. Auxe da atalburuan darakuskigun izena. Afokeri-usaya bide dario; ofelakorik ez dago, ordea. Euskeraren arauak azaldu ta argitan yaf-

tzea guziek orduan ezin alakotzat zeukaten. Mariana'k bere España'ren Edestian dio: "rudem et barbaram linguam, cultum abhorrentem"; euskera zakaf, tartail ta landugaitza dala; ta aren ondoren au zan euskaldun ikastunen ere afunteko iritzia.

Ala bear ere. Gure artean atxufa utzi ta eskolara yo nai zuten guziei, baita irakufi ta idazten bakafik ikasi beaf zuten umeei ere, dana erderaz beti irakatsi zaye. Eskolatik irtanda ere, kalean bertan, euskeraz egitea gure mutiltxoei aspal-di ufutienetik eragotzia izan oi zaye. Aztu al zaizue ume euskeldunei euskera eragozteko, eskoletan eman oi zitzayen zori txafeko erastuna? Aztu al zaizue larunbat afatsaldeetan **anilloa** zeramanari maixuak ematen zion astiñaldi gogoña? Ofela, ostikoka, gizaldiz gizaldi erabilia izan da gure artean euskera gaxoa, Aita Kardaberatz'ek saminki dionez.

Ez afitu, beraz, euskal-arauak susmatu zitzakenik iñon ere softu ez ba'zan, ta afoztak ez ezen, euskaldunik argituenak ere, euskera elbafi, nafas, tartail ta era-kaitza zala etsi etsita ba'zeuden. Argibiderik ez zan, ilunbe artan ibiltzeko. Mor-dolo artatik irten guziek nai ta ezin. Iñork ez zekian norgana yo, mataza ariltzeko. Salamanka'n, befiz, seme bikaiñ bat Andoain'ek ba-zeukan. Arengana euskeldun askoren ta Gipuzkoa'ko batzafaren begiak, argi eske, itzuli ziran. Ta guzien aburuz **eziña** zama, Lafamendi'k bere gain artu ta beste arazo askotan itobeafez ibili afen, lan befi oni zain ta muin ekin zion, **eziña** zirudiena, burutu ta egin arte.

Eziña egiña deritzan euskal-izti edo gramatica au ori da; euskeraren arauak, tankera, ayufi ta erabidea argitan yafiak, edonork efaz ezagun ta ikasi ditzan, euskeraz egoki itz egin ta idazteko.

Iru sail bereizten dira Lafamendi'ren euskal-izti ontan. Lenbizikoan, euskal-gayak diran edotariko izenari, izenordeari, ta aditzari dagozkion aldaketak eta oafkizunak, bildu ta azalduak aufkitzen dira. Aditzaz egitean batez ere, Lafamendi'k bere buruari ta alegin guziei gañez eragin zien, Aita Kardaberatz'en aitofez; ta orain ere asko ikasi dezakegu sail ontan Lafamendi'k bildutakoan.

Bigafen safean, euskelgayok izpidean beaf danez elkafi yosteko, arauak dakaftzi.

Irugañenak, euskera ondo oguzteko, edo euskal-itzak erausten egoki ebakitze-ko arauak azaltzen ditu; ta geigafitzat, euskal-neufitzak nola egin beaf diran, aluxuan ere, darakaskigu.

Utsune askotsu ba-dira euskal-izti ontan; okef esanak ere bai. "Ala bein baño geyagotan Lafamendi'k berak esan dit", Kardaberatz'ek dio.

Lafamendi'k liburu au idatzi zUNETIK ez dira alpefik befeun urte igaro. Bitarte ontan, berak piztutako adoretz ta argitutako bidetik, aufera diyoaz langile asko, euskera geroago ta azkafago aztertzen sakonago azaltzen ta guzien begitan argiago yaftzen: Lardizabal, Intxauspe, Bonaparte, Itufi, Campion, Schudhart, Azkue ta abaf. Euskera orain aztafenez ta efaz ikasi ta yakin nai ezkeru, iñork ez du Lafamendi'gana yo beaf. Arena baño obe ta egokiagoak oftarako dira yakin-tsu orien idaztiak.

Ez uste ofegatik gure Lafamendi aundiaren izen argitsua gandutu edo lausotu ditekela. Aitzitik ere, argiago ta ospetsuagoa egiten zaigu. Ameriketara ikusten degun auferapidea, ta Ameriketara egunero diyoazen ontzi ta itxasgizon azkafak, ezer ez dira, Ameriketarako bidea lenbizikotz igafi ta ondorengoei erakutsi zien Kolon aundiaren ospe ta aintza itzaltzeko. Ez du Loyola'taf Eneko deunak, Xabie'en ta beste seme deunen ospeगतिक, gutxienik ere galdu. Aitaren izen ona, semearenez geitzen da; iraslearena, yafaileenez.

Ara zertan dagon **Eziña Egiña**'ren gafantzia, ta andik Lafamendi'ri datorkion ospe aundia. Euskal-idazle mixiolaririk bikañenetakoak Kardaberatz ta Mendiburu izan dira. Biei, atzefian edo erbesten, euskera astu izan zitzayen; baña Lafamendi, Loyola'n lagun izan, ta aren **Eziña Egiña** irakufi zutenetik, aurtzaroko izkuntza biengan bifloratu zan, ta entzutekoa da, noski, **Eziña Egiña** ofetzaz diotena.

Kardaberatz'i adiozute: "Gaberdi ilun batean, ta arantzaz alde guzietatik bateri-kako bide batean bezala, euskera ta euskeldunak zelbitzan; ta Aita Lafamendi'ri bakafik zegokion ausardiz, beafgai edo irtezin ontan saftu zan. Gizon baten ez eze, askoren diña zan egitekorik gaitzen ontan, berariazko ta berezkirozko Jaungoikoaren argi gabe, (Aita Manuel'i berari esan diodan bezala), ez berak ta ez bestek ezin gauz onik egingo zuen".

"Euskeraren Gramatika onek, ez gizonen, ezpada aingeruen beafgaya zirudien; ta orain egiñik begiz ikusita ere, ezin datekeana dirudi: ta liburu au eskue-tan ez det iñoiz ere aftzen (ta askotan aftzen ta irakultzen det) Jainkoa goratu gabe. Berari miña eskeñ Aita Lafamendi'ri beaf ziran argi aundiak eman ziozkala-ko".

Mendiburu'k berebat **Eziña Egiña** zeinbestekotzat zeukan, goraki aitoftzen digu. Entzun: "Aita Lafamendi'ren zerbait befi ba-dezu. Baña gizon oni zenbat zof diogun euskaldunak, ongi beintzat, ez dakizu. Zori onetan utzi zituen Valladolid'eko ta Salamanka'ko **katedrak**, baita Españaiko efegiñaren konpesonarioa ere. Oriek utzi, ta bere Aita S. Ignazio'ren etxera bildu ezpaliz, ezin egin zitza-kean agertu dituen euskeraren gañeko bere bi liburu aundi edefak. Nere esanak zerbait balio ba'du, esan dezaket (eta ez dut esaten biotzean daukadana baizik) ez nuela uste, yayo edo yayoko zala, onek orietan ta lenago atera zuen euskara-ren ikasbidezko liburuan egin duena, egin zezaken euskaldunik. Orain Aita La-famendi'k egin duena egin ba'lu norbaitek orain miña urte, dadukanetik beste itxura izain zuen gure euskerak. Ba-dugu bizi garanak, eta izain dute gure ondokoak nondik atera bear den guzia edeftzeko ta apaintzeko euskerazko izkera leuna. Ondasun au guziok zofko diogu Aita Lafamendi'ri".

• • •

Zof au nolarebait garbitzen andoaindafok yaiki zerate (zerate ez, yaiki gera, ni ere odolez andoaindafa naiz-ta) aste ontako yai maitagafietara edonongo euskal-dunak deiturik, euskerarekiko gaña, guzien biotzetan piztu ta irazekitzeko.

Ori da, bai, ori, Andoain'en dedu yatof yatofa; ofelako semeak softzea, ta biuftzen dien goraldi edefez beste seme bikain befiei bidea gertu ta atontzea. Ala biz.

Aita Olabide'k egiña





ERRO, Juan Bautista

Larramendi, Jesusen Lagundiko Aita aipatuaren bere "EZINA GARAITUA" zeritzaion neke andiko lan maitagarriaren 200 urte betetzea zala ta egin ziran Andoain'go erriyan batzar eta itzaldi batzuek, dakizuten bezela, ta egokiya zalako bere erritar jarraitzailleak ezagun eraztea jaiera oietan, argatik jasoa izantzan nik orain dakarkiten euskaltzalea, jarraitzalle aietan gallen arkitzen zana ta askoren-tzat osoro aztuta zegoan ERRO TA ASPIROTZ'tar JUAN BAUTISTA, Larramendi-ren geroztikako antziñatar gure euskera'ren maitale sutsua, au iltearekin laister jaio zana Andoain'go erriyan zazpi urten burun 1.773'garrengo urtean, eta andoaindar aiton zar batzuek beren gurasoetatik entzuna dutenez, "kale-txiki" esaten zaion etxetxo batean.

Astarren argiagokak billatu nai izandu ditugu, Eliz nagusiko liburu zarretatik bañan gertatu zaigu garai artako liburu zallak prantzez araso madarikatu ark ondatu zituala.

An eta emen kondairagille ta edesti zaleai berigatu bear izan diogu ba, bere berri batzuek billatzeko, ERRO ta AZPIROTZ tar Juan Bautista zer eta nolako gizona izantzan jakiteko.

Bere guraso onak buruz azkarra zetorrela ikusi zutenean mutilla erabaki zuten ikastetxe aundietara eramatea oso gastea zalarik eta urteak iritxi zitzaizkionean zertarako bere gogoak zeuzkan agertzekoa, adierazi zuan mina edo meategietar-arakoa eta Almaden'en egin zituan ingenierotzako lanak.

Napoleon frantzeztarra Espania'ko lurraz jaubetu naiaz bera etzan lekuan sartu zalako gora-bera aundiak izan ziran. Araso bere-bizikoak arrotzen eta bertakoen artean eta gure ERRO bezelako gizon biotz garbi ta buru azkarrak zer egiña franko izan zuten Frantziko Matxiñada makur artatik zetozen aize ta lege ar-joen aurka.

Ta zer esanik ez dago au guziya bere kristau ta errikoitasun sutsuak eragiñaz-ten ziola.

Bearrekoak ziran bere laguntza lanak nonbait eta laister eraman zuten goi malletara, Ciudad Real'en zegoala Prantzez-guda sortu zan eta andik urrena egontzan Madrillen eta Bartzelona'n eta bertakoen batzerreko buru autu zuten Napoleon'en bidegabekerien aurka.

Prantzez araso arren ondoren naspillakeri batzuek sortuko zirala jakiña zegoan. Napoleon'ek sartu zuan erruaz kutsatu ziran asko ta, lege berri kaltegarriak goieratuaz.

Beragaitik ERRO gipuzkoar zintzoa bezela, euskal lege gordetzalle zan bidez-ko-erregetzaren zale kemen aundikoa agertu zalako erbestetua izantzan 1820 garrengo urtean.

Berriro biurtu zan España'ra 1823 garrenean, Angulemako Dukea'ren gudari taldeakin, Luis Deuna'ren eun-milla seme zeritzaionakin. Oiek Errege azkatutzero zetozanak ziran. Eta España'ko Goi-Batzar Bitarteko iru andizkietako bat aukeratu zuten andoaindar ERRO. Urte artan bertan beste goi malla batzuek erabili

zutuan eta bere neke zal eta ugarien ordañez saritua izandu zan Gurutze berezienakin bere Errege bidezkoangandik.

Erro'ren gizatasun aundi ta trebia ikusten degu. Sinismen osokoa ta biotz on eta zabala. Ez gaurkoen antzekoa. Edozer eragozpen txikienarekin kuzkur eta zimurtuta gelditzen dana. Zapuztuta...

Ainbeste ta ainbeste zalaparta ta matxiñadak entzuten atzeratuazitzen. Zenbat eta ekiñaldi aundiagoak aurrean agertu, orduan eta indar ta kementsuago zegoan bere gogo.

Lengo gizaldiko naspilla gogorrenetako aien nagusitasuna gaizki zeritxaion; bere eriyaren galera zekarrelako ta erabakitze ta buru auzte zallenetan arkitu zan ta ala ere zutik eta indartsu udaldiak eramaten etzuala. Ta begira, bere idazti-lan neketsu ugalkorrari.

Erro langille

Lanak etzuan mendean artzen zuan mendean lana.

ERRO zanak etzuan ez, jolasean garai askorik galdu bere erritarren kaltean, gaurko egunean galtzen dituzten bezela gasteak eta gaste diranak.

Gutxi izaten diran bezelako langillea baitzan. Matxinada ta nazpillaketaren kaltean lanean goi malletatik, eta au da pozgarritsu erritarrak: An, malla aietan zegoala la gaurko eguneko gizonik ikusiko litzaken goiak ben arrapatuta bere euskera gogoan eta beragaitik lan eta lan arduratsu garai on guzietan.

Ala dio Belasko kondairagilleak: "Askotan aurreragi eramaitzen zuala bere Euskaleñari zion maitetasunak. Au entzuteakin, adiskide euskaltzalea, kendu eza-zu burutik txapela, zuretar ERRO jaunaren izenean!

Auxe bera egiten ikusten ditugu gure asabak 1823 garrengo urte artan bertan.

Gipuzkoa'ko Batzarra bere lege zarrean bildurik Ordizian, erabaki zuan, denen asmo oso-osoa: ERRO TA AIZPIROTZ tar JUAN BAUTISTA SEME BEREZITZAT ARTZEA, EUSKERA'REN ALDE EGIN ZITUAN ETA EGITEN ARI ZAN LANKETA ON ETA JAKINTZUA'GATIK, ETA BERE ABIZENENKO ARMARRIARI EZARRI ZEZAIOLA GIPUZKOA'KOA."

Au ondo entzun bear da aditzalleak.

Erabaki gogoangarri oni bere zuzentasun aundi ta egokia eman bear diogu gero. Ez egon uztetan edozeñ eratan ematen zituztela autatziak gure euskal lege zarreko aitonak.

Ez entzuleak, ez. Axalera baño mamira geiago jotzen ekitenak ziran gure antziñakoak, gurasoak.

1825'ean erbestetua egondu zan puzka batean Balladolid'en. Ba ziran aiek ere garaiak-eta. Orduko neurtitz batzuek dioten bezela:

Milla ta zortzireun ta
ogei ta bost urte,
Jesus etsayak saldu
zutela diote,
orain ere orlako
lanenbat ba dute,
zergatik iya dagoen
gogorena alkate,
erremedio gabe
guztiantzat kalte.

Gero eramana izantzan 1830'ean Sebilla'ra, VII garren Fernando iltzan arte San Lucas de Barramedan eduki zuten erbestetua. Errege iltzea gertatu zanakin batera Londres'era aldatu bear izan zuan.

Ordurañokoak aundiak izan baziran ere beltz matxiñadarren lege urratzeak, etziran txikiagoak VII garren Fernando il ondorengoak.

V garren Karlos'eri erregetza emateko etzegoan noski matxiñada ta iskutu ta illunpeko billeraldi makur, masoikeriya arrek bere oñordekotza jasotzera zeizkion legez ta bidez zabalduaz antsiñar erakutziak, gordetzera zetozenak: Sinismen deuna ta errien bizi-bide berea, lege zar, azkatasun ta asaben oitura on maitagarriak.

Ementxe, Euskalerrian, Auzi orretan zatirik auditxoen artu zuten gure aiton gurgarriak, euskaldun kementsuak. Gaurko dakiten idazlean begietako lengo kandua azko kenduta, zerbait esan naiean arkitzen diranean, arritu ta gelditzen diran añako zatia! Ainbeste erakusle ederreko egintzak puzkak ziran jarri zituztenak gure euskaldun aitonak beltz matxiñadaren aurka.

Zekitelako:

Masoietan ta liberaletan
ez dala sortzen Fuero'rik
Kadiz'ko beltzak jarri zituzten
gurutzeari josirik,
ordu ezkeru ez dute izan
gauak! egun bat onik
baizik Jesus'en moduan daude
larru gorriyan zintzilik.

Egi aundia zuan esaten au zionak, Ramox zanak
Gaur bizi ba lira gure aitonak, zer esango ote luteke?

Esaten gendun esaten gendun
ortik zertzan etorriko,
beltzan legea goratzeakin
Euskalerriyai ostiko
eskubideak pituka denak
kendu ta zaitu jarriko...
ta ara iritxi esandakoa
ote degu au betiko?

Nola egon V garren Karlos zana ERRO TA AZPIROTZ tar Juan Bautista jakin-
tsuaren laguntza artu gabetanik ainbesteko goraberaen aurrean?

Deitu zion bada Londres'a ta bai erantzun ere biurtuaz barrero España'ra naiz
urteetan aurreratu xamartua egon, bada irurogeitik gora zijoan ta lendik neke
aundik egiña ta naigabe ikaragarriak igaroa.

V garren Karlos'ek bere aldamererako artu zuan aurrena ta Ministro Universal
autu zuan gero 1836 garrenge urtean ta Jaungoikoak bakarrik daki noski, bere
mall orretatik zenbaterañoko buru-neke ta gauz zuzentze arrigarrietakoak egin
zitun. Ala esaten digu Baron de Arteaga kondairagille jaunak. Berari zor zitzaiola
ainbeste eragozpen zail garaitu ondoren, orduko lan era asko bere bide onean
jartzea. Gauz guztietan ezin irten ondo, zerbaitetan erori aldienbat izan bear eta
gure ERRO zanak ere izantzun berak uzte etzuan bezelako gertakizuna.

Erro'en irizpide ausarta

1836 garrenge Urrilla'ren 15'an V garren Karlos jaunak Durango'ra deitu
zituan batzar batera, orduko bere gudagidari andiak eta ERRO zanak eramán
zuan bear-bearrekotzat bezela Bilbo'ko erria artu bear zala, garaipenaren bidean
jartzearren. Bilbo artu ezkerotz, gaiak sortzen zitzaizkiola karlisten gudari taldeari,
Madrilla bitarteko eragozpenak menperatzeko. Ba ziran batzar aretan iritzi orreta-

koak etziranak ere, baño laguntzat agertu zitzaion general baten iritziyaz ontzat artu izantzan ERRO zanaren asmoa ta egintzara eraman zanean gaizki irten zalako Bilbo artez uzte ura, bere Ministro Universal'tza ori utzi egin zuan eta lenengo eduki zuan eran bere aldameneko artu zuan V garren Karlos zanak eta ontan egoala ERRO jauna an izantzala Azpeitiyan, diote edestigilleak, V garren Karlos ta Beira'ko Printzesaren eskontzako eliz-jaiera orretan.

Bergara'n egintzan dollorkerizko besarkada ta pake gezurrezkoa etzuan ontzat artu nai izandu ERRO ta AZPIROTZ tar Juan Bautista andoaindar jakintsu ta biotz onekoak.

Argi ta garbi ikusten baizuan galbide ura ta naiago izandu zuan neke ta arantzez betea arki arren bere etorkizuna jarraitu zartzaroan ere, lenagoko eran zuzenbideari, gogoan arturik atsekabe arretan Zumalakarregi aundiaren garaiko erritar abesti ura:

Karlos V garren jauna
gure erregia,
Españiya guziya
du bere beria,
ezin izan gentzake
beste bat obia,
euskaldunok daukagu
kolkuan gordia.

Ta alaxe ikusten da bere arrekin alde egiten Frantzira, Montpellier'a eraldetu zan. Ta an bizi izantzan gure ERRO 1850 garrenge urte arte. Bere iritzian ermo, bidegabekeria makurtu gabe.

Ezin egon orratziok, bere aizken urtietan Euskalerritik urruti ta etorri zan bertara, Bayona ingurura ta emen iltzan 1854 garrenge ilbeltzaren 5'an kristau on bat bezela bere larogei urteak bizkar gafiñean zituala.

Larramendi'ri jarraitzen

ERRO Juan Bautistak bere erritar Larramendi Aita'ren lanari jarraitu zion gogoz ta Jaunak emandako jakinduri guziaz.

Bere euskeraren aldeko lan eta irakurgaietan azalduena auxe da bat: Alfabeto de la Lengua primitiva de España, bertan artzen dituala baztar askotan billatuta antziñatik arkitzen diran euskeratiko itzak. Onela adierazi nai izan zuan Larramendi aitak esanda utzi zuana indartuaz, garaien batean itzegin zala Españin euskeraz ta bertan lendabiziko izkuntza euskera izan zala.

Irakurtzen degu, goratzekoa dala benetan ERRO zanaren lanketa aundia ta noski bildurtzen zirala ERRO'n lana atzamartzia erbesteko idazlariak.

Lenengo lanketa au Gorosabel'ek dionez 1806 garren urtean argitaratua da.

Beste irakurgai edo liburua da "Observaciones filosóficas en favor del alfabeto primitivo" ta asten du euskerazko itz eder oiekin: EUSKALDUNAI OSASUNA TA ZORIONA ta astintzen du gogor erakusbide berriak sortzen dituala, Konde tar Antonio jauna El Escorial'ko liburutako gordetzaldea.

Iztueta'ren Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondairan ba dauzka itz neurtu zar polit batzuek ERRO andoaindar ospetsuaren lanketaren gafiñean.

Begira zeifiñ ongi eratuak dauden:

Mundu guzi guzia
jakiñian bego
biziko da EUSKARA
orain eta gero
beraxe andizkatzen
gogaltsu ta bero
itzkin batzen ari da
azpaldian ERRO.

Atera ditu onek
bi obra berriak,
esaten dituela
benetan egiak,
ayek irakurtzean
etsaien erdiak
ezur-utz egin ditu
sabel-arra biak.

Txori buru pustu bat
egiñik txit aundi
etsai irten zitzaion
gure euskerari,
apez jantzian zuan
izena estali
aditu baizituen
bereak eta bi.

Luma lodi zatar bat
zorrozturik gaizki
asi zan itzkribatzen
arroturik laski,
euskera ixiltzeko
asmoetan noski,
erronkak botatzia
ezt'ordea aski.

Kakoa ortik eta
emendik makoa,
esaten zuen zela
Montuenga'koa,
uste bazuen ere
bazala bapoa,
astin bat artu zuen
a zer nolakoa!

Naiz joan batera ta
naiz joan bestera
non-nai arkituko da
garbiro Euskara,
eman bear diogu
zor zaion ezkerra,
bestela gu beraren
semeak ez gera.

Aurretik azaldu degun "Alfabeto de la lengua primitiva" ingeles izkuntzara biur-
tu zuan 1829'n Erwing tar Georges'ek. Eta Frantzeran Johanneau tar Eloy jaun
jakintsuak. "El mundo primitivo o examen filosófico de la antigüedad y cultivo de
la nación vascongada" beste irakurgai edo liburua ERRO jaunarena, Madrillen
egia da, Fuentenebro'nean. 304 orrialde ditu. Ta argitaratua 1815 garren urtean.

Neke aundi ta jakintzuzkoa jotzen dute ERRO jaunaren kanketa, batez ere
azkenengo agertu degun liburu au. Lau zatikoa da, azken lan au, ta lenbiziko
zatia bakarria argitaratua izan bear du.

Ta Allende Salazar jaunak begira zer dion: Juan Bautista ERRO forma con
LARRAMENDI y ASTARLOA la trinidad de los insignes filósofos vascongados".

Bere garai beltz eta illun aietan IPARRAGIRRE Urretxuarra ere gogoratzen zan
ERRO zanatzaz ta bere jakinduriz aztertuta egindako lan ederratzaz. Ara nola
aitatzen duan utzi zizkigun itz neurtu batzuetan:

Galdu dirala oitura onak,
galduko degu euskera
onla baguaz eun urte barru
galdu da gure izena.
ERRO, AIZKIBEL zeran bezela
erakuslerik gaur ez da,
gure euskera, ai, galtzen bada
gu euskaldunak ez gera.

Ara nik, nere betarik ezean liburu ta orri batzuetatik batu ditudan ERRO'ren
aztarren bakan batzuek. Makiñatxo bat geiago bildu litekeala nago.

Ortarako Jaungoikoak emana da zerbait doai puska bat duenak egin lezake
edesti indartze aundia gure Euskalerra bearrean dagoan onen alde. Bertako
seme aitapen aundikoak igotzearekin Sorterria bera igotzen da ta, erakusbide
ederrak erakarriaz oraingo gizaldi berrikoen begien aurrera. On ikasi bearra beti
dago ta.

Zer erakusbide billatzen ditugu ba ERRO ta AZPIROTZ tar Juan Bautista,
andoaindar jakintzuarenean?

Matxinada zitalaren aurka, Sinismoen sendoa, Euskalerra ganako maitetasun
neurri gabea etsaiak zetozenen gaitz egitera ta zintzotasun trebia zarronzale
tar lege onari. Aldaketa ta zatarkeri apurrik gabe. Gizontasun oso ta betea.

Auxe bera ager zagon guk ere Jaungoikoa'ren laguntzaz oraingo gizatasun aularen aurrean. Ikusten gaude-ta:

Nola batera ala bestera
gaurko gizona begira:
aitzaki billa... joan naian dabil
eltzea dagon tokira.
Ez dio ardura lokaztutzia,
ez du bildu nai garbira,
argatik zutik leiak jarritz
begi onez jatorrira
bota deiogun kopetasarrez
saltzen danai arpegira,
ERABIL OIEK GURASO ZARREN
ERAKUTZIAK EZ DIRA.

Andoiañen ere esan nun eta emen ere ez dator gaizki esatea.

Azkenik, nere itzaldi au amaitzerakoan nai det bota asmo bat, euskaldun guztiok ta batez ere andoaindarrak beren errikotasunean egitera beartuak zaudetena. Len eta orain Larramendi bertako seme argidotar arreatatik egin zenutena ta oraindik orain egin dezutenaren antzera... urrena egin dezazutela beste Andoaingo seme argidotar ERRO ta AZPIROTZ'tar Juan Bautista, Gipuzkoak bere lege zarrean seme berezizat aukeratu zuan arreatatik, bere il zaneko eun urte betetzea edo beste aitzekiren bat bitarte arturik beste euskal jai aundi eder bat bere omenez. Auxe ez aztu, baizik gogoan artu ta eduki eta egikaratu.

• • •

Euskaldunak! Zaitu ta gorde dezagun ba gure erriya, geronen izkuntza odolekoakin, andoaindar seme bereziak maite izan zuten indarrarekin. Zaitu gure erri maite au denok. Zaitu gure izkuntza, Euskera ez da ta alderdi bat edo besterena, euskaldun guziena baizik, Arrasateko euskal eguneko eliz-itzaldi sutsuan Eguzkitza jaunak zion bezela.

Maite ta eutsi euskerari, andoaindar seme illezkorak maite ta eutsi zioten antzera, gure egitekoa orixe da ta. Jaungoikoak emandako gure izkuntza erabiltzia an eta emen bide zuzenean. Etxian eta atariyan biotz zabal eta osoan Lagun eta adiskideen artean.


Ta gogora antziñako lege ta oitura garbiak eta gereaa degun ondasun orren jabe irizteko bidean saya, alegin osoan Larramendi eta orain goratzen jardun naitzen ERRO euskaldun trebetsu aiek saiatu ziran bezela. Gure aldetik ez dedilla izan utzegiterik. Orain berrogei urte Ramox neurtitzlariak ziona:

Amaika egi eder
ai, ai, Larramendi,
esan zenezazkion
Euskalerrari.
Jarraitu ba genion
zure esanari,
Ama etzan arkiko
dagoan bezin eri.

Eta ara nerea:

Izan ba gendun griña
ERRO jaun batena
euskal areriyua
bildurtzen zuena
t'erriagan alako
arreta zuzena...
gerekin gendukagun
eskubide dena!

MANUEL URRETA
"Gurasobide"



GIZARTIZTI

OGIBIDE edo LANGINTZAK

Bizi-modua aurrera ateratzeko ogibideak auek ziran: Eiztari, Artzai eta Unai, Nekazari, Olagizon, Buztinlari, Ikaskin, Arrantzale eta Merkatari. Langintza auekin batera, oien Arauak eta Euskal Fueroa ikusiko degu. Eraskin bezela beste auek aztertuko ditugu: Zerga edo Petxak, Auzo-lurrak edo erri-lurrak (mailloak), Kofradiak, "Comunero" zeritzan Mogimendua eta, azkenik, Euskal Kontsul-etxeak.

Baskoniak, Erromatarren lagun zalarik, Enperadoreen begirunea izan zuan berekin. Bere semeeri Caracalla'k erromatar uritasuna edo erritasuna eskeiñi zien guztientzat 212'an. Erromatarrekin pakean bizi izan baziran ere, beste era batera gertatu zan franko eta bisigodoekin: burrukak neurrigabeak.

Mairuak Iberian sartu ondoren erresuma bat sortu zan Iruñaren ingumari guztian. Gerora erregetza orretan sartu ziran, beuren borondatez eta askatasun osoz Araba, Gipuzkoa, Errioxa, Lapurdi, Xubero eta Iaca. Geroago batuko zan Bearn'eko aldea ere. "Euskal-erresuma" deitzen dio Menéndez Pidal'ek; mairuak, berriz, "Al-Bascunich".

Bizkaiak alde egin zion Nafarroari 1179'an. Gerora beste-oren-beste egingo zioten ondorengo probintzia guztiak; gelditu zan bakar-bakarrik. Ori asko ez dala, 1.512'an Fernando Erregeak, maltzurkeriz eta indarrez, askatasuna kenduko dio Nafar Erresumari. Alaz ere, bai Nafarroak eta bai beste probintziak ba zuten ainbesteko libertatea. Esatekoa da Gipuzkoak eta Bizkaiak, batez ere bi probintzi euskaldun auek, izan zuten demokrazia, European, Frantziako Erreboluzio aurretik, esagutzen ez zan bezelakoa.

Gure etxe-barneko eztabaidak ezagutzera beartuak gaude, ordea. Asiera emateko esan dezagun Aro-Erdia beteko dutela gure Aide nagusien arteko burrukak. Baztar guztiak bete zituzten indarkeriz. Edonun jauntxoan jauntxokeriak. Auen ondoren, eta bear bada auen aurka, sortu zan beste gizarte berri bat. Etxe bakarretik erri-bilduera pasako gera, eta erri-bildu bakanendik, bat-batera, uri-arteko bizi-modu berrira. Baso eta oianetan sakabanaturik bizi ziran euskalduneri erri-bildu auek, billak, beren babes eskeintzen zieten. Sustraietatik berri dan Erria sortzen, da erri-bildu auetan oiñarriturik.

Naiko denbora aurretik zala, Iaca'n Santxo Ramirez erregeak jarri zitun, beuren fuero bereziekin, estranjeriatik ekarritako gizasemeak. 1090'an berdiñ jokatzen du Estella'n (Lizarra) ere. Fuero berezieren babesera langille, merkatari eta ostalarik datoz. Geroago fuero ori baztarretan zabalduko da; baita Gipuzkoara iritxi ere, Logroño'ko fueroekin batera, eta bien artean Euskalerra osoa estaliko dute. Erri-bilduak auzoz osatzen dira, "burgoz", alegia. Eta langintza bakoitzak izango du bere kalea: Cordelería, Zapatería, Calderería, Carnicería, Cinturería eta abar. Erriko auzo auek laister dira alkarren-arteko burrukan. Nabarrerria zan euskaldunen auzoa Iruñan eta kanpotik etorritako fuerodunenak ziran San Zernin eta San Nikolas auzoak. Euskaldunak bestean aurka ikusten ditugu. Estella'n berdiñ-berdiñ: San Juan auzoko euskaldunak, San Martin kanpotar fuerodunen aurka. Auzoak alkarren aurka eta nekazariengandik bereizi. "Cercas Altas" zeritzan

Gazteiz'ko arri-esia zan-XIII'aren asieran-auzoen eta nekazarien arteko muga. Gaurdaino eldu da "Cercas Bajas" deritzan kalea Gazteiz'en.

Erri-bildutik at egon oi ziran burni-olak, gatzagak (salinas), arrobiak, loiola-tor- nuak, eulearen tramankuluak eta abar. (Hasparren'en, bertan, lareun eule zeu- den). Barandiaran'ek diozkunez "bere bizimodua euskaldunek, Europa'ko beste Erriek bezela, olagintzan, langintzan (artesanía) nekazaritzan, arrantzan, eta mer- kataritzan zeukaten oiñarritua". Bizi-bearrak berak eratu ditu ogi-bide guztiak, era batera ala bestera. Eiztari eta arrantzalearen ondoren agertuko dira beste langin- tza guztiak ere: artzai eta unai, loiola eta burniola-gizonak, euleak eta errotariak, zapatari eta jostunak.

XV'ean, erdi-aldera, langintza auek ezagutzen ziran: kutxagille, olagizon, kirten- gille, rementero, urtzaille (fundidor), labezai, txaramalgille (jubetero), auspozai (barquiner) edo auspogille, ugalegille (cinturero)... Manuel Urdizibar'ko toberagi- llea zan eta Martin Pz. Alza'ko gabigille (gabi= mazo de herrería)... Tudela eta lruñan, ba ziran ere, espartzugiñ eta zillargiñak, sillagiñ eta "alfageme"ak (barbe- roak= bizarra kentzen zutenak eta odola ateratzen zutenak). Nafarroako Kase- da'n ba zan erriko "mudalafe" a eta onek bertako merkataria batek erabiltzen zitun neurri fatsoak artu eta urka-abeen josi zitun: "las enclavó en la picota". 1599'an, C.R.'k zionez, baziran Nafarroan badaezpadako langintza zatar batzuek (viles) txerrizain, perragille, tabernari, zarraila-gille, errekarero, arakin, errotari, ostalari, larrugin, jostun, zapatari eta arotz. Buruzagi ofizioa bera ere orrelakoa ez ote zan esaten zutenak baziran. 1587'an, urrillean, Martin Arze'kok, agoteen aurkako jui- zio batean agertzen zunez, agoteak beurak ere badaezpadakoak ziran (viles) euren langintzarekatik "erradak, barrillak eta zorroak egiten zituztelako". Eta "mandoeri illea moztea (motxaillea) eta saskiak egitea" ori ez zan gizaseme bate- ri zegokion langintza, ijitueri baizik.

Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, langintza eta ogi-bide guztiak ziran aintzakotzat artuak. Eta orrela, zapatari bat, "Zapaterito de Deva", izan zan mai-buru Debako Junta Jeneraletan, Korrejidorea falta zalako. (Carlos III'ak, Nafarroan ere aintza- kotzat artzeko agindu zuan larrugin, errementari, jostun eta beste orrelako ofi- zioak).

EIZTARI

Arri-Arotik aurrera, gizon guztientzako bezela, euskaldunentzat ere eizea izan zan ogi-biderik erosoena. Era askotara egiten zuten eizea; baiña, badu bere garrantzi berezia "uxaka-eizea" (caza al ojeo) esan oi dana. Zaldi, zezen, bisonte auntz, basauntz, oreiña eta abar arrapatzeko erabilli oi zuten xistema ori. Gaur bertan ere ezaguna da Euskalerriko zenbait tokietan betizuak, otsoa eta beste piztiak arrapatzeko: bi mendien artean piztiak uxatu eta sakonean dagon "otso- zulora" sartu erazi. Orrelako zuloak badira Gorbean eta Lakozmendi'ko Gibijo errixkan.

Etxalarreko mendi-gaillurretan famatuak dira sareak, usoak arrapatzeko. Nafa- rroan basauntzak eta oreiñak erregearen eizeak ziran; besteentzako debekatuak zeuden. Ala agintzen zuan 1556'eko lege batek. Berberak esaten zunez, eperra arrapatzeko txori-arrapalaria erabilli bear zan: "uña por una, ala por ala". Bi urte beranduago Nafarroako Korteak eun zigorkada zor zitzaion legea austen zuanari. Asko omen ziran lege ori austen zutenak.

Araba'ko "Libro de Decretos" deritzanak onela zion 1647'ko Maiatzaren 7'an: "nekazari eta mekaniko-langintzekoeri ez zaie libre ez eizea eta ez arrantza". Ez- eta Probintziatik kanpoko dieneri ere.

Beste era bateko legeak eman oi zituzten piztieri buruzkoak ziranean. Otsoa ill eta ayuntamentuan agertzen duanari sei marabedi eskeintzen dizkio XVI'go Oña- tiko "Ordenanza de Caza y Pesca" k. 1659'an bi tigre arrapatu zituanari sei errial

eman zitzaizkion. 1.674'an amabi errial eman zizkioten Martin Beitia'ri tigre bat arrapatu eta aiuntamentuan agertu zualako. Andik urte mordoxka batera ere (1759'an) "Ordenanza" orrek erakusten duanez, baziran otsoak, artzak eta tigreak Oñatiko mendietan.

Otso nagusi bakoitzeko sei eta otsakume bakoitzetik iru dukat eskeintzen ditu Nafarroako Korteak 1652'an.

Bizkaiko Fueroak bizkaitar guztieri ematen zien eskubideak urdeak eta basauntzak eizean arrapatzeko eta mendiak eurenak dirala-ta ez dedilla iñor eiztari orrerri eragozpenak jartzen ausartu. (Tit. 31,L.1). Iruñako eliz-nagusiko arrizko zut-abe baten kapelean (capitel de una columna) otso eta basurdearen eizeak daude irudietan.

ABELZAIN

Abereak zaintzeko langintza (Artzai eta Unai) Arri-Aroan (Neolitiko = Arri-berri-Aro) ditu bere sustraiak. Zezen eta bei, zaldi eta urde, ardi eta auntzen eziketak arrezkeroakoak ditugu. Larre, belardi eta basoak libreak ziran errienak bait ziran, auzoenak. Artzaiek txabola, eskorta edo sarobe, artegiak, denak eurak erabilliak izan arren, artzaiek, erriarenak dira.

Santa-Kutz, Santa Maria, San Migel, Santa Barbara eta beste zenbait Doneak ba dute birtutea aberea eta artzaiek zaintzeko. Besteorrenbesteko birtutea zeukaten ere elorri-txuriak, lizarrak, urrak (arbola), ardi-beltzak, auntzak, akerrak, "auntzek" (aurrekoen espirituak) eta Basajaunak (Barandiaran).

Ardiek eta auntzek izan zuten garrantzirik aundiena Araba eta Nafarroan. Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, (Lapurdian ere) beiek zuten aundiena. Txerriak ere ba zuan bere tokia etxeetako ekonomian, ez bait zan etxerik urteero txerria ilko ez zuenik, eguneroko urdaia eduki aal izateko.

Idi, mando eta zaldiak lanerako ziran eta merkagintzarako. Nekazariak akuillatzeko ona zer erabaki artu zuten Nafarroako Korteetan: "Idi-parea lanerako zeukateneri, soldaduzka libre."

Lanerako ganaduak bide eta kamifio guztiak bear zituztela aske, agintzen zuan Nafarroako Fueroak.

Nafar artaldeak, alde batetik Bardenesetara jeisten ziran; beste aldetik, berriz, Gaskuñako landeetara, ez bait zan tartean mugarik.

1828'ko Yraillaren 26'an Madrid'eko Gobernuak ona zer agintzen dion Nafarroakoari: Ebro-ibaieko mugak Auñamendira (Pirenee) pasatzeko. Nafarren erantzuna izan zan, baietz baiña kondizio batekin: Pireneetako erriak, mugatik pasatzeko libertade osoa izaten bazuten, emendik ara eta andik onera, belardi, larraina eta uretara (iturrietara) beuren ganaduekin eta nai zuten eran.

Belardiak, larraiñak, urak ez dute jabe bereizirik, danenak bait dira. Ala agintzen zuan Gipuzkoako Fueroak (Tit. 40,C.1). Eta gaiñera au dio:

"Agintzen degu agindu edozeiñ motako abereak, goizetik euren etxetik irten da... gauera iño, Gipuzkoako belardietan jan dezaketela edozein lurralde eta mendietan... naiz-eta toki oiek esiak izan eta mugarriz-mugatuak, naiz Aiuntamentu, naiz Aide Nagusi, naiz edozeiñ personaren eskutik mugatuak izan..."

Lege onek ez du auntzerentzako balio, auek okerrak egiten dituztelako arbole-tako adar-nagusietan. Beraz, auntzak beuren nagusiaren lurretan bakarrik askatuko dira.

NEKAZARI

Gure arteko Nekazaritza ere Arri-Arokoa degu (Neolitiko). Ala adierazten digute Lumentxa (Lekeitio) leizean arkitutako esku-arrotarria eta Bidarte'ko trikuarrian

abillatutako aitzurra. Aitzetik edo arritik ateratako itzak (aitzur, aiotz (podadera), nabar (golde-aitzo edo muturra) esandakoa argitzen dutela dirudi (Barandiaran).

Nekazaritza Euskalerrri guzian zabaldu zan.

Lekuona Zaarrak (Manuel) dionez, lurraren jabetasuna erritik persona bereizietara Aro onetan pasatzen asi omen zan. Ortik edo, etxearekin batera etxearen izena agertzen zaigu: Perurena, Petrirena, Blastegi (Blas'en etxe), Auspagindegi (Auspo-egillearen etxe) eta abar.

Lurraren lenengo urratseari "izato" deitzen zaio euskeraz. Lurrak artzen ditun beste lanen izenak, urteko ille bakoitzekin zer-ikusia badute: Azaroa da aziak ereiteko illea edo aroa; Jorrailla, jorra egiteko illa; Uztaila, uzta jasotzeko illa... Erromatarrek emen agertu aurrekoak dira itz auek, noski.

Golde muturra, Kristo jaio auuretik, IV garren gizaldian erabili oi zan gure artean; baita ganaduak goldetik tiraka ere. Laia, berriz, aurreragokoa degu. Goldea baiño zaarragoa, alegia.

Nekazaritza zabaldu zan, artzaintzaren bizkarretik; bien arteko interesak ez bait ziran alkarrekin etortzen; alderantziz, baizik.

Artzaiari belardiak konbeni eta esigabeko lur zabalak; nekazariaren zeregiña, berriz, basoak kendu, lurrak urratu eta esiak ipiñi. Gerora, burruka orretan beste bi lagun sartuko ziran: barkugintza eta olagintza, biak atera oi zuten basotik beuren lanerako bear zituzten gaiak. Batak egur-ikatsa eta besteak barkuen mastak egiteko zura. Bi auentzako basoa sakratua zan, bear bearrezkoa.

Erregeek, erri-billak sortarazteko, lurrak ematen zizkieten, erriko lurrak, nekazariari irabazian urratseko. Puente La Reina erriko semeeri onela die Erregeak 1122'an: "concedo vobis et mando quod laboretis terra erma ubi melius potestis in totas partes, in quantum potueritis ire et redire in uno die" zueri ematen dizuet eskubidea eta agindua lurrak urratu eta lantzeko, edozein tokitan, alde zuten geienak, egun berean joan eta etorri egiteko neurrian.

Gipuzkoako Fuegoak onela dio (Tit. 38): ez dedilla ganadurik sartu ez maaztegiatan, ez landaretegiatan, ez baratzetan, ezta ereindako soroetan ere". Estella-koak, berriz, zorpe gogorretan jartzen du maazti eta baratzetan sartzen dan ganadua nagusia.

XVI'garren aizken-aldean onela idazten du Enrike Cock jaunak: Los Arcos, Viana eta Lerin'go lurraldeetan garia eta ardoa merke daude, emendik kanpora bialtzea debekatua dagolako. Bitartean, Bermeo'ko agintzariek, milla gari-"caices" (neurria da) Andaluzi eta Frantziako portuetatik ekar aal izateko baimena eskatzen dute. Bilbok Baionari eun milla dukaten gariak erosten zizkion urteero. Nafarro osoak ori bazekin eta ondo iruditzen ez. Orregaitik Korteeri esaten diete nafarrak (1632) Nafarroak bialdu ditezket a euskal probintzietan 50.000 dukaten gariak... Gezurra baldin badirudi ere, orduan errezagoa zan Andaluzi, Frantzi eta Europako Ifar-aldeetik Euskalerrira garia ekartzea Nafarro eta Kastillatik baiño.

Ardoakin ere orenbeste gerta oi zan. XVI'garren eunkirarte Gipuzkoak eta Bizkaiak sagardo eta txakoliñakin naikoa zuten, ardoa ekartzea debekatua zegoalako. Ardoa libratu zanean, Bizkaiak Ribadabia'ra jo zuan ardo gaillegoaren billa itxasoz; gerora, berriz, lurrez Errioxara. Gipuzkoak beti Nafarrora. Larramendik zionez, burnitan irabazitakoa ardotan gastatzen omen zuten giputzak.

Markiña erriko Araudiak (1637-1-9'an) erritareri auxe eskatzen die: ortu bat edukitzeko eta iñoren baratzan kalterik ez egiteko.

OLAGIZON

Badirudi beranduago agertzen dala gure artean olagizona artzaia eta nekazari baiño. Alaz ere, bi auek ez dute ainbeste garrantzirik. Fausto Arozenak dionez, olagizonari aundikiari baiño abantaila eta eskubide geiago ematen zion legeak gure errietan. Langintza guzieren artean olagintza a aundiki.

Burni-olak oso dira ugariak Gizpuzkoan bezela Bizkaian ere. Baita Nafarro eta Arabak ifar-aldetik dituzten ibarretan. Lapurdi eta Zuberoan, berriz, eskasak, Olentzako burni-meatzak gertu izatea zan bat eta basoak inguruan beste bat. Biak bear; bearrezkoena, baso oparo bat; orregaitik baso ingumarietan egon oi ziran burni-olak...

Fausto Elhuyart jankitsuak 1783'an idatzi zun Somorrostro'ko meatzak nola ateratzen ziran. Artarako 3,4 edo 5 gizaseme alkartzen ziran; batzuek meatza urratzeko eta besteak kanpora ateratzeko. Alditan, meatzaren jabeak ziran guztiak alditan, berriz, batzuek jabeak eta besteak langille utsak.

Urtutze-lanak eta burni-lantzeak oso ziran ximpleak. Labeak metro bat zaba-lean zuan; bertan meatza apurtuta bustiña eta karekin naastuta, eta egur-ikatsa tarteka zerrenda edo apaletan: ikatsa lenengo, meatza ondoren; ikatsa berriro... Auntzaren larruekin egindago auspoa putzaka, aizea ematen.

Gure errietan bakoitzak etxerako bear zuan egurra "egurtzetatik" aterako zuan bakarrik; baiña, olagizonak lanerako bear zuan egurra edozein egurretik eta nolanaiko arboletik atera ezakean, Oleen Fueroak agintzen zuanez. Lege orrek ematen dio olagizonari eskubide guztiak etxeak eta olak erailtzeko, tokiz aldatzeko beuren gogoaren neurrian, zingirak eta aldaparoak nai zuan neurrian gora jasotzeko. Petxarik ez dio ezarriko gaiñean, merkatu librean eskeiñiko dizkio eta abar. Ainbeste abantaila eta eskubideekin, aizkenerako aiuntamentuak asarre burni-oletako gizonekin.

Burni-meak danenak eta danentzako dira bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan. Bi sarde eta bien artean iru makilla jartzea zan burni-meatzak lantzen asitako seiña-lea, Mutilo eta Zerañ'en. Enkartaciones'etan, berriz, lanaren eskubidea pikatxoa edo atxurra sartuta agertzen zan. Lana edozein alderdira jo zezaken, gora edo bera, ezkerrera edo eskubira; baiña, besteen lanak errespetatuz. Langille bakoitzak amalautik amaseira kintal-"macho", atera oi zitun. 208 libra zitun kintal-"macho" orrek.

1528'an Bizkaiko Fueroak, 28'garren Tituloan, lau lege oso ditu oletako lan eta ekonomiari buruzkoak.

Bazuten olagizonek beurentzako Alkate bereizi bat. Oneri zegokion olagizonen arteko korapillo eta prolemak ezagutu eta erabakitzea. Neurritik irten ziran alkate auek "zuzentasunaren makilla" (vara de justicia) eramaten asi ziranean. Orrelakorik ez egiteko agintzen die Fuero orrek berberak.

Ainbeste abantaila eta eskubideekin protesta bizia sortu zan. Artzaiek eta nekazariak alde batetik; aiuntamentuek bestetik. 1412'an Segurako Hospitalean izan zuten danen arteko batzarra. Ez alperrik. Gauzak gelditu ziran asieran zeuden bezelatsu. Nekazariak euren baratza eta soroak lantzeko eskubide bazuten, arbolak aldatu eta arboletatik egurra eramateko, ere bai; baiña zura burni-olentzako izango zan gerora ere. Olagizonen arrazoia beti izaten zan berdiña: gu etorri giñan onera lenengoz; ondoren sortu zan emen erria. Onen antzeko eztabaida batean Juan Bergara'kok zionez, bere aurrekoeri entzunda zeukan, Legazpia olagizonek sortu zutela; jentillen garaian ere bazirala olagizonak Legazpian eta burni-oletan burnia, kristauek izan baiño leen, egiten zala. Oraintsu artean egazpiko olak "jentil-olak" deitzen omen ziran eta olagizonen etxeak "jentil-etxe".

Oiartzun'go Kontsejuak arpegia eman zien olagizoneri. Arrazoia betikoa: erriko mendietatik arbolak ebagi eta eramaten zituztela ez baimen eta ez ordaiñ. Erantzuna ere betikoa: Erria eta Kontsejua sortu baiño leen emen giñan gu; eta gaiñera, badegu Kastillako Erregeak emandako Fueroa ere; Ola-fueroa, alegia.

Euskal Fueroa berbera ere, oleen alde da: "Olak puskatu edo auspoak oletan zulatzen dituzteneri, eriotza zorretan". (Bizkaiko Fueroa: Tit. 34,L.19) Gipuzkoakoa ere (Tit.' 39, Cap. 1): "burni-olak erre... auspoak ebagiten duanari eriotza..."

Gremio-antolamentuak burni-ola bakoitzeko gizon auek aitatzen ditu: buru bezela **iellea**, beste lau edo bost ola-gizon laguntzaille; bi **urtzaille** (fundidores) eta **gatzamaille** bat (piche).

IKASKIÑA

Mendiak zeuden pagoz eta aritez. Zugaitz auek bearrezkoak ziran olentzako, eurakin egiten bait zan egur-ikatsa. Ikaskiñen lana zan egur-ikatsa egitea.

Burni-olen Fuegoak olagizona eta ikaskiña, biak naasten ditu; biak bat zirelako. Ikaskiña olagizonekin batera bizi zan. Lan bakar baten, bi aurpegi. Burnia lortzeko meatza ekarri bear; meatza urtzeko sua bear egur-ikatsez; burnia lortzeko labeetatik ateratako agoia landu bear... Gerora beriziko dira eginkizun bakoitza: burni-lantze, meatz-karreatze, ikats-egite, burni-era maille eta abar.

Olagizonek erosten zituzten basoak ikats egiteko; edo ikats erosteko dirua korrituan billatu ere. Oletan erretzen zan ikats-egurra neurrigabekoa zan. (1514'an, Oiartzun'go erriaren esi-barruan, 27.000 ikats-karga erre ziran bertako oleetan. Ikats-karga bat lortzeko lau egur-karga bear ziran. Beraz, 108.000 egur-karga erri bakar batean urtebetean). Gerora, zenbait errietako Kontsejuen inbidiz jotako politika zikiñak, arbolak mendian aldatzea debekatuko du, burni-oleen ondamendia billatu nairik. Orrelako joka-bidez itto ziran ola asko.

Alaz ere, gure mendietan beti izan dira baso oparoak; beuretatik sortu izan da beti etxeetan eta egur-ikatsa egiteko bear ziran egurrak, baita etxea eta barkuak egiteko zura ere.

1262'en Alfonso X El Sabio erregeak Mondragoeri emandako eskubideen artean bat zan ikatsa egiteko egurra.

Iñork mendirik erosten bazun, egurra burni-olentzako bear zuan izan, naiz eta ordaiñak kobratu. Ala agintzen zuan Bizkaiko Fuegoak. Olagizona bazan eroslea, bera ere beste olagizoneri ematea beartuta zegoan, ordaiñak artuta. Norbaitek bereak ziran mendiak mugatuta bazitun, orduan libre gelditzen zan egurra emateko edo ukatzeko.

Mendietan ganaduek egiten zituzten kalteak neurtzeko, ikaskiñak ziran aukeratuak. Kaltearen neurria askotan ikats-gargetan neurtzen zan eta ez dirutan.

Ikats -zorroak burni-oletan erabiltzen ziranen neurrikoak bear zuten; lurralde bakoitzean aspalditik usarioa zan neurrian.

Erri guzietako Kontsejuak izaten zuten arbolak aldatzeko ardura. Bazituzten iru arrazoi auek gutxienez: eskurrak ganaduentzat, egurra eta zura barkugintza eta burnigintzarako.

Euskalerriko zugaitzik ugariena aritza zan. Onen ondoren zetorren pagoa. Pagoaren atzetik sagarra, arana eta gorostia. Piñu, izai (abeto) eta arkazia gutxi zegoan gure mendietan. Fruta-arboletatik zaarrena "urra" dala dirudi. Itz ortatik bait datozte ezk-urra eta intxa-urra. Gaiztaña ere berez sortzen dan zugaitza da gure inguruan. Ugaria ziran fruta-zugaitzak. Ugarienak sagarra, urdara eta intxaurra. (García de Cortazar).

ERROTARIA

Olak asko baziran, errotak geiago. Azpeitiko ingumarian 8 ola eta 16 errota zeuden. Zenbait ola zaarretan errotak eraiki ziran eta alderantziz erebai: errota zaarretan ola berriak. Errietako berri ematen dituzten idaztietan onelako au irakurtzen degu sarri: iriña eioteko errota bat dago lengo ola zaareren orde. Errotari, badaezpadako ofizio zan.

Nafarroako Korteak, 1766'an, orren antzeko ofizioa zutenen gurasoen semerik ez dute nai ez mediku, ez botikario eta ez albaiterotako. Orregaitik, 1784'an

Mediku Elkarteak pleita ematen dio Jabier Lizasoin'goari arakin baten semea izanik, mediku ikasten ari zalakoz.

Aize-errotaen arrastoak badira; alaz ere, emengo errotak erreka baztarretan zeuden eta urakin ibiltzen ziran. Erreka oien neurria artzeko errotak eta olak erabiltzen ziran neurri bezela. Ala adio idazti batek: "Mendaro'n ura dago naikoa, Kilimon errekan, bi ola eta bi errota erabiltzeko..."

Erri bakoitzak bere ondasunak zitun. Oien artean aberatsenetakoak, errotak. Auek izaten ziran maiz Erregeek erri-billeri ematen zizkien doaiak: "dono molendinos". Baiña, batzuetan Erregeen idaztiak beste erantsi au ekarri oi zuten: iriña geure errotetan eio bear da eta ogia geure labeetan erre. Beste era batekoa da Erregeak Donostiari egiten dion doa: "dono molendinos liberos", bearkizunik gabeko errotak, alegia. (Donostiako Fueroa I,6).

Lazkano'n, 1644'an erregearen errotara ez baiño Arramendi'ko alargunaren Yribe'ko errotara joango dira beuren gogoz "eta betirako". Baiña, 1761,go urtean, Irailla 30, Imaz-berriko etxeoandreak bere alaba Josefa, Ataun'go plazan zegoen errotara bialduko du garia eiotera...

Nafarroan, Fueroen aizkenetan, gari-merkatua librea zan erreinoaren barruan. Prezioa, Iruña eta Estella'n egiten zuna, bear zuan izan beste errientzako ere.

Gipuzkoan, berriz, Tolosa'ko azokan egiten zuan neurria, danentzako.

Baiona'ko portuaren ateak irikita zeuden kanpotik zetorren garirako; baiña, beñi barruan garia, atea itxitzen ziran, beurentzako bear zutelako. Baionak, errotak zitun bira guztian, arri-esietatik at (murrailletatik kanpo). Bakoitzak bere errotan eiotzen zuan garia.

"Errotari ondamendia dakarkiona... il bedi "dio Bizkaiko Fueroak (Tit. 34, L.19).

Garai bateko burniola eta iriñ-errota gerora tabako-errota biurtuko dira. Tabakoa negozio ederra izan zan une batean; denbora gutxirako, baiña. Nola gertatu zan? Bizkai eta Gipuzkoan tabakoa libre zegoen; Kastillan, berriz, katigu. Lapurdi osoan, batez ere Baiona eta Doniane Loitzun inguruan, tabako-ola asko zegoen. Giputxek Lapurdin erositako tabakoa, kontrabandoz Kastillan sartu. 1687'an Bizkaiko Korrejidoreak egindako azterketa baten bitartez ona zer dakigun: ola eta errota asko tabako-ola biurtu zirala.

ELTZEGILLE-BUZTINLARI

Loi-ola edo buztin-ola da eltzegilleen ola. Eltzegilleari "ollero" ere esan oi zaio gure artean. Olleroak, ieltzeroak eta eulsak erri txikienetan ere izaten ziran: Bilbao, Amorebieta, Durango, Munguia, Orduña, Abadiano, Apatamonasterio, Elosua, Amezaga, Salbatierra, Narbaja, Galarreta, Ullibarri de Olleros, eta Barazar bidean dago "Ollerías" izenako erria. Geuk ezagutu genduan gure aurtzaroen Lazkano'ko errian "olleroa". Tafalla'ko loi-ola gaurdaiño eldu zaigu.

Loi-ola bakoitzean langille batzuek izan oi ziran. Euskalerrri osoan alkar jota, mordoixka bat egiten zuten. Ez gutxi.

Lanerako bear zuten buztiña edonun arkitzen zan. Azalean arkitu ere. Alaz ere, Durangon badaude bost metroko zuloak. Lanerako, oiñakin erabiltzen zan "erroberie" edo tomoa.

Loi-ola bakoitzak zuan bere labea. Errekiñ onena otea zan. Merkeena ere bai. Zenbait tokietan, ego aldean batez ere, olibo-adarrak, mats-aienak, erromeroa eta abar: lekuan lekukoa. "Oteeri su ematen diona... sei urte erritik kanpora". (Gipuzkoako Fueroa: T.38,C.6). Labe-aldi bakoitza 20 ordukoa izan oi zan gutxi gorabera. Batzuen oitura zan erre-aldi bakoitza amaitzean "festa-bazkari" bat egitea. Ontzien salmenta eurak egiten zuten, erriz-erri, mando-gurdietan. Ala-moduzkoak ugari ikusi oi ditugu udaran Kastillatik etorritako eltez eta botijoz betetako mandoak.

Buztin-lurrak errienak ziran eta buztña ateratzearren ez zan ezer ordaindu bear iñori. (Lumbier) (Enciclopedia del País Vasco).

ARRANTZALE

Arkaitz zuloetan bizi zanetik asi zan euskalduna arrantzan. Arpoiak, arrantzarako tresnak, leizeetan agertzen zaizkigu; bai arrai-ezurak ere. Altxerri kobako ormeetan xixilkatu eta marraztun agertzen dira zenbait animalien irudiak. Euren artean izoki bat, urraburu bat eta bi arrondo-latz, araiñen artetik. Leize-atarietan, berriz, molusko-azalak daude ugari; ostrarenak, batez ere. Esnea egurrezko kaituetan egosteko, arri borobillak sutan berotu eta esnetan sartu. (Ba da amar milla urte ori euskaldunek egiten zutela). Orixe berbera egin oi zuten marraskillo edo itxas-karakolen aragia jan aal izateko.

Arrantza erreka, ibai eta kostaldean egiñ oi zuten. Geroago, berriz itxasoko gertuetako kaletan. Azkenik, itxaso aundietan. Gure Erria, batez ere, mendiko aragitik bizi zan; baiña, apurka-apurka itsas-ontziak sortu ziran; baita ugaritu ere. Gure Fueroak esango digu Baiona'tik asi eta Matxitxakoraiño, baztar guztietan zeudela barkugintzarako olak.

Dudarik gabe, bale-arrantza izan zan gure Erriaren aberastasunik oparoenetako bat. Ondarrabi, Pasaia, Donosti, Getari, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo, Doniane Loitzun, Ziburu, Miarritze eta Baionak badute arrantza onen berri. Baiaeren ondoren joanda arkitu zituzten Ifar-aldeko itxasoak eta lurrak, Terranoba, Kanada, Groenlandia eta abar. Eta, bertan, bakaillaua itxaso-eztali. Joan de Espilla debarraren garaian, (1556) amar millatik ogei millara gizonezko irten oi zuten Terranobako arrantzara 200 barkuetan. Egun bakar batean (1625-Urrillak 15), Terranobako arrantza berutz asita zegoalarik, Pasaiaiko portuan 41 ontzi zeuden 295 txalupa eta 1475 gizaseme barruan zituztela. ("Euskalerrria eta Arrantza").

1670'an, onela dio gure Terranobako arrantzaleeri buruz Nicolas Denys jaunak: "Euskaldunak itxasoratzen diranean errantzarako, datorrena datorrela, lanari utsiko diote, eta euriagatik besteak arrantza uzten dutenean, euskaldunek ez. Era orretara, besteak txalupa-erdi bat betetzerako, auek osoa betetzea dute. Gero, sorgiñak dirala esango dute euragatik; baiña, bekaizkeria eta inbiria besterik ez da."

Doniane Loitzun eta Ziburuk 80 barku eta 3.000 gizon zituzten bien arteko kaiean. "Atxotar" sendia bada kai oietan. Urteetan zear famili orren lana auxe izan da: denboralak eraginda gaizki zebiltzen arrantzaleeri laguntzea. Pireneetako Pake-garaian (1659) 12.000 milla biztanle zitun Doniane Loitzunek eta euskaldun kostaldeko porturik aundiena zan.

1636'go Urrillaren 24'an, Terranobatik zetozten bale-koipez betetako 14 ontzi, Doniane eta Sokoan sartuta, bertatik arrapatu zituzten egoaldeko euskaldunek. Franzisko Irarrazabal zan buruzagi eta giputx-mordo ederra tartean. Beste 40 pinaza ere bai, eun txalupa barruan zituztela.

1691'an Frantzirako muga itxita dago. Iruña protesta bizian da Erregearen ordekoaren aurrean, arraiñ fresko guzia Baiona eta Doniane Loitzunetik ekartzen bait zan urira. Ordez, Donostiatik ekarri eziñ.

Utrech'eko Itunaren (1713) ondoren frantziak Akadia, Kanada eta Terranoba galtzen ditu inglesen probetxuan. Orrek kalteak ekarri zizkien Lapurdiko arrantzaleeri eta sardiñatan asi bear. Arrantza, beruntz.

XVI eunkiaren aizken alderako arraiñak eta oraingoak berdiñak ziran: "Errekeetan barbuak, amorraiñak, aingirak, izokiak (salmón)...(¿falta algo en el original?)... neguan legatza eta itxas-aingira geiago... mero batzuek...

Arrantza egiteko tertzak, sareak, amuak erabilli oi dira. Pinaza edo barku bakoitzean amar edo amabi gizon dijoaz; txalupetan, berriz, kostatik gertu ibiltzeko, iru, lau edo bost gizon: "arrantzale bakoitzak darama bere jatekoa; ala ez danean, patroiandik jaten du, gero alojeratik ordaintzeko."

Arraiña Euskalerriko baztar guzietara zabalduko da. Olite'ko erregeen jauregira arraiñak Iruñatik Gallart jaunak eraman oi ditu. 1412'an, Gabon egunean, sei dozena-sardiña, amorrai batzuek eta irurogeita lau bixigu eraman zitun...

Aro-Erdian, Bidasoako erriek izokiaren petxa ordaintzen zuten. Zuberoako bail-larakoak erditzeko zeuden amar bei eta bederatzi izoki. Urdax'eko Monasterioak Leire'koari bi izoki aundi eskeintzen dizkio lagunarteko seiñale bezela.

Izokiaren prezioa, zillar-erreal bat librako, izan oi zan: egun bateko ostatuaren prezioa.

Donostia'ko Kofradiak arraiñetik atera oi zuan, Gazteluaren ondoan ipintzen zuten argia ordaintzeko. Porturako bidean erakusteko jarri oi zan argi ori.

Oiartzun'go Araudiak dionez, edozeiñek jarri leioke prezioa arraiñari.

Arrinda, Anes eta Donato





SAGUÑO

Ua arkaitzaren yaso! Izafak ikuttu beaf zittuela!! Luñaldeak ere izena tximen. **Goiz Eskualde!** Txit edefki aukeratu! Iñongo azkafenak, aitz aundi-zakafarentzat, ez ekaitz zirimoltsuenak, aitz aundiarentzat, ipaf pirulirulariaren maiteketak bezelaxe ziran. Arkaitzaren azpian zidoñ eta zulo, bizitokirik edef eta apaiñenak egiñak zituzten. Barnera zindezkelarik, an ikusiko iñongo aretorik zabalenak: baratzak eta zumafdi bikañiak. Txokorrik aukeratzuenak, xaguen atxekanderearen bizitoki ziran.

Uda'egun goiz batez, etxakandere panpoxak umiak egin zittuen. Aiek bai ikus-tekoak! Amaika ordotx ttiki eta ardi milintxoak. Azkebeko au, ua izakiaren maitagafia! Urdin eta ori. Gofi eta muskef. Zer margoko zan ez baitziteken esan. Baiñan egiaz politta!

Eta eguzkialde ontan oi danez, adiskideak eta auzotafak sail izugafietan zetozen amabi iaiobefiak ikustera. Etxekandere amarentzat ere bazekazkiten esku-erakutsiak. Alakoak ugolo ale txuri-txuriak. Beste auzo artakoak, gari-aleak. Indartsuago norbaitek intxaur-ale edefa. Lotsagabego ziranek, nonbaitetik ostuta urdeki goxoa, alegia azpixuñek zekazkiotten.

Aldi artan, zorionak ez noski mugarik. Yai. Poz. Etengabeko yauzi-mauziak. Ofitz. Eta, al dakit bestelko zer ikuskizun eta kirol!!

• • •

Ikuskizun zalapartatsuak ioan ziran. Negutxoa ere oskarbittu zan. Ostoberri-tzez, izadia soñeko apain-apañez yantzi zalarik, saguño ttikiari ere bere burua edeftzeko gogoa softu zitzaion.

Amak, ordea, esaten:

—Zertarako dittun zañpatxo eta oial ñabafak? Ezertxo gabe ere, apaingafirik edefena eofi aiz!

Saguñok, iardetsi:

Ez al dira, ordea, izadi osokoak muskil befiz ezetu eta edeftzen? Neguan or izan degu atariko pagoa zotz, gurean ikusi oi diran aguretxo zaafen isats muñitza baiño itsusiago.

—Ago isilik!!

—Mintzul egonda zer auferatuko? Eta, orain, adafetan softu zaizkion osto biguñak? Ezkongai mazal baten belafitako edefak dirudite!!

—Baiñan, irekin ezkonduko danak, altsua beafko din izan! Zer uste den? Orko suduf-iario batentzat aizela?

Ontan, beraz, saguño isildu zan!! Amaren itzak ere alakoxe poza eman bai-zioten!! Aren billa zetoñkena, iñongo altsuena beafko zuela izan.

• • •

Beraz, auzi korapillotsua zuten. Arkaitzaren tontofa baño gorago ipiñi zioten etxekandereak bere asmo eta gogo. Zer edo nor ziteken indaftsu, adoretzu, bikain, olerkari, abeslari, aufeskulari??

—Iñondik ere, mosiña azkar eta maltzur degu. Ori bezelakorik non?

—Bai zera, azka!! Zuek gaztetxook zer dakizute?

—Ezetz? Moxiña ezerk ez duela belduftzen? Bai beldufgafi ere!! Ua agertzen dalarik, emen guztiek beldufez daldal!!

—Gerok aul ez ba'giña, aren belduf izanenik, ez genduke.

—Ortara...

—Egiaz, gizona da almen ikagañiko! Izugafi burutsu! Azkafetan argiena eta bizkofena! Ofek, izadiya ere eskuetaratu du!!

—Ez!

—Ez al diñe arkaitz onen azpitik ere, bi adardun ibiltokia asmatu? Astorik bel-tzena, of etoftzen den puzka.

—Bai! Bai!! Bañan oriek oso uts dittun!!

—Ik bai esan!

—Bai ta izan ere! Beren artean elkañ-iltzen asiko ez ba'lira, orduantxe ittuna-ken gizonak entzingafi eta oso aundi. Azka eta askotarako!!

• • •

Of ba!! Ezin ziran erabaki! Ala ere, zaaf-zañ aietako batek esn zien eguzkia zala, aundieta aundi eta bikain. Ua etzuela iñork garaitu eta azpiratu izan. Iñola ere ezin!!

Ofela, ezkongai beriaren amak, zaafen aolkua oso pozik aftu zuen:

—Alaxe da! Aundia eta maitagafia eguzkia bakafik!!

—Ortaz, amatxo!! Aren etxera ioan beaf dedala...

—Bai! Nere eder eta kuttuntxo!! Guk, ala esan oi diñagu: besteren etxera ioan! Ori den, izan ere, eme batentzat, ezkontzea. Amaren besapetik irten. Badakin!! Ua iaiotetxetik irteten danean, auzo auek oro edeftasun afigafiz apaintzen dittu eta zaizkin. Ez belduf izan! Etxe artako izate befian, ongi izan aiz!

• • •

Erabaki bezela, biaramonean, goiz-goiz yaikita, ama-alabak afkaintzpetik irten ziran. Uaxe bai egunaren beroa! Eguzki kiskalgafia bazteñ guztiak ere beaf zittuela!

Saguño, bidetxiur ezkefeko sasira baztañtzen asi zan, itzal tiki arkittuko zuela-koan. Bitartean xagu-amak nare itxoin zuen, eguzkia beeratu arte.

Auferatu zan, eta,

—Eguzki laun Altsu! Esketxoa det!

—Zer nai zenduke? Uskeriren bat, noski.

—Itza aterea det. Alabatxo au, izan ditteken azkafenari emango diodala emaztetzat. Eta, zu bezelakorik non? Beste bat iñon ez! Txit maitagafia zera!

—Etxekandera! Zure eskaintzak nere biotza asko alaitzen du.

—Zer dion? Isilik al ago? Saguño polittak, itzik ere ez aterazen.

Ta, eguzki edefak:

—Etxekandere! Eguzki aaltsu naizela ere, aaltsuana ez naiz.

—Nola liteke ori?

—Ikusten of goien lañoak. Bai uxtu arifnean datozela ... Oriek bai aaltsu eta kementsu... Ez al zera oaftu, oriek datozenean ezkutatu egiten naizenik.

• • •

Ain zuzen ere, laño beltz-beltza agertu zan. Alderdi aiek guztiak esan liteken baño aguruago illun eta beltz gertatu zan. Alakorik!! Zelaiko belafa otzak dardaraz asi zan. Bi xaguen nafutxo leuna ere-lañoaren ezoz busti. Bi miliñak ikaraz asi ziran. Bañan, ama ezin-etsiaren izugafizko setako bait-zan, eziñetik indaf befiak ateratzen asi zan:

—Laño laun!! Eguzkiak txit azkafa zerala esan digu! Egia al da? Alabatxo au emen dakaft, indaftsuenarentzat ezkongai. Bayetz esanez erantzuidazu!

—Zuetako batzu bezain gezufti ba'nintz, alaxe egingo nuke. Gero, ordea, ziria saftu dizuedala oaftu zindezketenean, nere etsai zinduzketet. Nik ez det etsairik nai. Ez! Ez! Eta, ez!!

—Benetan, ari al zazkigu?

—Indaftsuenta, aize dezute. Aren eraso zakaña izu aundiko. Ofek neri egiñ'erazten dizkidanak!! Nai dun guztian, eskuzatafik kaxkafena ba-nitz bezela narabil. Ostoak luñera! Autsa eguzkitara eguratsa baño gorago! Itsasoko uifiak, befiz, afkazitik goituena baño goorago iasotzen dittu. Ez. Ni ez naiz ezer. Aizearen ziba kaxkafa besterik ez.

Orduan, xagu-ama aspeftua, aizearengana urbildu zan.

—Nagusi!! Afatsalde on!

—Ire tegietan ez al den oe biguñik.

—Maitagafitxo oni, zenargaia aukittu nai diot.

—Bait! Bait! Aufera!!

—Zu berebiziko zinduzke. Ain zera aaltsu! Kidekorik gabel!!

—Zuek, gaixook, zulo oftatik ezin dezute ezer ikusi.

—Ifiz asi al zazkit?

—Egiaz natof. Ni ez naiz altsu, ez indaftsu.

—Txuliaketan asi zera.

—Zere etxe gañeko afkaitza, orixe dezute indaftsu.

• • •

Ainbeste ezezkoz, xagu-ama iya etsi gaiztoak efe zuen. Uaxe bai zala lana! Beraz, afkaitzari esan zion:

—Afatsalde on!! Ementxe natof.

—Esku-utsik ala?

—Ez al dakizu? Guk, xagu kaxkaf-xumeak ezer ez degu! Zu indartsu eta gogof omen zaitugu. Aizeak esan dit. Alabatxo onentzat aukerako ezkongai zu zaitudala.

—Ail, zu, gaixo!! Uste usteletan igari zabilta.

—Sinistea zail zait.

—Indaftsu eta almen aundiko eta lotsagabe zerok zerate. Eguzkiak gezuña esan zizun. Arenean izana zaitudala ba-dakit. Lañoak orobat. Beste ainbeste aizeak!! Neri bulafa zulatu ondoren, egoitza egoikia ez al dezute an aukeratu?

• • •

—Ofela, lotsagofiz ama-alabak, utzi zituzten zuloetara itzuli ziran.

Egun osoa ezer ian gabe, aulduxe ere gertatzen ziran.

Elkafi itz-erditxo bat esateko adorerik gabe, apaldu eta azkartxo lotara! Biaramunean, batzafa izan zuten. Xaguen etxekandereak esan:


—Gure ibillietatik auxe ikasi degu: gerok aiñekorik iñor ez dala. Of nonbaiteko efi bizkoñean esan auxe dute: "Eskontzekotan, ire atarikoarekin "ezkon adi!!"

Eta, orain auxe nere aolku zuuña:

Emen genukeen xagu-mutilik mazalenerentzat diteke nere alabatxo au. Nai al den? —Bai! Bai! Zu ere nere amatxo, auzokoarekin ezkondu ziñan, noski.

Esan eta egin.
Aspaldian, oñelako zerbaiten zai an zegon xagu gazte begi-urdiña.
Eztaiak laistef'izan zituzten.
Auzokideek, opari eta esku-erakutsiak, oi zutenez zekazkiten.
Nai aña ume egin zituzten.
Ondoren, bizi ere, oso zoriontsu bizi.

Formosa:
Etxeberri S.J.



YAKINTZA

EUSKERA DALA-TA

lñoiz esan zan izkuntzak, gizasemeak lez, jaio, bizi ta il egiten dirala. Egia ete da osoz? Kokolokeri geiegi ez ete dabez sarri idazleak ariltzen? Eta eritxi biurri orreik ez ete doguz irusten? Izkuntzak, gizonak lez ilten dirala... Ez. Izkuntzak dirau bizirik, izkuntza ori aotan darabilen gizon-emakumak bizi diran bitartean; eun urtez naiz gizaldiz, euskeraren antzera. Izkerak darabilenak dira sua ta bizitasuna damotsenak; orreik uts-emon ezkerok, orduan doaz illobira izkuntzak.

Egia dozu au be: geure zabarkeriz, solo bat lez lantzen ez dogulako, ilteko zorian aurkitu leiteke izkuntza bat: izkuntzak, erriak legez, ezereztu leikezanak bait dira; munduan ba-dira olako izkuntzak, leen ziranak eta gaur ez diranak, mintzatzen ez diranak, iturri bat antzo agortu jakuzanak. Au, barriz, norbere itxikeriz edo-ta auzo-izkuntzak jarri daben adorez jausiak. Ezagutzen doguz, baita, jausiak baiña osterak be, agortu zan iturria lez, jarri jakon arnas barriari esker, olakoa dogu gaurko eberkera, ezkutuzko kemenez berbiztu ta sortu jakezan eragozpenak burutu dabezanak.

Gure erria izatez ta etniaz dogu erri, ez kulturaz bakarrik; ba-dau beste zerbait be, izadiak emona. Erri gara, nortasun ikaragarri jantzia, gizaldi askoz aberats; ez bear bada istori aundiz, baiña bai ziurki egiazko nortasunez kuin-kuin dagozan gizaseme erne ta artistaz dizditsu. Euskal lur gizaseme bikaiñez jori ta eder: or gure abizen eta deituren zerrenda luzea. Iparragirre'ren nai bizia mamín egiña, "eman da zabal zazu munduan frutua".

Eta izkuntza, gure euskera, geure berezitasun ederrena, egia esateko, euskal-dunok zabar samar daukagu, zaindu ta landu bagarik. Mendi ta troka -arte kokatua, errialde indartsu biren artean estu mendeetan, errazaz ta izkuntzaz garbi ezin jagona nunbait, etsai eskergaz inguratua, ez da arrigarri bere bizitza aulmekoa. Orrez gaiñ gogora geure alkar artzea, beti urri izana. Onak alanbearrez sumindu oi dau erria.

Kultura maillan, asko diran arren euskal lurak emondako gogo-langille trebeak -argin, itxastar, soiñulari, jakitun, bertsolari, eleiz-gizon, Europa'n eta Amerika'n konta-ezin ala - azken urteotaraiño izan be, ez gara izan baiña aintzat artuak bear bestean. Itxas-zabal ur-tanta nunbait, ez gara nabarmendu egundo be inguruko izkuntzak eta kulturak beste. Erri txikia gara, barriro diñot, ta izkuntza arloan, inguruka daukaguzan latifñetiko izkeren aldean, euskera, aberatsa bai, eta bitxia baiña ez erreza aditzez eta lexikoz.

Istorian zear, gu erri ñimiñoa eta, albo bietakoak errez iruntsitakoa, aokada erreza arentzako zein onentzako, odola ta elea geure ezaugarririk bikaiñenak ditugula. Euzkadi'ko edestian egungo be ez dogu izan bear besteko erosotasunik, momentu batzuetan baiño, euskal gauzak euskeraz adierazo al izateko. Erderaz ta latifñez zan guztia. Or lekuko Gernika'ko batzarretako goraberrak, or ainbat larri ta kezka euskaldun baserritarrentzat. Errepublikak garaietan idatzi ziran Udal batzuetan euskerazko agiriak, andik eta emendiko eragozpen ugari azpiratuz. Eleizeak be jarri zituan bere untze ta giltzak, baiña Eleizea ta eliz-gizonak izan dira gaur-arte gure izkuntza geien zaindu ta jagon dabenak.

Gaur bertan nik irakurria: "Lau dira literaturari dagokionez euskalki garrantzi-suenak: gipuzkoera, bizkaiera, laburdiera ta Zubero'koa. Bakoitza bere nortasun sendoagaz. Izkuntzaren batasuna, ordea, derrigorrezkoa da euskeraren iraupena nai ba dogu, eta euskeraren irakurketa ta idazketa erreztu nai ba dogu".

Eta ogei urte doi-doi dira orretan alegiñak erreten dirala. Lortu ete da zerbait? Bai, egia, alde batetik epe onetan zerbait aurreratu da, umeen artean eskola ta ikastoletan gaur naikoa ikasi, itz-egin eta idazten da; au uka eziña dogu. Danok dakiguna, alan be, ordukoak batez be, euskera polito polito aurretik be batasunerako bidez urrats egiala, bat bere indarkeri barik, gozo-gozo, igarri barik, bai irakurteko gogoia edegiz eta bai idazteko neurria zainduz.

Au da batu-zaleen antsi-kakara: "batua" sortu arte ez egoala euskeraz irakurterik ez idazterik. Ez bota zozokeririk. Orditik ona bai ete? Euskaldun barri batzuk asmatua da atxaki ori. Gerra aurretik eta ostean, naiz Gipuzkoa'n naiz Bizkaian, eta bardin mugaz andik be, idazten zana, geienik beintzat, euskera gozo jatorrean, nork ez eban irakurri ta ulertzen? Ortografi-auzian, danok batera genbiltzala, atxe agertu jakunetik, zenbat buru-auste irakurteko. Eleizan bertan be, olan datozen paperak gitxik irakurten ditu ganoraz, sasi-euskeraz eta atxez josita datozeleko.

Atsegin jaku au adieraztea. Eleiz-gizonak liburu bi daukaguz oso ederrak, Bizkaia'n beintzat, batamezako gareanok, salmuen bitartez otoitz egiteko darabilgun "Orduan Liturgia", naiz-ta gipuzkeraz ederto egiña, giputz-izkelgian egonarren, iñork ez dau Bizkaia'n ezer eta iñork gaitzetsi gabea; eleizarako "Irukargaiak" bestea, oraintsu argitara emona. Urrezko liburu bi geure izkuntzan otoitz egiteko, eta bidenabar, leun-leun euskeraz ikasteko. Joskera bikaiñean dagoz-eta, josketan lez jabetzen zara egiazko euskeraz. Or ez daukazu oztoporik, ez erdel-itzik. Ez esan ez idatzi geiagoko benetako euskereak irakurteko naiz idazteko koskarik beregan dauanik.

Literatura dozu tresnarik onena erri bat jasotzeko. Eta euskal literatura, garai artakoak ba-dakigu, prosaz naiz olerkiz, goi-maillara eldu ez bai eldu ebillena, gerora berrogetamar urte igaro diranarren, ordukoen maillara igon eziñik daukaguna. Orduan be goi ebiltzan idazleak dira gerora be iñork azpiratu ez dabezanak. Onetaz zerrenda luzea arildu geinke. Orduan idatzi egiten zan, gaur osterak kemen guztiak ikerketara jotzen. Eta izkuntza batek zein dau iraun dagian premiñazkoen ikerketa zabala ala liburu sail eskerga? Bigarrenari nagokio ni. Literatura edatu, errez, gozo, zartatsu ta miresgarriak bizkortu oi ditu irakurleak.

Oni nagokiola ain zuzen, aspaldi nik idatzitako lantxo baten billa nenbillela, ainbat olako lan irakurri dot, "Karmengo Argia", "Jaungoiko-Zale", "Euzkadi", "Jesus'en Biotzaren Deya", "Yakintza", oraintsuagoko "Zeruko Argia", "Jakin" eta besteak... Bai alde orduko euskeratik gaurkora! Orduko lanak, asko, irakurri ditut, irakurtearren soilki, eta gaurkotik gitxi baiño ez dodaz irakurten. Gaurko geienak euskera gogor, pipermin gitxiko bait dozuz. Ia, mutillak!, goazen idazle zaarretara! Duda-izpirik bage, nik uste, gerra aurretikoak eta oste urrekoak doguz euskal idazlerik jatorrenak, azken boladan be onak ezagutzen doguzan arren.

Gaur esaten dan beste zerbait: "Izkuntza bat da euskera". Esatea be! Orretan ez dogu iñoiz dudarik izan. Eta Arana-Goiri ezker, ortografi bat, jakiña, Eta nok ipiñi ditu bi, "batuak" ezik? Beti bat erabili da aspalditik, oraintxu arte. Eta emen bai naspilla batzar batzuen ostean! Arana-Goiri'ren idazkeraren aurka, egiazki. Gazte jakintsu arena baiño askoz nastuagoa, diñoenez. Zer irabazi dogu? Mugaz andikoakaz bat egin bear ei genduan; eta areik ez dabe artu oraindik, banaka batzuk ezik, "batu" ortografi ori, atxez batea. Zertan gara? Mende erdi lez atzera jo dogula. Iraultza nai zan Baiona'ko billeran.

Zer dakar onek? Alkarganatu bearrean bata besteagandik urrintzea. Itz batzuk gaur, a organikoa adibidez, egoki erabilten ei a, da **egia** egi orde, eta **egi-zale**

esan oi da izkelgi guztietan; artikulua mugagabea bardin, ondo erabili bear ei da, eta lengoak ziran olako kene-min barik ondo erabilten ebenak. Bai, egia dozu, olako jatortasunak ikasi ta jagon bear ditu idazleak; eta ziur asko benetako euskal idazleak, eurok ondo erabilteko, ez dauko ifñok esan bearririk; ez dau bear isti-llurik, agin-karrazkarik ez zer-esanik.

Ezpai barik, euskera izkuntza bakarra dogu, latiña, griegoa ta gaztelania bai-zen bakarra, edo ba'leiteke bakarragoa, sustarretara jo ezkerero; naiz-ta orain, "batuari" buruz, ainbeste pellokeri, miñez eta idatziz, esaten jardun. Ogei bat urte dira mataza ortaratu giñala, gaur-egun be gai bardiñaz ainbat gauza bitxi idatzi ta zabalazi. Norbaitzuren jokabidea orixe danik ezin daikegu uka, eta ixildu barik or eta emen edatzen dabe goitik beera burututako garatz ori. Onela diño: "Ago ixillik, euskal-batasuna egiña da-ta". Onezkero batu-zaleak bebiltz "bare-bare" ur urdiñetan igeri.

Aurkakoak makur begie burua; onezkero kezka barik eskola ta ikastoletan batua, irratian, telebistan eta prentsan batua, idatzi ta liburuetan batua. Eta ifñok olan idatzi naiz ez ba'dau, bebil aizetan, ez jako argitaratuko lanik; naiz-ta txu-kun, ederto osotua, otzarara, ez bait dau balio gaur-egunerako. Beste aldetik badira kexa ugari Jaurlaritzako Izkuntz-Kontseilurako bizkaitar bat besterik -gipuzkoarrak be ba ei dakie bizkaieraz- aukeratu ez dabelako. Bada or azpitik garbi-garbi ez dan zerbait.

Olanxe il edo bizirik lurperatuko ei da bizkaiera, baturako engara ta atzerabi-de ez txikia dana. Gu, bizkaitarrok ba'leiteke illunpetan bizi izatea. Guk diñogu % 40 batek euskeraz egiten dogula, eta eurak dirauskue ezetz, % 20'ra eltzeke be zeorzer falta jakula. Orrenbeste ei gara biztanlego osoan euskeraz egiten dogu-nak. "Hitzegitez gutxiago, agian, hainbat arrazoi direla medio". Beraz, bizkaitar idazleok —ni neu ez naz egundo joko orretan sartu— ez daigun ez dan gauzarik esan, guzurretan ibiltea beti bait da pekatu.

Dana dala, ez dago bape ondo gaur darabilgun edo darabilen azpi-joko triste ta zitala. Zergaitik olan? Ez dabe ezertarako be bizkaieraz ezer argitara emon gura, ez prentsan eta ez komukabideetan. Itz-egikeran be, goi-maillan dagozan batzuk —Ardantza, Pradera ta abar— Bizkaia'n bizkaieraz egiñik be, or beerago-tik koipetan dabilzan beste askok diño, "bebiltz, bebiltz!, geuk konponduko dogu arraiña!, ta orrelaxe egin dagie.

Bai, dana batuan! Eta ortik sortu oi da gero batuarekiko iguin bizia, ezer ez irakurtea, euskera erabili orde, erderara jotea; telebistan oartu naz ifñoiz euske-razkoa itzali ta erderazkao jarten. Iru edo lau dira Euzkadi osoan jokabide orren nagusitza daroenak; agintarien esanak sarri irauli ta nasten dabezanak. Eta eus-kaldunak ba-dakie nortzuk diran.

Onaik gauzok onela ikusiz, noiz ilgo daukagun euskera betiko galdu ez daki-gun, ez ete dogu ganorazko alkar-aitze egoki bat osotuko? Danok diñoguna berau, baiña, lotsagarria!, ez gara gauza bear-bearrezko dala diñogun ori egi biurtzeko.

AITA ONAINDIA



KINTANA'REN ARRAZOIAK ETA EUSKERA

“Algerian ere euskaraz” idazpurupean arrazoi mardulak azaldu zituan Kintana jaunak GAUR egunkari berrian Jorraillaren 12'an. Argi ta garbi aitortzen diot, bai, arrazoi osoa duala, euskerarekiko arreta jatorrik eza salatzen eta egozten dienean euskal-politikariei. Kintana'k aiñako egiñaal sendoak egiñik bear zituzten, euskeraz ongi ikasteko, baiña toki onean daude! Egunen batean ikasiko ba'lute...

Homero trebeak ere iñoiz bai omen ditu uts eta akatsak... Kintana'k ere ez ditu esaldi guztiak euskerazko erarik egokienean idatzi. Asko ikasi duan eta asko dakian arren —eta maisu datorkigularik ere— uts eta akats batzuk aurkitu dizkiot. Ortografiaren azaleko zeaztasunei baiño areago, jatorrizko euskeraren senari begiratuta ikusiak dira.

1) “Pakea orain eta betirako” ongi ez dagoalakoan, “orain eta **BETIKO**” bear omen du. Ez nator bat Kintana'rekin. “Betiko” itza era askotara erabilli izan dugula, ezin ukatu.

Ba-dira “betiko” izan diran gauzak, “betiko oiturak” adibidez, baiña betirako ez diranak. Alderantziz, gu ez gera “betiko”, ez gera “betikoak”, ez bai-gera betidnikoak, baiña itxaro dugu “betirako” gerala. Orrela, bada, “betik pakea (beti izan dugun pakea), betirako nai dugu”, ederki esana dago, leena ta geroa bereiziz.

2) “Baina euskarazko itzulpena, zorte on edo txarraz azken orduan, **pre-saka eta maiz gaizki moldatua**”.

Zeazkiago, garbiago ta egokiago legoke onela:... “**Euskeralpena, zorionez ALA txarrez azken-orduan**...

3) Eta dalako itzulpen edo euskeralpen ori... “**argitaratzen zaigu**”, idatzi du Kintana'k. Norbaitek argitaratzen DU, DIGU, DIGUTE... Ez da berez argitaratzen txori goizean bezala. Gazteleraz bai, “**se nos publica**”, baiña euskeraz “**argitaratzen digu... digute**...”

4) “**Euskalduna, Euskal-Herriko zerga-ordaintzaila eta Euskaltzaindiaren kidea naizen aldetik**...” Jakiña danez, Kintana bera bakarrik ez da orrelakoa, beste geiago ere bai. Beraz, askoz egoiago da onela idaztea: “**Euskaldun, zerga-ordaintzaille, Euskaltzaindiaren kide NAIZENEZ**...”

5) ...“**geure etxean errespetu handiago merezi dugu**”. Euskal-senaren argira, onela idatziko nuke: ...**begirune aundiagoa zor digute**”.

6) ...“**prentsara eman daitzkeen komunikatu guztiekin batera, solaskideen hizkuntza bietan argitaratuko dela sinetsi nahi dut**...” Gazteleraz “se puedan dar a la prensa... que se publicarán...” esaldiak barra-barra erabiltzen dituzte ta ditugu, baiña gaztelerazkoen kutsurik gabe, onela esango nuke: “**eman DITZAKETEN, ... argitaratuko DUTELA**.”

7) "...beroiek testu bien fideltasun, fiabardura eta adierazkidetasun osoa garantiza dezaten". Nork esan, zuzen idatzia dagoanik? Onela bear luke: "beroiek testu bien **fideltasuna**, fiabardura eta adierazkidetasun osoa... SENDOTU, BAIEZTATU, ZIURTATU DITZATEN". Gauza bat baiño geiago bai-dira ziurtatzekoak.


8) "... batzuk hain abertzale sutsuak eta besteak hain legezaleak izanez..." Onela izan bear luke, egoki izatekotan: "...abertzale sutsu eta besteak () ain legezale **IZANIK**, edo **DIRALARIK**..."


9) "...nork bere hizkuntza naziolaganako sentitzen omen dutena praktikan agertzeko?" Besteak beste, -gana, -ganako atzizkiak, ezaguerandun izakiarentzat egokiago diranez, "**hizkuntza nazionalarekiko**" idaztea eskatzen du euskal-senak.

10) "...adibide batek mila hitzek baino gehiago balio izaten du". "Adibide" itzak, aditu-erazteko, ulertu-erazteko bidea edo bitartekoa esan nai du. Esaera zaararren mamia azaltzekoan, "**ekintza ona edo jarraibidea**" erabilli bear dugu.

Itzen idazkerako xeetasunak eta gramatikazko zeaztasunak baiño garrantzikoago dan euskal-senaren agerpen batzuk, nagusienak, argibidetu ditut besteak beste, irakaste-liburuetan nekez ikus bai-genitzake. Besterik gabe, agur.

Gaztañaga'tar Jesus'ek





“TENE”

TENE izen laburtuz ezagutzen dogun ori, Mujika-Egaña-tar Errobustene zan, 1888-5-24'an sortu zana Deba, gipuzkoar erri politean. Bere bizitzako 93 urteko nekaldi eta pozaldietan bere biotzeko euskera xamur ta kutuna landu ta jazotzen alegindu zana. Guda aurreko eta aldi garratzagoko emakume abermindu, adoretua. Euskal berbizkundearen aurrelarietako bat, euskaldun ta abertzale izateari uko egin gabe, ainbat zorigaiztoko neke eta ezbear jasan-arren beti zintzo, euskerea osasuntzen, alegindu izan zan emakume argia. Azken-aldiko urteetan ezin-dua aurkitzen zan beren bista gutxiz baiña, alan ere ez zuan guztiz baztertu beren euskal luma bioztun eta zentzuduna. 1989'an jaso nuan eskuz idatzitako eskutitza. Onela: “Barkatu, nere eziña andia da, nere begi lausoek oso gutxi ikusten dute ta, ezin nai bestean ezer idatzi. Bestetik, erorita alboan min-arturik egunik geiena oetik jeiki gabe egon bearra det ba, osalariak atsedean aundira beartuta naukate. Bestetik..., larogeita amaika urte soñean! Orrillean osatuko ditut ba larogeita amabi urte. Zerbait da ezta”. Bai orixe, zerbait da!

Tene noiztik dogu idazle eta olerkari? Egiñetatik ezagutzen da gizona. Eta Tene'ren bizitza euskerearen aldeko biotzeragiñezko ekintza auspergarria gertatu zan: idazkiak, olerkiak, antzerkiak eta abar... ainbat lan eder jakingarri utzi dizkigu batez ere beren garaiko aldizkari eta egunerokoetan. Tolesgabeko emakume artez, zuzen, zindoa, bere etenik gabeko erriarenganako, euskerearenganako erakusbide maitekor eta bultzakorrez. Aren “Miren Itziar”i Idazkiak eta Olerkiak” idazia, 1923 gn. urtean argiratu zan Zornotza'n, Jaungoiko Zale'ren irarkolan. 19 idazki eta 23 olerki. Liburuaren itzaurrean dirakurgu: “Ez bertan billatzen ibilli elertiaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon baten irakatsirik, ezta ere gogo epantsuen goyargirik; ezer orrelakorik ez dezute aurkituko-ta. Bakar-bakarrrik billakatu Aberria maite-maite duan biotz baten naimen ona; bertan aurkituko dezuten guzia onexek arazia da-ta”. Ezin apalago dager “Tene'k” bere burua baiña, ba-du bai bere edertasuna, jakinduri bioztun baten sakontasuna; ba-du elerti sena eta bere aparteko zeintasuna. Irudimen biziko olerkera argi eta garbiz, oldozgai errikoi eta Jaungoikotz azaltzen zaigu. Edan gozoko iturburuaren ur gardena, sinismen beroz egokitua. Euskerea ia aintzakotzat ere artzen ez zan garaikoa, eta Arana-Goiri'ren deiarri erantzun laztan bat eman zion emakume xume, langillea. XIV garren idazkian diño: “Bizirosartu da erdelkeria emakume artean, euzkaldun errian emakumea da sustraitik jaten duan zerena; emakumea euzkereari galbideruntz geyen bultzatzen diona. Sendian beintzat, ta gure ele au gaizkatu nai ba-da emakumea da lenen bere alde ipiñi bear dan gaikia”.

Eta emakume gaiki ori zuzpertzeko asmoz idatziak dira liburutxo orretan abermiña darieten 19 idazkiok. Emakume Abertzale Batza'koa zan, emakume artean eredu. Itz-lauz bere jasa agertzen badu ez du gutxiago agertzen bere olerkietan.

“Nere biotza
lotan zegoan,
nork esnaturik
etzeukala;
bere barruko
suaren bear
Euzkadi zanik
etzekilla.

Lotan zegoan
nere biotza,
miñez zegola
Aberria...
lo zegolako
etzun nabaitzen
ain gaxoaren
min aundia...

Baiña Euzkadi'k
bai zuan baita
esna zegoan
SEME ONA:
ta, bere didar
sendo-sendoa
eldu zan zoli neregana.

Abandotarren didarrak esnatuta, abiatu zan beren idazle eta olerkari sena agertuz ederrik eta xamur eta, onela dio:

“Ordutik ona maite
det Aberria,
eta alegintzen
naiz beretzat,
Arana Goiri'k
zion nai ura
arturik neure
eredutzat.

Tene'ren abots apalak bere biotz aundia eskeñi zion aberriari eta neurtitz eder askoz ongarritu ere bai euskal parnasoaren lorategia bere tokia egiñik erraldoi diran Orixe, Lizardi, Jauregi, Zaitegi eta beste aunitzen aldamenean. Uskurtz gaiak, maitasun gaiak dira geien bat darabiltzanak. Arrantzalien Abestian ikus zein egokiro antolatzen ditun:

“Itxasuan ainbat
zabal sakon dan
maitasuna det
biotzean;
beronen jabe
egin ziñan zu
kayan lenengoz
ikustean.

Ordu ezker
maite nerea
gozoro zaitut
nik gogoan
gabaz, egunez,
garai orotan;
naiz legorrian
ta itxasoan.

Eta goizero
Neskutz Miren'i
eskatzen diot
otoi beroz,
lagun deigula
ainbat lasterren
elkar gaitezan
maitez biok”.

“Ikazkin Lilluratuarena” degu maitetasun lilluraren erakuspenezko agiri eder-eder bat ikazkiñaren izkera arruntez apalkiro eta erabat dotore antola eta eresi-tua:

“Neure txondorra utzita
iturrira nintzan,
sulla betetzen zegoan
neskatxa bat bertan;
ark eman ziran ura
jai ze gozoa zan
geroztik ain gozorik
ez det berriz edan!

Ikazkiña naizenez
ta ikazkintzan beti,
ain ume ederrik iñoiz
ez nuan ikusi;
orrela bere itxurak,
eder, zoragarri,
gentza lapurtu zion
nere biotzari.

Lagundu nion sulla
burura jasotzen,
bañan ezin ausartu
etxera laguntzen;
nayagatik lagundu,
ez dakit zer nuen
jiñola asmatu ezin
baimenik eskatzen.

Olerki ezti, biotzgarria benetan beren maite irudi eta oldozkeraz gazte aroko egunetara itzultzen gaituana onen antzerako zerbaitez... Eta, zer esan ain ospatsu egin zan "Udazken Ala" olerkiari buruz? Watson Kirkkneil jaunak bere European Elegies (Otawa, 1928) osotu zuanean ingeleraz itzuli ta, onela munduari olerki xamurrenetako bat eskeñi zion. Dazta dezagun bada emen, beren bioztasun osoan:

UDAZKEN ALA

Juan zaigu udara, juan da igesi
eramanik bere alaitasuna;
juan zaigu udara, ta juan dala
mendi ta ibarretan txit ezagun da.

Juan zaigu udara ta ixildu dira
txoritxo abeslariak,
ez dira entzuten gure mendiyen
beren abesti alayak.
A, bai itunak txori abesti gabe
baso bakar urrutiak,
bertan oyartzun egingo ez ba'leu
euzkuen poz irrintziak.

Juan zaigu udara, eta berakin
euzkidun egun luzeak,
oyekin baita juan dira ere
artzayen poz-alayak.
A, bai gogorra onentzat neguan
mendi elurrez jantzia,
bertan ez-baleuka txabola, eta
txabolan bere maitea.

"Juan zaigu udara, eta alegetu
semetxo jolas zaleak,
zelai lillitsua artu dualako
guzia zingira loyak.
Ai, bai estua abentzat sukaldea,
bai illuntze gogaikarriak,
su-ondora aitonak deitzen ezbaileu
entzutera bere ipuyak.

Amaitu dira, bai, neska-mutillen
itur-ondoko egonak,
gogorki ditu ba ortik bidaldu
euriyak edo bisutzak.
A, bai luze itunak maitalientzat
neguko gau illun baltz-baltzak
amets egitera deitzen ez'baileu
sukalde zarreko suak.

Juan zaizkigu baita udarekin
goiz argi ta aize legunak
ez dute orain, ez, ainbat, atsegin
eskeintzen mendi tontorrek.
Ai, bai orma baltz aztunak neguan
basetxe txiro txikiak,
sendi euzkoa lotuko ezbaileu
bera jayo zan mendiyak.

Juan zaigu udara, juan da igesi
eramanik bere alaitasuna;
juan zaigu udara, ta juan dala
mendi ta ibarretan txit ezagun da".

Benetako urre bitxia degu olerki eztsu, bigun, samur au, benetako biozkadadun eresia. Baiña ori, gure gaurko gizaldi eta gizartetik ain urruti, ain baztertua dagonez gaurko urrut-ikusizko irrati, gaurko etxeetako berogailu eta ainbat eroso bizitzeko makina eta tresneriz... aitonak eta amonak galdu dute ipuiñetarako gogoia eta neskak ere ez dute ur billa iturrira joan bearrik. Baiña poesia or dago, or dago lengo gure bizitza igaroaren lauki eder ori bere gozatasunezko irudipe lilluragarrian.

Ontasuna, egia, jaungoiko-zaletasuna, biotza darie Tene'ren olerki guztiei, "Amona", "Lo gozoa", "Muxua", "Leioa", "Iltegian" eta abar ikusiko degunez:

ILTEGIAN

Mendiyan barrenean
antxen landa artean
iltegi bakartxo bat
dago nere errian.
Bertan toki txiki bat
zeña obi bat dan
onen aurrian oi det
malkoa begiyan.

Maite-maiteak nitun
izaki gaxoak
antxen gordeak ditu
toki txikitxo ark.
Nola ba ez ixuri
nik bertan malkoak?
¡Ai, ez daki aizuntzen
biotz saminduak!

Baña iltegi ortan da
kurutze bat zutik,
ta kurutzean Josu
besoak zabalik;
naiz ta begiyak euki
malkoz lañoturik
maitien poza dakust
kurutze artan nik.

Baña sinismen osasungarri, sendo baten laguntza itxaropentsuz pozbideratzen ditu bere malkoak olerkariak:

Ta itxaropen gozoak
pozten dit biotza,
pozkarri azalduaz
betiko bizitza.

Orrengatikan nere
malkuen ziyua
otoi biurtu eta
donokira dua.

AMONA

Amona. Amaren ama. Bi aldiz ama. Nork ez du izan amonatxo maitagarri kutun bat. Batez ere aintziñako sendi ugarietan ain bearrezko ziran eta, gaurkoetan ere bai.

Aurtxo txikiak ez daki izketan,
bai baña amonagan agintzen,
amon xamurrak bai dakilako
aurtxoak ez dasana ulertzen;
eta ostera ez dakilako
ulertzen dionik ukatzen.

Bizi-bideko aldatz luzean
arki du ainbat elorri;
gazte sasoyan, udara-aldian,
itxaropenez orlegi;
jai! zartzaroan, negu beltzean
osto gabe, soil, mingarri;
jeta gaxoak ez du bidean
arantza baizik, euskarri!

Orregaitik ba seaska alboan
amona xamurra esertzen da;
eta maitari seaska ori
erabiltzen du "dan-ba, dan-ba" .

Txoro egifiik, amonatxuak
begitzen dio billobari;
ba aur txiki orren irriparría
du, bere neke oron sari,
bizi-bidean arkitu ditun
samin guztien aztugarri,
ta urtien otzaz dardaizkan daukan
biotz aularen berogarri.

Arantzak baña, ez du amona
mindu bakarrik egiten,
baita ere dizka negu ostean
lore txuriak eskeintzen.
Orrela baita bizi-bidean
naiz neke miñak ugari,
billoba txiki gogo-zuri bat
du, zartzaroan pozgarri.

Urrengo irakurri dezakezuten poematxo au "Nere Leyua" dezute, nerea, zurea... bai ote da leiorik ez duan etxerik eta iñor bai ote da bertatik noizbeinka begiratzen ez duanik? Eta zer dakus? Tene'k onela:

Nere gelako leyoetik
dager ortzi zati bat,
berari zor dizkat nere
oldozkun gozoenak.
Naiz euzkiz jantzita egon,
naiz odeyez izukor,
naiz illargi geltsuz edo
naiz izarrez dizdikor,
mintzo gozoz poztutzen du
nere gogo gaxua...
jeta bere mintzo eske
zabaltzen det leyua!

Tene debatarra, erabat aurrelari izan zaigu bere garaiko euskal elertiaren barrutian, emakumeetan lenengoetariko bat bere luma zintzo, errez eta bizkorrez, bai itz-lauz eta bai olerki bidez azi ona ereiten alegindu zana. Zubikarai'k onela: "Bera zan izan be, garai aretan, abertzalien artean onelako gaiak erabilten zitun lenengotako andrazkoa".

Neurriz ondo biribilduak azaltzen ditu bere poemak, gozo ta legun edo goi-jakiturizko oar ta zentzunez, bere, emakumezko argitasunez eta, ez, da "Jaungoiko guztiak ukatzen dituan emakume bat", baizik itxaropen betikorrez biziari arpegi eman dakiana ekintza zuzenez beti jator eta beti euzkotar eta euskaldun.

"BIOTZA MAITEKOR"

Une txit xamurra. Zelayan jarrita,
bakarrik nengoan; ixil biotz-bera...
ta izadiak zidan, Urtzik ala nai-ta
orduak gozoro mintzatzen gogora.

¡Arrigarria! orduan nesan:
¿Nor da ludiyan maitasun gabe?
Ez gera orok andre ta gizon,
biotz maitekor banaren jabe?

Oldozkor... oldozkor... an begiak topo
egin zuten zerbait; eta urbil nigandik,
ara... ustekabian, idatzi bat antxen
zesala "Niregan ezta maitasunik".

Onbidea maite notin jainkotiak,
eta galbidea baita txar-gaiztoak;
jakitun, ez jakin, aundi ta txikiak,
beti zerbait maite mota guzikoak.

Maitetz asetzen du, bai gazteak
biotz goriko bere egarria;
maitetz arintzen du agureak
bere epelean daman nekea.

Nor ote leike ba maitasun gabea?
txit urdurituta onla galdeturik,
begitaru nuan... jeta zan arria!
onek zesan: "Nigan ez da maitasunik"

Besterenak lez, astertu nuan
neukin damaten biotz au ere;
ta ezin dala bizi zesaidan,
aratz guzia maitetu gabe.

¡Arria!... ¡Arria!... Norbait zuan
orrela idatzi bere gañian...
¡Ai! idazkun ori (oldoztu nuan)
leike arriyan...; jez biotzean!

¡Goiko Jauna dan andi-andia!
(maitetz sutuaz oldoztu nuan)
¡Eta beretzat, biotz gurea,
zer gauza ederra egiñik duan!

Leike arrian baiña ez biotzean. Osorik irakurri nai dituanak Gogo-Negarra eta Arnoko Gurutza, A. Onaindiaren "Milla Euskal Olerki Eder" bilduman.

Baiña adierazi daigun zerbait:

Gogoa illun ta biotza miñez
Urtzi nerea, emen naukazu;
Beti alaka, beti zotiñez,
Neke gogorra zait, ba, gallendu;
Ta Zuri ezik, nik nori deitu?

eta, onela amaitzen du:
Zure atean maitasun-eske,
Jainko laztana, gaur ni naukazu.
Ez utzi, arren, iriki gabe;
Nere obenaz ez Zu oroituz;
Nik Zu bezela, ez zuk aztuz!

ARNO'KO KURUTZA olerkariak beti leiotik begiratzen aurrez-aurre daukan gallurreko kurutza:

Leiotik neretzat aurrez aurre beti
gallurrean zutik dagon kurutza...
Maitasun-legeak ludian gezinari
gure erriko mendi-tontor bakoitza.

Bera, asabagandik gogoan damagun
Jaun sinispenaren ikur maitea,
Aberri nerean elburutzat degun
goi-aberrirako zuzen bidea.

O, Arno mendian zeru-lurrean muga
ikusten zaitudan kurutz lerdena!
Gogora mintzatzen begietan dedan
ikusgarri eder eta onena!

Asabak bezala or goian zaitugu
errien gaiñetik gure jabetzat;
asabak bezela gaur bean nai degu
zure irudi deuna geinkean ainbat.

Gogoa doakit sinismen egatan
beso-zabal zauden gaillurreraño;
Ai! ludi osoa nere besoetan
eraman al ba'nu, ainbat naiago.

Baña etsaiak gaur, jaurti nai zaituzte
arki nai zaitugun toki guztietatik!
Zorixardun gerran, ba, lotuak gaude
azkatu gure Erri, oien menpetik!

Olerki oldozgarri au oso-osoa eman bear nuan irakurleak berak neurtu eta dazta dezan poema sentipentsu onen kistar gogozko aunditasuna. Baiña moztu egin bear. Arrapaladaka iges dagigun mundu, oldozkera baten aurrean arkitzen gera. Baiña olerkia emen datza bere sentipen eder eta jakingarritasunean eta emen Tene'ren biotz-ondoa. Izadia aldatuz doan bezala gizona ere aldatuz doa eta era berean munduko jakintza guztiak betiko bizi-bear geroago eta estuago-ren abiada larrian. Aldatuz gauzak, beti bide berri billa, albo batera edo bestera, baiña beti aurrera egiteko asmoz, aldatuz eta aldatuz, beti zerbaiten egarriz. Baiña Tene'ren aldiko eta Tene'beraren zintzotasuna, ederrik idatzia betirako emen datza abertzaletasunezko euskera erriko eta bizi baten gurrpilean.

“Euskera nun antxe izango dezute beti Tene argia. Maitakiro eta errekiro. Tene euskel idazle iaio-iaioa dezute. Ez da aski guk esatea. Egutegi onetan bertan dezute aren lan egoki bat eta irukirri besterik ez dezute. Baña Egutegi onetan (1936 gko. Argia'ren Egutegia) argitaltzen degun bere lanak baño izen aundiagoa damaio antzerti gaietan izan zuan garaipen aundiak. Enetxo, Muxika andereñoak lenensaria irabaz zuan igaz egindako antzerki sariketa batean. Emakume guziak eta ez emakumeak bakarrik gizonok ere baizik, Tene añean saiatu-ko ba'giña ez al da egia euskera indartuta ikusi al izango gendukela?”

Tene, bere bizitza luzean azkenegia euskeraren otsein, langille zintzoenetariko bat izan da beti. Ta, or gelditzen da bere lan argigarri, bioztuna; aberriaren eta gure izkuntzaren alde gogorik andienez opaldu, eskeñi izan dan emakume eredugarri batena. Erdi-itsu, ezindurik arkitzen zan aldiko olerki batekin amaitzera noa, gure debatar emakume olerkari maitagarriaren azken-agur bat bezala. 1970 garren urtean Karmel euskel aldizkarian agertu zana:

NEUREKIKOAK

Itzali zaizkit beti-betiko
gau ozkarbia izarrak...
Ez ditut berriz nik ikusiko
euren dizkira ederrak!

Aiendu zaizkit itxas-mugetan
ikusten nitun ontziak,
egun garbian euzki galdatan
dizt-dizt dagiten pitxiak.

Itxas-mendarte batutxo baten
ni jaio nintzan txokoa,
illundua zait bere egalunen
orlegi iraunkor gozoa.

Udaberrian ase oi nintzan
izadiaren ederrez,
oraindik dakust sarritan
oroimenaren indarrez.


Urrutirik ez; ingurua motz;
laiño artean argia...
guzia nabar begien lausoz
ene Goiko Jaun aundia!

Ikusi ezin an gallurreko
kurutzearen besoak,
igerri ezin ekaitz osteko
intzirkiaren margoak.

Enaratxuak non ote aurren
urteoroko kabia?
Tellatuplean? Ez det ikusten
maitien detan txoria!

Pozik nintzake onenbestekin
ene Jaun eta Jabea!
Baña naiz otoitz itxu ez nadin,
Zure naia da nerea.

Muniategi'tar Sabin





AITA LINO AKESOLO

(Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregian ospatu zan 1.989'ko Jorrailla'ren 7'an, Aldundi orrek Aita LINO AKESOLO dimatarra, euskal idazle oparo, jator eta ugari batetik, eta edozelan be euskal jakitun zuur, alegintsu eta ikasmiñari eskiñitako omenaldia. Bere antzirudi bat agertzeko Eusebio Erkiaga izan zan aukeratua, eta onek, berak dakian trebetasun eta egokitasunez, besteak beste, onelako azalpen eta gorantzak egin zitun:)

Jaun andreok:

Bizkaiaren jauregi onetan kultura ariko gaurko jaiari txeraz artzen dogun Aita Lino Akesolo, Oban jaiola da, Dimako auzoetarik baten. Diman, Baltzola koba da; antxe berezkoa dan Jentil zubi be.

Inguru aretan diabrua ezezik —“Beste mutilla” zaarren berbetan—, lamiñak eta sorgiñak be, nasai ibili izan dira gizaldietan. Dimako Petralandan batzanduten zirean Bizkaiko Akelarre batzarrak, zapatu gauetan.

Diman jaioriko beste gizon bat Simon Bernardo Zamakola izan zan, XIX garren mendearen hasieran, tamalgarriri ospatsu gertatua.

Labur zurrian esan daigun, aldi aretan Bilbo ta bere portuaren garapenez, auzokoek, elizateek gaitziturik, ondamuz egozala, Bilbori oztopoak jarrea egoki zala uste izan eben. Zazpi kaledun uria, zelan estutu, zelan sosegau? Beste portu barri bat eginda. Nun? Gernika aranean, zeatzago, Mundakako barran. Asmo ori 1.792 g. urtekoa izan arren, bederatzi urtean lo egon zan, Frantziako matxiñadea zala ta. Ostera, 1.801 goan, eta ordaun Zamakola zan aurrera, portu ori Ibaizabalena, arean bere ementxe, Abandon egingo eben. Aren izena, “Puerto de la Paz”.

Bilbotarrak larri, alakorik gerta ez zedin, aalegiñak egiten asi zirean. Alperrik. Orrez gañera, arik iru urtera, Zamakola urduriak soldautza —moduaren aldaketea aurkeztu eban eta Gernikako Batzar Nagusietan onartua izan zan.

Elorrioak!... Begoñarrek, maatsorriek asarre bizian Bilbora jatsi eta or entzuniko argitasunek euren gogorik ez bete, ta euren fusilak artzeko baimena lorturik, Abandoko Bizkai-armategian iskilluak artu ebezan eta Bilboko kaleetan zear arro arro, jendearen ikusgarri ibili. Urrengo abandotarrak be berotu zirean, eta Armategian euren fusilez jaubetu, Bilbora joan, Bizkaiko agintari batzuk arrapatu, onuntz erakarri eta Albian preso sartu zituen. Orra or Zamakoladea borbor irakiten, ganezka noiz egingo.

Bilbotarrak len baiño larriago, bakea zelan nondik egingo. Ostera, lasterrean, ondorio negargarria: beste lurraldeetarik Bizkaira tropak eldu zirean. Militarrek agintepide guztiak euren menpe jarri eta bakea zearo lazkituz, bazterrak lorrindu.

Oraingoan, Bizkaiko Aldundian deitua, Zamakola erdi-jauntxu urduria barik, Dimako beste seme bat eldu da Begoñatik Abandora, duintasunez eta gizabidez eldu be. Gizon zuzenzalea berau, orraitño, azken gerratean, ogetabost urte zituan eta, gudarien kapeillau izatea jazo jakon.

Gerrate ostean, galtzaileak ez ei dau ezetariko eskubiderik.

Arako egunean, beste batzuekin, epaimaikoen aurrera daroe. Aita Leon alboan, laguna lagun zakidaz. Botoidun eta ezpatadun epaileek egia osoa jakin gura. Aita Leoni zutundu daitela diñotsoe. Erantzuna "bai" ala "ez" besterik ezin.

– Zu zeu, nazionalista vasco izan al zara?

Eta Aita Leon gizarajo aundiak, estu ta larri, erantzun motxa:

– Bai.

– Jesarri zaitetz.

Urrengo Aita Lino jesarlektutik jagierazo dabe. Itaune berori egin deutsoe. Erantzunak, motxa bear dau izan. Baiña fraile orrek, eskuak eskapulariopean alkarganaturik, bare bare diño:

– Gure Ordenak ez deusku...

– Ixildu zaitetz. Erantzuna "bai" ala "ez". Itaune berbera, eta auzipetuak jardetsi:

– Ez deusku gure Ordeneak...

– Ixiltzeko! Bai ala ez, soillik. Zu zeu nazionalista...

– Barruko sentipenik agertzen, ez deusku...

– Zagoz ixilik! Jesarri zaitetz!

Akesolo euskal-liburutegietako sagua dala esan daroe. Izan be, gure aurretikoek azken mendeetan idatzi ebezanak, eta galdu ez direanak, au da, non zer dagoan, aspaldixutik dakiana da. Euskal-alorrean buru belarri ibili da eta dabil. Etenik ez dauan jardunean. Lana ugari, txaloak urri, diru-laguntasunez erdimerdi, omenez aterri. Orraitño, urte bi laster, or Derion Labayru Ikastegiak gorazarre egin deutso, udako euskal-ikastaroko eleder-jaian.

Linok idazle zeregiñean, ainbat arlo ezbaridiñetan jardun dau. Orregaitik ez da errez ordu lauren baten aren ekin luzea zeaztasun berezietan azaldutea.

Euskal-eremuko idazleak, lanegiñak, izkera-eztabaidak etxeko izan jakoz; eta eremu besteriko lanak eta idazle asko be ikasi ditu. Elertiarekiko lanak eta istoriarekikoak be, euskeraz naiz beste izkuntzetan arakatu ta astindu ditu. Eta aazturiko edo bazterturiko lanak be bai. Sinismen-gaiak, moralekoak, emengo ta atzerriko pertsonaiak eta euren emoiak zuzen eta itzulpenez jorratu ta argiztatu. Akesolok lanik ugari, bere izen abizenez lotuak argitara arren, beste amazapi izenorde firmatatz erabilira dogu. Lenen mordo ori... itzulpenak eta Iztegia izan ezik, udabari onetan, liburu andi bitan argitaratuko dautsoez. 1.927 urtetik 1.988 arte, 320 idatzi inguru.

Iztegia, 9 liburuki, 16 urteko saila, izan dau buztarritik astunena, berez luzea eta azkenik ez dauana dalako. Iru lagunek erabilen zeregiña, arrezkero, zelanbaiteko beste laguntasunez, berak izan dau osorik eskeini aal izateko zoria, nekea ta grazia.

Linok euskerea landu dabenen ezaguera sakon zabala dau. Idazleetarik bakotxak berak zein gai ikutu ta mamurtu dauan, ta zelako izkerea eratu ta erabili. Ganera zelan, artez eta egokitasunez ala trakets eta baldarkiro. Arean, ikerketak edozein euskalkitan egin ditu.

Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan doana. Arako Demostenes totel-motel edo berbatuak bere izkerea trebe biurtu nairik, aoan arri koskorak sartzen ba zituan be, Akesolok bere izkerea, mintzatua edo idatzia jasean erabilteko, ez dau arri koskor anaforikoen bearrizantik, bere pentsakera iturburua euskalduna dalako, ez itzulpenekoa, ez eka-ria, etorria baiño. Beraz, Linoren prosa, ezaguna da, beste iñorenagaz naastugatxa, ziñez. Soiñua maite dauanez, itzneurtuak be landu ditu, berenez edo itzulpenez.

Arean, geienbat, ez dau bere burua eleder sortzaileen artean gailendu. Alan be, lan pitxi ta erakargarriak, mamintsuak laga deuskuz. Berbarako, "Atx-osterik Atx-ostera" kronikatxuan, zein lau, zein atsegin, zein gozoro diarduan! Entzun deiogun: "Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste aldeti ekarten euskuen umeai Marie Basoko'ren ogia. Atxostetik agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea. Atxostetik etorten jakun, urtean birritan gitxienaz, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten. Zer dan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure erria baño askoz geiago ez. Mundu orren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko-aldeko mendi-errezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta an, urrin baten, Burgos aldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izen bakoa. (...) Mendian zear ibili oi ziran gure antxiñakoak. Olantxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat ezkontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko".

Akesolo ikerlan amaibakoan ibili izan da, lan berekietarik bereiz. Ainbat idatziri buruz bere eritxia agertu, ainbat lan aztertu eta baita arteztu be. Arteztu ta zuzendu bearra dakusanean, zirujan itzela da. Merezi dabenei, lepo betena emoten ez da makala. Eta bearrik, zorionez, txaloak joten sarritan ez da azkena izaten.

Izkuntza ta gramatika arloetan nekatuezina, gure elederraz eta idazleez artikulua artikulua, labur eta luze. Zenbat itzaldi, zenbat libururen itzaurre, aitzin-solas, aurkezpen! Eta izkuntza ezbardinetarik itzulpenak, elemania. Liturgia euskeratze nekeetan zama astuna luzaro izan dau.

Bakotxari berea emoten zalea, ona emen aren idazkitxu batzuen idazpuru zorrotzak: Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeria egin; Kontu, adarjotzaileekin; Itsuen errian... ikusi nai ez dauana errege; Jorrazaille batzuk jorrazten; Lauaxeta ez da ain erdal-bertsogille txarra, eta... Itzaldi luzeekin, kontu.

Ixiltzen direanen edota betiko ixildu direanen alde azaltzeko prest egon oi da Aita Linoren gogoia, eta biotza. Labur zurrian bere berbakaz, oar jakingarri bi.

Don Manuel Lekuonak 1.970 g. urtean, buru zan bileran arako **kontu ematea** egin ebala, baiña egokion aldizkarian ez dala argitaratua izan. Bestalde, Liturgia euskeraz egiten ari zireanean, Lekuona gertatu zan Batzordeko buru, ta Iparraldeko norbaitek **Orduen Liturgia** lanetako euskereaz salakuntzea egin eban. Liturgia osoarekiko izkerez be, salakuntza bat eta geroago beste bat gogorra goa Lekuona aitatu eta gogor jotzen ebala, eta ez edozeiñek egina, Koldo Mitxelenak baino. Mitxelenak erantzuna bear ebalakoan neuk urten neban Batzordearen eta Lekuonaren alde; eta irain ori zuzendu bearra, gogoratu neutsan Mitxelenari. Aztuta ete eukazan Arantzazuko Batzarreko berbok: "Batasuna... Liturgian ez... oraindik ez"?

Baina Akesolok auxe be generatzen dau: "Eta esan daigun Mitxelenaren alde. Urrengo artikulua baten, bere salakuntzea atzeratu egin eban, Batzordeak eginiko **Orduen Liturgiaren** euskera ederra ta jatorra zala garbi autortuz. Asarrekortxoia zan noizik bein, bafia ba ekian bere senera etorten eta oker esanak zuzentzen".

Bigarren oarra: "Azkue aita-semeen arazotxu ori, argi jarteko alegiña orain amar urte egin genduan arren, alperrekoa izan da. Alan-olango kritikazko arri bat jaurtitzen danean, batez be norbaitzuen aurka bada, bide luzea egiten dau, guzur argia ta uste ustela bada be". Orrezaz, Akesolok itaune estu eta mingots au egin dau: "Nok idatzi ete dau Mitxelenaren izenean argitaratu dan Hiztegi Orokorrak aurrean daroan Bibliographia? (...) Hiztegi Orokorra argitaratzen asi barriari ez deutso mesede andirik egin, aren Bibliografian **Parnasorako Bidea**-ri eta aren argitaratzaileari dagokiona idatzi dauenak. Egia eztanari indar barria emoten deutso, eta R. Maria Azkue zanari, euskal iztegi gintza bide zuzenean ipini ebana-

ri, bear ez dan iraiña egin. Ordua dogu "somero cotejo" egilleen eskuetatik auzi au aterateko".

Noizbait, ogetabost urte joan dira, Akesolo euskaltzain oso egin gura izan eben. Baina berak ezetz eta ezetz. Alan ere, Euskaltzaindiari, urgazle da ta, aibat lan eskeiñi daroatso. Ostera, ba dau kezka ta ardura jarraikoa beste gizatalde ikastun baten, arean bere, "Euskerazaintza"-n lemazaiña da ta.


Eta azkenik, laburmiñaren laburmiñez, guzti au prosaiko edo berbete lauaezko izan ez dadin, beioakoz, urri, doñu barik, iru bertso, zortziko txikian.

Jakingura zuzenez
lanerako erne,
urteak gorabeera
prest esku ta barne;
gure euskal-liburuez
irakasle errime,
idazle zaarrak ziur
Linogaz konforme.

Egitadetan luze,
barriketan labur,
Bizkaiko burdiñeaz
esaera zuur;
alorra autetsi ta
lur gogor naiz samur,
goldea artez daroa
ez gatxera makur.

Agur eta oore
bero ta goraki
adionez Dimako
seme argiari,
Jaungoikozale eta
euskal zerbitzari...
Bizitza biontzat
izan dau opari.

EUSEBIO ERKIAGA



AITA LINOREN LAN EZKUTUAK

An-or-emen erdi galduta dabiltz Lino Akesoloren idazlanik geienak, ainbat aldizkaritan eta urtetan bananduta, nik dakit, ba, zenbat ezizen lotsorren azpian burua gorde gurarik. Zorionez, bere ordenako fraide langille batek laster argitaratuko ei deuskuz Linoren idazlanok (onentsuak, beintzat), eta orren zain gagoz euskalzaleok.

Baiña badira, Linoren bizitza luzean, beti ezkutuan geratuko diran lan asko ta asko. Eta nik gaur onango lan batzuk aitatu gura dodaz emen.

Laguntzaille.— Liburuen artean ordu asko emoniko gizon onek jakituria andia beregandu dau euskal gaietan. Baiña jakituria ori ez dau beretzat bakarrik gorde. Eurrez zabaldu izan dau bere inguruan, arrokeria barik zabaldu be. Zenbati ez ete deutso Linok liburu zein artikulu baten barri emon, idazlan apal bat zuzendu, ikerketa bat egiteko bideak zabaldu, itzulpen bat egin... Gogoan dot, esaterako, urte askotan euskeratu zituala gure Mixiño-Idazkaritzak ataraten zituan paper guztiak, Bilboko parrokia batek asteroko orritxuan argitaratzen eban euskerazko artikulua. Eta orren antzeko beste asko. Ez deutsoe olango lanak egilleari izen andirik, ez dirurik, emoten; baiña laguntza apal eta zintzo orrek euskal usainez bete ditu gure bazter batzuk. Eta olako gizon jakituna olako lan apaletan sartuta ikustea beti da arrigarri; izan bedi txalogarri bel!

Niri neuri be ez deust gitxi lagundu A. Linok idazleen lorategi edo antologiak egiterakoan: idazleen barri emon, zatiak aukeratu, argibide aberatsak eskeini... Au dala-ta, garbi ta argi autortu neban neure zorra, itzaurre baten: "...beste laguntzaile batzuen artean, argi-emoilerik mesedegarriena, Lino Akesolo. Eskerrik asko!" (Euskal Idazleak Bizkaieraz, Labayru Ikastegia, Bilbo 1.980, 13).

Lagun asko eta leku askotakoak urreratu jakoz Linori laguntza eske: itzaldiak itzulpenak, itzaurreak, iztegiak, t.a. Bere gogo-biotzak ustuteko baiño geiago olakoxe eskabideei erantzuteko egin dituala bere euskal lanak, esan geinke. Neurri andi baten bai, beintzat. Eta orren frutu ederrak or dagoz, gure begien aurrean.

Liturgiaren euskeratzaille.— Kontzilioaren denporetan etorri zan Erromatik mezearen zati batzuk erri-izkuntzetara biurtu eta ospakizunetan erabilteko baime-

na. Itzulpen lan ori aurrera eroateko, berarizko batzorde bat eratu zan Bizkaiko Eleizan, Lino Akesolo buru zala (Leenengo aldi onetan, euskal eleizbarruti bako-
txak bere aldetik jokatu eban, besteakazko artuemon barik, zoritxarrez). Bizkaiko
talde orrek euskeratu eban leenengo zatia zera izan zan: "Mezaren Egunerokoa"
(ez oraingoa, orduan erabiltzen zana baiño). Pozarren artu eban erriak ori, eta
millaka ta millaka zabaldu ziran liburutxuak gure eleizetan, euskaldunon biotz-
pozgarri. Gogoan izan, aldi aretan euskereak ate guztiak itxita eukazala gure
eskoletan eta komunikabideetan. Irakurgaiak euskeraz egiteko, J. Kerexetaren
Meza-liburua erabilteko baimena izan genduan Bizkaian, eta ez da makala izan
Jaimeren liburu onek egin euskun mesedea bere euskera garbi, argi ta errikoiaz.

Irakurgaiak eta Erromako Kanona (gaurko I Eukaristi Otoitza) euskeratzeko
baimena eldu jakunean, eleizbarruti arteko taldea sortu zan Euskalerrian, M.
Lekuona buru zala. Beste bizkaitar batzuk be lan egin izan dogu talde orretan,
baiña urterik zaillenetan geien egindakoa A. Lino Akesolo dogu, duda barik.
Urtean zear, astean bein batu oi zan taldea, Donostiako Seminarioan; uda par-
tean, aparteko batzarrak egiten ziran, astebetekoak edo, lana aurrera eroateko
asmotan, Estibalizen, Donamarian eta beste leku batzuetan. Gure Lino an izaten
zan batzarrotan, berba gitxikoa baiña zorrotza (lotsa andia eutsoen batzarkideak
Linoren eretxiari), ontzat emoten zan itzulpena bere paperean jarten.

Itzultzaile-taldeak egindako lana andia (eskergea!) eta mesedegarria izan da
Euskalerriko Eleizearentzat, eta baita euskerearentzat be. Utsak uts, guztiz txalo-
garria. Baiña baita nekeza ta gogorra be! Sarri askotan aldazgora pikea izaten
zan danen gogoko ziran itzulpenak lortzea, euskaldun guztientzat argi ta gozo
izan eitekezan berba ta esaerak aurkitzea. Lankide guztiak ziran euskal gaietan
jakitunak, baiña euskalki ezbardifetakoak, eta bakotxak berea atara gura aurrera.
Eroapen eta apaltasun andia bear da askotariko eretxiak aintzat artzeko, amore
emoten jakiteko, batasunak eta norberaren errialdeak eskatzen dabena alkartze-
ko... Amaikatu ordu luze emonikoa dogu gure Lino olako talde-lanetan, urte
askotan.

Taldean ontzat artzen zana, gero bakotxak bere euskalkira egokitzen eban.
Leenengo urteetan, Bizkairako, Linoren eskuetan egon zan egokitze-lan au. Egia
esan, taldearen itzulpenak nasai samar aldatzen zituan bizkaierara, onen berezi-
tasunak eta gure erriak bear dabena kontutan arturik. Jokabide au ez zan barria
Linorentzat. Bardin antzera jotaku eban, urte batzuk leenago, Iratzeder-Lertxun-
diren SALMOAK bizkaieratu zituanean. Ez zan lanbide samurra ori egitea. Bate-
tik, Iratzederren izkerea ta Linorena naikoa urruti bata besteagandik; bestetik,
zeatza ta estua Iratzeder-Lertxundik salmoen itzulpenari jarritako neurria. Berbak
eta esaerak aldatu bear diranean, zelan sartu barriak neurri estu orren barruan?
Orregaitik, Akesoloren itzulpena nasaia da, ez da zintzoegia, azalari jagokonez
beintzat; baiña esaguran, bai. Eta, bizkaitarrontzat, bertoko usaina dariola dago
Linoren itzulpena. Ona emen zati bat esaterako:

"Zeruak dagoz / Jauna zein andi / dan esaten;
goyak, Ak eiñak / iragarten.
Goizak goizari / emoten deutso / Aren barri,
bardin arratsak / arratsari.
Eurok dabillen / soñua eta / berbarooa.
ez da, ez ezin / aitzuzkoa.
Lur dana zear / zabaltzen da arein / aldarria,
urrun doa aren / durundia. (...)
Zeruko alde / baten dau bere / urterea,
ta alderik alde / osterea.
Ez da munduan / ez legorrik ez / itxasorik,
bere beroak / jo bakorik" (18. salmoa)

Iratzederrena ikusi eta au ikusi, badirudi sortze-lan bi, naikoa ezbardinak, dirala.

Jokera bardintsua erakutsiko deusku Akesolok, liturgia barriko berbak bizkaieratzeko orduan. Ez deutso latiñari, ezta beste euskaldunen itzulpenari be, itzez itz jarraituko; nasai samar, baiña zentzun andiaz egokituko ditu gure Bizkaiko erriarentzat. Aste Santuko liturgiatic artuko doguz ejenplu gitxi batzuk: Eguen Santuz, oiñak garbitzerakoan kantetan diran antifonak (ebanjeliotik artutako berbak) euskal bertso biurtuko ditu Linok, katurako dirala eta:

“ Pedrogana doa lenengo, / ta Pedrok diño zurturik:
Jauna, Zuk niri oiñak garbitu? / Sekulan ez olangorik.
Eta Jesusek erantzun deutso: / Ezpadot zu garbitzerik,
zeuk bere, Pedro, ez dozu izango / nire lagun izaterik”. (2. antif.)

San Pauloren berba sakonok be euskal gatza artuko dabe Linoren bertsoan:

“ Gure artean bizirik begoz / fedea ta itxaropena;
bizirik bego maitetasuna, / iruretan bikaiñena.
Bai, sinismena, itxaropena / ta maitetasuna emen:
euren artean maitetasuna / da, orraitio, bikaiñen”. (6. antif.)

CHRISTUS FACTUS EST deritxon antifona zoragarria - pazko misterio osoaren ardatza, gregorianoz ain dotorea - polito baten egokitu eban Linok katurako, bertso biurtuz:

“ Kristo gugaitik menperatu zan / eriotzea artzeraiño;
eta zelango eriotzea! / kurutzean ilteraiño!
Baiña Jainkoak orregaitik dau / ezin gorago goratu:
izen guztien gaiñeko izena / emonez dau sariztatu!”

Itz lauz edo prosaz egindako itzulpenetan be antzera jotaku dau sarritan Akesolok. Or dozuz, diñodanaren lekuko, “IRAKURGAI-LIBURUA” (A, B, C), urte guztiko domeka ta jaiegunetako Jaunaren berbea eskeintzen deuskuna.

Geroago, bai ALTARAKO LIBURUA ta bai IRAKURGAlena egiterakoan, kipu-tzak eta bizkaitarrok alkartuago egin dogu azken lana; eta, batasunaren izenean, aal danik eta bardintasunik andiena lortu nai izan da itzulpenetan, Erromako aginduak be bide orretara bultzatzen gaituela-ta. Autor dagidan jokabide barri onek min andia emon deuskula bizkaitarroi, bein baiño sarriago: batasunak eskatzen eban testua zeatzagoa, zintzoagoa izango zan, bai; baiña bazterrean izten genduan leengoa (Linok egokitua), ez ete zan legezkoa? Guretzako gozoagoa, bertokoagoa bai, beiñipein. Baiña batasunaren bidean, bizkaitarrok sarri galtzaille. Olantxe galdu doguz Linoren ainbeste itzulpen jator, euron ordez itz lauzko berba otzagoak, motelagoak, sarturik.

Ez, ostera, beti, Linok bertotan jarria da “UBI CARITAS”-en itzulpena, Meza-liburu barrian be badatorrena:

“Nun da maitasuna? / Antxe dago Jauna.
Nun lagun urkoa? / Antxe Jaungoikoa. (...)
Jaunak alkartuta / gaur batu bagara,
bake txarrak jaurti / daiguzan sutara,
auziak aldendu, / itxi gorrotoa.
Bego gure erdian / Jesus Jaungoikoa”. (zati bat).

Latza ta gogorra da berez talde-lanean ekitea. Ganera, norberaren izen onarentzat ospe gitxikoa. Nok daki zeñiek zer egin dauan? Olako lanik geienak egi-

leen izen barik argitaratzen dira (liturgiakoak bai, beintzat); eta orretan egindako alegiñak, emondako orduak, itxura baten sari eskasa emon oi deutse egilleei.

Ori gitxi dala, zure atzetik datorren eskuak zuk borondaterik onenaz egindakoa aldatu egiten deutsu; aldatu naiz baztertu, eta ez beti ganoraz eta zentzuz. Olakoxe lanbide ezkutu ta apaletan emon dau Lino Akesolok bere bizitzako zati on bat. Bizkaiko Eleizeak, orain dala urte batzuk, bere esker ona agirian autortu eutson, berari eta beste lau eleiz gizoni, Urkiolan egindako omenaldian. Baiña, jakin ez arren be, gure kristiñau erriak egingo deutso, egunean egunean, omenaldirik ederrena, euskal liturgiaren gozotasunak Jaungoikoaganako bidea zabaltzen deutson. Itzulpen mesedegarriok lagun askoren nekeak, alegiñak eta jakituria zabaltzen dabe egunero Euskalerrri osoan, eta luzaroan zabalduko al dabe! Euron artean ezkutauta, ortxe dago Aita Lino be.

• • •

Eta amaitzeko, azkena. Mundu onetako gure ibillaldiaren azkena, eriotzea. Eriotza ori, fedearen argitan eta itxaropenaren pozetan, **ospatu** egiten dogu kristiñauok, Kristoren pazko misterioan bat egitiñ. Ederra, sarkorra benetan, euskeraz egin oi dan ospakizuna. Jainko-Erriaren Otoitza bertsotan egiten da leku askotan:


“Eskatu daigun illaren alde,
Kristo bitarteko artuz;
gure otoitzak asko dagike,
Arenarekin aldartuz”, asten dau kantuz meza-emoilleak.


Eta erriak, doiñu ederraren eragiñez, erantzuten dau:

“Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan”.

Ezpadakizu, jakizu, irakurle, L. Akesoloren bertsoak kantetan dozuzala.

K. ETXENAGUSIA





DIMA

Noizko ete da Dimatarren umorea?

Jo panderoa eta eragin. Atzaparrei eragin eta gorputzari eta gonaei. Irudimena-ri eragin eta begiei. Bat ikusi ta a zirikatu. Bateri deitu ta bestea loxindu. Bateri begiratu ta besteari kifu...

Maritxu Petronila
Olabarrikue
katuak jan dautsola
sutako talue.

Maritxu ez eidazu
katurik mankatu,
saguak kuyetako
katua biogu.

Gaztaña kolorea
daukazu Maritxu,
Patziko Balzolakoak
zurituko zaitu.

Patziku Balzolako
tartien tartien
Igorrera yoaten da
nobiya eskien.

Eta alaxe, olgeta-benetan, erriaren gatza erakutsiz, umorea agertu eta zabal-
tzen, biziari irri egiñaz, biziari tarte artuz eta ziria sartuz bizi dira emen.

Ortuen perejille,
saleruen gatza,
faltrikera beruez
tabernan lebatza.
Lebatza ezin bozu
ba dago buzkantza,
pandero yoten nabil
kendu daizun gantza.

Ba nabil, Dima'n.

Menditarrak dira arratiar erriak. Menditarrak eta menditsuak. Bizi-lagunez ez ugari eta andi, baiña lurrez bai. Kontu egin Zeanuri Bizkaitik irugarren andiena dala lurrez. Eta bere ondoren Dima dagola. Zeanuri'k 67,28 kilometro lautu, Dima'k 62,22. 45 kilometroko ingurua osotzen dabe Dima'ko lurak.

Ala ta be 1.040 lagun bakarrik bizi dira Dima'n. Kilometro lautuko 17 lagun inguru. Basauri'n, kilometroko zazpi milla. Alde ederra.

Arostegieta, Bargondia, Bizkarregi, Intxaur-bizkar, Indusi, Lamindano, Oba biak, Olazabal eta Ugaran dira bere errialdeko zatiak.

Irakaskintza: Txikiena, erriko eskoletan. Erdikoa, batxiller eta antzerakoak, Yurre'n, bertotik lau kilometrora. Langintzaetakoena, laboralak, al dan tokian.

Ongi-bidea, langintza: mendietan eta egur erabilketan. Serra bi dagoz.

Berrogetamar urte oneitan erdira etorri da Dima.

Orain 50 urte, Patxi Zalbidegoitia zan alkate eta Txomin Zarate, parroko. Bera eta beste bost abade laguntzalle egoten ziran sasoi aretan erri onetan. Gaur parroko bat eta... Orduko sei abadetatik bat bakarra ez da bizi.

Sei taberna egozan orduan. Egia esateko, sei taberna areitatik, lau jateko dena eta taberna batera ziran. Iru serra be bai, eta beste lau arostegi eta iru burdintegi, errementari. Eta Dima'n beti egoten ziran egur-ikazkigiñak.

Arteagaz egiten dau
Miel'ek ikatza,
kurpittana bizia ei da
ta arteana latza.

Dima'ko siniskerak:

Amatasunean bularretara bear aiña esnerik ez yatortzula? Zoaz Bekorregi'ko Ama'rengana.

Zure neskatoak ez dakila berbetan? Edo ta umiak nekez ba datoz ibiltzen ikasten edo bildurti, zoaz Lamindaño'ko Amagañe.

Ala esaten dakie Dima'n.

Lamindaño'ko parroki au, San Pedro'ren "anejea" da. Arrati'ko parroki eta ermitetan, bigarrena denporetan.

Bertako Ama Birgiña'ren irudia, XV garren gizaldikoa da. Arteari begira esaten dakie, Ama baiño Semea urduriago dala. Ama gotikoa eta Semea Pizkunde tankeretan sartu nairik. Bikorregi'n dagona oraindik daukan baiño zar itxura geiago daukana ei da. Orduko santugiñak, zaarregi egin nairik, ez ei eban lortu artean zerbait dakieni ziri ori sartzerik. Orra. Lamindaño'koak 0,88 daukaz luzeran, Bekorregi'koak 0,60.

San Pedro'ren parrokia, "anejea" eta beste bederatzi ermita dagoz Dima'n. Ez, ain zuzen be, Arrati'ko errietatik geien.

Zarra ez ba da be, oraindik 250 urte inguru, ikusgarri eta zaintzea merezi dabena, Erruki'ko Amaren ermitea da.

Jakingarria: Lamindano'ko eleizan txilin zaar bat dago, brontzekoa, eta bertan au irakurri lei: Me fecit Johannes de Afinea. 1553.

San Pedro parrokia noiz egia zan ez ba dakigu be, 1729 urtean erre egin zan eta beriala eleizaren arduradunak artzen ebezan amarrenak barrizatzeko eskia ziran.

Luze joan zan barrizatzea. Erremata artu ebanak amaitu ez, eta gero nasteak, asarreak eta zorrak ordaindu ezin. Urteak igaro ziran orretan. Zorrak ordaintzeko, erbestera dirua eskatu eta Durango'ko Santa Susana'ko monjak be emon zati bat, urteko euneko bi korriduan. Danetara, zorrak ordaintzeko, 87 milla errial eskatu ziran.

Aldare nausiko erretablua Pedro Pillan'ek egin eban eta 22.090 errial kostatu zan. Irudia, imagia bi milla errial.

1735 urtean egin zan barrizatzeko erremata eta oraindik ogei urte geroago lan asko amaitzeko egozan. Geroago, 1800 urtean, barriro premiña asko kon. pondu edo barrizatu ziran.

Dima'ko beste imagia baliotsu bat, gaur Bilbo'ko Arkeologiko Museoan dago: Oba'ko ermitako Santa Ana, Andra Mari bere Semeagaz eskuetan dabela, Antxiñako ezan nai askodun agergarri da.

Amabi urte neukazan 1926 urtean, ikasten nebillala, irakasle barri bat etorri yakun Erroma'tik. Markiñara. Al eban guztian kontseju bat emoten euskun gure bizitzarako: Dima'ko Aita Domingo'ren antzeko izaten alegintzeko. Il barri zan dimatar au eta santu entzutea beriala zabaldu zan baster guztietan. Berak be ezagutu ei eban. Sekula ez ei eutsan gauza berezirik igarri, ixil-ixilik, irribarrezka une bakoitzean egin bear zana zintotasunez eta betetasunez egitea besterik. Alakoxe fin fiña ei zan Domingo Iturrate eta Zubero, dimatarra, bere gaztearoko sasoirik onenean. Urte batzuk dirala ekarri zituen bere azurrak Bizkai'ra eta Algorta'n gorde, santuen aintzaz goratzeko asmotan.

Irutasuneko Ordenan, Trinidadekoan, Dima'k azi ona sartu eban.

1971 urtean Ordena onetako Nagusi izendatu eben bertako beste seme bat. Zortzi izkuntza, berbeta ei dakiz. Eta 42 urteagaz Ordena bateko buru izentatzeko beste zerbait geiago be bear da. Orra Aita Iñaxio Bizkarguenaga.

Jarraitu daigun seme jatorrak agertzen.

Bizarrak nok? Laga kaputxinoei. Baiña ara joan egin bear da. Eta an sartu zan bein Bargondia auzoko seme bat: Saturnino Soloeta Iturrondobeitia.

Fraidetu orduko Suiza'ko Friburgo'n Aita Getino'ren ikasle. Euskaldun jator. Maixu orrek be ala deitzen ei eutsan: euskalduna, Andik Argentina'ra joan eta ainbat urtetan euskera zabaldu nairik, euskaldunen artean lanean. Euskerazko liburuak be agertu zitun. Kursu bitarako ikasgaiak. Erderaz eta prantsesez.

47 urte eukazala, Bizkai'ra agertu zan etxeoak ikusten. Zelan begiratu bear ete da bizitzeari adin orretan?

Bizkaia'n egoala Aita Fernando —ala deitzen zan Ordenan—, mixiolari sentidu zan. Eta ordurarteko Argentina eta Txile'ko nausikeriak lagata, bakar-bakarrik Txina'ra joan zan. Eta an bereak eta bi ikusi beste 26 urtetan. Ango nastetan estu ibili ondoren, Manila'ra joatea lortu eban eta antxe il, beste amar urte lanean egin ondoren, 83 urtedun.

Nik, beratzaz, bere auzoko batek idatzi ebana gogoratuko dot: Buruz azkarra, argia eta sakona, gitxi lez. Eta biotzez oraindik aundiago ta goragoa.

Bilbo'ko Museo Arqueologico'n, testigantza bakan lez, Dima'n batutako illobietako gorantza edo lauda bat dago. Brontzezkoa. Urizartarena da. Egon zan Dima'n bizitza guztirako Bizkai'ko Foruetako alkate lez izentaturiko Urtuño Urizar bat. Arek ipiña zan lauda ori bere aurretikoen illobian.

Laga daiogun biziei meritu geiago irabazten, brontzezko oroigarrien ordez, biotzen eskar beroa agertu al izateko.

Lengo gizaldiko bat: Zamakola. 1804 urtean besterik ez zan entzuten Bizkaian. Orduko algara eta ekitaldiei zamakoladea deitu be eutsen. Orduko testigantzak diñoenez, Simon Bernardo Zamakola, Dima'n sinistu ezin aifiako eran maitatua izan zan.

Beste baten sartuko gara Balzoletan, lamifiñen ziriketetan. Gaur, sartu garean lez, urten daigun pandero otsean Dima'ri kantetan:

Antxine esan neutsan
dimatar bateri,
gorde zakidazala
prenda eder ori.

Prenda eder ori nor dan?

Menditik kalera etorri ta bera nausi, esaten da iñoiz alkateekaitik.

Ni ez nabil agintariei begira. Liburuei begira nabil eta bai esango neuke batzuk liburutegietako sagutxu deitzen ba dautse be, zulo guztien barri dakilako, beste batzuk liburutegietako alkate uste dabela, uste eta autortu, benetan euretako begirale zintzo dalako.

Nor dan prenda eder ori?

Lino Akesolo..., sortzez eta ametsez dimatarra. Gaur zaindu daigun, bai eta goretsi be, arlanduetan, geroak jakin dagian bera nor dan.

Augustin Zubikarai

TXURI TA GORRI 4

TXURI TA GORRI 5

TXURI TA GORRI

liburu berriak

1.—“ZIPITRIA”tar **ELBIRE MINTEGIA**” izeneko talde bat, Andereño-talde bat lanean ari da Ernani’ko **URUMEA IKASTOLA** ezagunean.

Ain zuzen ere, **ELBIRE** zanaren mezua, irakasbidea, irakaskintzarako ta ezike-tarako irizpideak, aurrerapenak e.a. aztertu ta ondorioak atera nairik ari da lan ortan Urumea Ikastola’ko Mintegia.

2.—**ELBIRE** zanaren irakasbideak, iru zutabe nagusi zituan oiñarrizat edo ardatz:

a—**LOJIKA**: au da, argia, egia, ulertzea, ulertaraztea, erraztasuna, errazetik zai-llera ta dakianetik ez dakianera igo-eraztearen lojika.

b—**EUSKERA**: Euskeraz pentsatu, euskeraz mintzatu, Euskeraz egin dana, Euskalerrria maitatu, abertzale izan, euskal-senaz kutsatu eziketa ta irakas-kintza...

d—**Kristautasuna**: Berak beintzat bere irakaskintza-lan guztiari kristau-giroa eman zion, eta balio aundikotzat eta aberasgarritzat bizi zuanez, besteei ere gauza bera opa zien.

3.—Liburu auek egitekoan, iru zutabe oiek oiñarrizat izan ditugu Elbide ospe-tsuari jarraituz.

EUSKERAZ.—Euskera oiñarri artuta, euskal-girokoak dira irakurgai geienak, euskal-sena daramatenak eta euskal-sena zuzpertzeko egokiak.

Euskalerrri osoa gogoan artuta aukeratuak dira, euskalki guztietakoak ain zuzen, aurtzarotik ikas dezaten Euskalerrria bat, eta Euskera bat izanik ere, zati edo alderdi edo aurpegi ez-berdiñaz dituztela. Eta bestaldera: Euskalerrriak erki ez-berdiñak, eta Euskerak euskalkiak izan arren, Euskalerrri bat eta Euskera bat dirala.

LOJIKA.—Lojikaren argira, errazak, argiak, aixa ulertzekoak, adiñari dagozkio-nak eta beti zerbait ikastekoak dira irakurgaiak. Jolas-giro alaian ere, ipui ta abestien artean ere, zerbait ikasteko bidea ematen dutenak.

Lojika berari jarraituz, euskal-idazkera ere aalik errazena, biziena, gertuenekoa, ots bakoitzari bere makilla edo izkia opa izanez; era batera irakurri bear izatea, era batera esan eta beste nolabait idaztea, naasketa-bide galgarriak bai-dira leen eta orain.

KRISTAUTASUNA.—Edonork aixa ulertuko duanez, “**TXURI TA GORRI**” liburu auek, Irakur-liburu diranez, ez datoz sinismen-eziketara: ez dira Kristau-ikasbi-de. Baiña ez diote bildurrik, ez lotsarik, kristau-kutsua duten zenbait olerki naiz irakurgai sartzeari, lantzean bein noski.

4.—ELIBIRE zanaren aukera:

Batez ere TXURI TA GORRI liburuko irakurgaiak, Elbire zanak bere irakaskintzan erabiliak, arek aukeratuak eta landuak dira ia guztiak, zenbait osagarri izan ezik.

Besteetan ez dira Elbire'k aukeratuak, irakaskintza-mailla guztietan lan egiterik ez bai-zuan izan. Arek aukeratuak ez diralarik ere, aren irizpideari jarraituz bai, ordea, eta aren irizpideak oinarritzat artuta.

5.—Ikasleak azitzen eta buruz jazten doazen aiflean, beren adimenarentzako jaiak ere neurri ortara eratuak dira egokienak. Orregatik, urterik-urte ta ikasketako maillaz-mailla goruntz doazen aiflean, irakurgai luzexeago, sakonxeago ta arrotzagoak ere eman bear dizkiegu ikasleei. Orregatik dira ain ez-berdiñak naiz itxuraz, marrakiz eta izkiz, eta naiz luzeraz eta gaien sakontasunez. Ikusi besterik ez, alde aundia dagoala TXURI TA GORRI 2 liburutik, 4 ta 5 liburuetara.

6.—Liburuen egitura: TXURI TA GORRI 2, ortxe 7-8 urtekoentzako, Urtaroak edo urteko aldi nagusiak ardatz artuta egiña dago: Udazkena bere ego-aize ta igali elduekin, eta garai beretsuan, lenengo iru illabetekoan, Mikel Goiaingerua (Aralar'koa) ta Xabier euskalduna aipatuz.

Urrena GABONAK eta Erregeak e.a., gero azkenean San Joan eta egun aieta-ko sua aipatuz bukatzeko.

Tartean, berriz, ipuiak, asmakizunak, esaera zaarrak, abestiak, olerkiak e.a. iru illabeteko aldi bakoitzean danetatik sartuta.

TXURI TA GORRI, 4 — liburua, umeen bizitzatik zerbait aldenduagoa da, baiña beti ere euskal-giroko gaiak sartuz. Aipa ditzagun batzuk: Illunabarra, Mikel-Mikel, Baga Biga, Igelak, Soinkien lan-uztea, Iru estudiante, Birila, Errotaren sorrera, Lau lagun indartsu, Orreaga, Anboto'ko Mari, Malato, Erregeren zaldia...

Etxepare, Lizardi, Orixo, Oxobi, Etxaniz eta J.M. Lekuona'ren olerkiak ere ba dira tartean. Antzerkitxo labur bat ere bai.

Jakiña, batzuk asmatuak, besteak euskeratuak eta besteak andik eta emendik artuak dira, eta adin ontako ikasleen eta Elbire zanaren irizpideen arauera aalik egokien eratuak dira.

TXURI TA GORRI, 5

Gutxi gora-beera amar urtekoentzat danez, auen jakin-miña pizteko bidean, atzerriko ta antziñako gauza jakingarri batzuk aurkituko dituzte: Grezia'ko AKROPOLIS, Mexiko'ko TXITXEN ITZA, Ejipto'ko ABU SINBEL eta Birmania'ko SHWE DAGON pagoda.

Kontakizunen artean, Everest mendi-gaillurrerako igoera ta jetsiera, eta antziña-koetatik, MATALAZ apaizarena, eta SANTA KRUZ apaizaren larriak Aramaio aldean.

Olerkiei dagokienez, Etxaniz, Emeterio Arrese, Lauaxeta, Loidi ta Lekuona jaun-
nen olerki bana-edo.

7.—IRAKURKETA LANTZEKO BIDEA. Gure garaian, liburua eskuetara eman eta... or konpon! uzten ginduzten askotan. Guk amar urte genituanean "España mi patria" liburua ematen ziguten irakurtzeko. Eta guztia, arin eta laisterka irakurtzea zan orduan...

Errazak eta adifñaren maillakoak diranez, bakarka irakurtzen dituzte ikasleek, berin, bi ta iru aldiz, beraiek zerbait ulertu arte. Eta ulertu dutena agerian jarri, zeaztasunik gabe, bere osoan artu dutena.

Baita esaldiz esaldi ere irakurtzen dute, bakoitzak esaldi bana, ulertzen dutena esanez, eta ulertzen ez dituzten itzak galdetuz. Eta gauza bera beste era batera esaten saiatuz.

Urrena, esaldiei dagozkien galderak egin Andereñoak eta ikasleek galderei erantzun.

Antzeko ipuiña asmatu ta itzez esan dezala bakoitzak, asmamena lantzeko bidean.

Zenbaitetan, irakurri dutena ikasleen artean laburki antzeztu egiten dute.

Ikas-gelako ikasle guztien artean laburpena egin eta arbelean idatzi. Batek esana kendu ta garrantzizkoagoa jarritz e.a.

Beraiek ere laburpena egin izan dute batzuetan idatziz.

Eta onela, Andereñoa naiz-ta Irakaslea laguntzaille dutela, sakonki lantzen dituzte irakurgaiak, gaiari zumu guztia ateratzeko ta ikasleen ulermena, irakurketa ta asmamena lantzeko.

TXURI TA GORRI liburu auen deitura bera ere zerbaitegatik jarria da.

Gogoan izango duzute, noski, Lekuona'tar Manuel (G.B.) jaun agurgarriaren lan bitxi ta atsegin ura: TXURI TA GORRI TA KIKIRRIKI. Guztiz atsegin gertatu izan zaie umetxoei: ez dira aspertzen irakurtzen, eta buruz ikastera ere iritxi oi dira.

Bidezkoa zan, bada, Lekuona gure maixuari begirune ta omen izatea. Aren omenez eta aren gomutarako, aren gogoangarri, ipiñi diegu izen edo deitura bera, laburturik ba'da ere, esateko erraztearren.

Eta bestetik, Lekuona'ren oifarrizko irizpide bat ere gogoan eukitzen eta erabiltzen saiatu gera: Idazleak, argi ta garbi idatzi bear duala, zailtasunik gabe irakurtzeko ta ulertzeko eran. Orrela egiten zuan bere lanetan, eta orrela esaten zigan beti. Maisu ta eredutzat daukagunez, leialki jarraitzen saiatu gera talde osoa. Lortu ote? Zuek esango.

Umetxoek euskalzaletasuna ta irakurtzeko gogoia, euskeraz irakurtzeko erraztasuna ta gogoia piztea izan dira elburu nagusiak. Eta oiekin batera, Zipitria'tar Elbire ta Lekuona'tar Manuel, gidari ain bitxiaren lanari aitorten egitea, eta aien izenak euskaldunen gogoan, batez ere txikien buru-biotzetan, etengabean oroitaraztea ere bai.

Ez dira oso merke, naikoa garesti baizik. Eta ikasle txikiak liburuak aalik merkeen izan bear lukete. Merkeago izan daitezen biderik egokiena, Jaurlaritzak oparo laguntzea litzake, baiña... estu ta zorrotz jarri dituzten arauak —idazkerako arau burugabeak— bete ezik, ez dute Jaurlaritzaren laguntzarik eta ez dute sarrerarik ikastola ta ikastetxeetan; au da legezko sarrera edo sarrera babesturik gabe gelditu bear.


Orregatik, Ikasketarako ez ba'lira bezala aurkeztu bear izan ditugu. Eta jaurlaritza'k eman digun diru-laguntza, beste edozein euskal-libururi ematen dionaren neurrikoa da: liburu bakoitzeko 33 peztako laguntza, au da 1.500.000 kosta ta 100.000 emanez, eta eunekotan 7% bakarrik da.

Eta onela dira salneurriak: 650, 750 ta 800 pezta txikienetik aundienera.

Gaztañaga'tar Jesus'ek

Oarra: Liburu auen aurkezpena Donosti'n eta Bilbao'n egin zuan Euskerazaintza'k, 1989'go Epaillaren 10'en batean eta 17'an bestean. Aurkezpen aietan irakurriak dira auarreko lerro auek.

ELBIRE ZIPITRIA IDAZ SARIKETAK



EUSKERAZAINTZA'k, Donosti'ko Getari kaleko 21'garrean daukan idazgelan bildurik, Agirre'tar M.^a Dolores, Zubikarai'tar Augustin, Yurramendi'tar Felipe, Gaztañaga'tar Jesus, Arrinda'tar Anes eta Kortajarena'tar Andoni jaun-andreak, ELBIRE ANDEREÑO A Ipuin-Sariketara aurkeztutako lanak aztertzeko epaimaia osaturik, azterketa sakon bat egin ondoren, adostasun osoz, sariak era ontan banatzea erabaki dute

A maila:

1.º saria	:	Eman gabe, utsa.	
2'gn. saria	:	“Joko zitala”, Ibarra'ko Asier Etxaburu'k idatzia	10.000 pezta.
3'gn. saria	:	“Aste Santu alai bat”, Ernani'ko David Etxeberria'k idatzia	8.000 pezta.
4'gn. saria	:	“Nortasun aldaketa”, Legazpi'ko Antziñe Agirre'k idatzia	4.000 pezta.
4'gn. saria	:	“Patua izarren eskuetan”, Portugalete'ko Berriotxoak ikastolako, Ainoa Arregi'k	4.000 pezta.

B maila:

1.º saria	: "Irudimenarekin bidai ...", Ernani'ko Urumea ikastolako, Elena Fernandez'ek ...	10.000 pezta.
2'gn. saria	: "Katua izan zan...", Ernani'ko Urumea ikastolako Yon Molina Aldaregia'k	8.000 pezta.
3'gn. saria	: "Jaio nai etzuen aurra", Ernani'ko Urumea ikastolako, Aitor Parrondo'k	6.000 pezta.
4'gn. saria	: "Desagertutako gizonak", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Irantzu Zaldunbide'k idatzia	4.000 pezta.
5'gn. saria	: "Ikerrren abentura ...", Deba'ko Ostolaza ikastetxeko, Aitzol Loiola Idiakez'ek	3.000 pezta.
5'gn. saria	: "Kagula sorgiña", Deba'ko Ostolaza ikastetxeko, Ester Alonso Vallina'k	3.000 pezta.
5'gn. saria	: "Mikelen ametsa", Ernani'ko Urumea ikastolako, Ainoa Agirre'k idatzia	3.000 pezta.
5'gn. saria	: "Nere amets miresgarria", Ernani'ko Urumea ikastolako, Aitziber Aduriz'ek	3.000 pezta.

D maila:

1.º saria	: "Espazioan abenturak", Ernani'ko Urumea ikastolako, Maialen Lujambio'k idatzia	8.000 pezta.
2'gn. saria	: "Gaueko iskanbillak", Ernani'ko Urumea ikastolako, Saioa Ortiz Aranzabe'k	6.000 pezta.
3'gn. saria	: "Ni eta nere katua...", Ernani'ko Urumea ikastolako, Xabier Agilar Irazusta'k	4.000 pezta.
4'gn. saria	: "Elurretarako gogoa", Zegama'ko Erri- eskolako, Igor Elizegi Arrizabalaga'k	2.000 pezta.
5'gn. saria	: "Petra sorgintxoia ...", Donosti'ko Orixe ikastolako, Ainoa Arrazola' idatzia	1.500 pezta.
5'gn. saria	: "Mikel eta asto egalaria", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Nere Solabarrieta	1.500 pezta.
5'gn. saria	: "Itxaso ezkutua", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Usue Arrieta'k	1.500 pezta.
5'gn. saria	: "Lurralde ezezaguna", Ernani'ko Urumea ikastolako, Yosu Iradi Barrenetxea'k	1.500 pezta.

Epaiketa ontan, 83 ipuin aurrek azkenengo azterketan egindakoak aztertu dira. Eta gertatutakoen aitormen-agiri bezala, aztertzaileek agiri au izenpetzen dute,

Guztira 337 lan agertu ziran, ipuin sailera.

Donosti'n, 1989'go Lorailaren 20'an.

OLERTI SARIKETA

Epai maiko: Arrinda tar Anes, Zubikarai tar Augustin, Olazar tar Martin eta Gaztañaga tar Jesus. Idazkari Kortajarena tar Andoni.

Sariketara aurkeztutako olerki-lanak irakurri ondore, eta adostasun osoz, sariak era onetara banatzea erabakitzen dute:

- 1'go saria, 40.000 pezetakoa. Lana: Seaskaren kunkunean.
Egillea: Ugarte tar Martin.
- 2'gn. saria, 30.000 pezetakoa. Lana: Itxasoan jaiotako aurrarena.
Egillea: Muniategi tar Sabin.
- 3'gn. saria 25.000 pezetakoa. Lana: Ez dut galdu nai bururik.
Egillea: Iturbe tar Martin.
- 4'gn. saria, 20.000 pezetakoa. Lana: Ereslari itxua.
Egillea: Egaña tar Gotzon.

"EUSKERAZAINTZA"

Academia Popular de Euskera
Euskeraren Erri Akademia
L'Académie Populaire de la Langue Basque

Getari, 21

DONOSTIA - 5 - SAN SEBASTIAN - 5

IDAZKIAK IDAZKI..

Jauriaritzako Euskeraren Aolkulari
Batzordea aldatutzean,
Euskerazaintza'k ainbat bizkaiera
zaleen asarre-agerpenak artu zitun,
batzorde orren aldakuntzan Bizkaia,
eta bere izkuntzaentzat, alboraketa bat
egongo zanaren kezka.

Ori ikusita Euskerazaintza agintariei
karta idazten asi zan. Orra, orrelako
karta batzuk, irakurleen irizpiderako.

1989'go Jorraillaren 3'an

GARMENDIA LASA'tar MARI KARMEN

Andre txit argiari
Gasteiz'a

AGUR, ANDREA:

"Euskeraren Aholku-Batzordea" dalakoak oraintsu egin dituan diaketak, Euskeraren onerako ta Euskera biziaren zuzperketarako, ez dira zuzenekoak izan, "bizkaieraren" ondamenerako diranak. Eta ez gatzoz ametsetako utse utsaletan naasturik-edo.

Izenak dira lekuko: Arejita, Etxebarria, Retolaza, Uriarte ta Urrutia bizkaitarrak, eta Oregi bizkaieraduna baztertuturik, bizkaitar bakarra artu, Urizar jauna, euskal-jakitun artean ezagun ez dana...

Bizkaiera -Euskaldun geienek itzegiten duten euskalki bizia- nork aldeztuko zukean bizkaieradunek baiño obeto?

"Aholku-Batzorde" ori Euskeraren salbaziorako ta zuzperketarako ari izan ba'litz, ez zitzakean iñola ere baztertu sei bizkaieradun (bost bizkaitar eta giputz bat), bizkaieradun bakarra, eta bera euskal-idazleen artean ez-ezaguna artzeko.

Jatorrizko euskaldunen, jatorrizko euskal-iztunen euskalki bizi bat -bizkaiera dan bezala- zapuztea ta il-eraztea dakar, beste mota bateko euskera, indarrez ezartzeak, batasunaren izenean ba'da ere, "batua" ta "batasuna" egitea, beti bai-dira diktadura, beartuta sartuak diranez. Eta diktadura-bide ortan beste oinkada bat gelago izan da bizkaieradunen kopuru ori baztertzea.

"Aholku-Batzorde" orren azken-erantzule edo gorenekoa, Lendakari jauna danez, eskutitz onen aldaki bat berari ere bidaliko diogu, eta aldi berean Kultura Sail-buru jaunari ta Alderdi abertzaleen buruei ere bai, jatorrizko euskal-iztunen kalterako jokabideak geldi-erazi ditzaten, eta zuzpertz-erazteko bidean zuzeneko jokaerak ar ditzaten, berandu baiño leen.

Euskerazaintza'k, Euskeraren Erri-Akademia'k, azkenengo bere Batzarrean artutako erabakia jakin-erazten dizut.

Agur, andrea.



Agur, andrea
Lezkariak

Eusko Jaurlaritzaz

Lehendakari
HIZKUNTZ POLITIKARRAKO IDAZKARITZA NAGUSIA
Idazkaria



Gobierno Vasco

Presidencia
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA

Le Secretario
BUSKO JAURLARITZA
LEHENDAKARITZA
HIZKUNTZ POLITIKARRAKO IDAZKARITZA

IRTEERA

Zenbakia: 275
Eguna: 89-4-10

JESUS GAZTAÑAGA JAUNA
EUSKERAZAINTZA
Getari, 21
DONOSTIA-5-SAN SEBASTIAN-5

Vitoria-Gasteiz, 1989.eko Apirilaren 10ean

Agur,

Euskerazaintzak azken Batzarrean hartutako erabakien berri emanaz jaso dudan zure Apirilaren 3ko eskutitza irakurri eta gero, honako hauxe esan nahi dizut:

Euskararen Aholku Batzordeak euskara eta euskalgintza ditu gogoan bere ekintza eta ihardunaldietan.

Ez dago, aditzera ematen duzun bezala, inongo eta inoren aurkako jarrerarik. Karguak eraberritu beharrak zeudenez geroz, Euskararen Aholku Batzordeak bere eginkizuna ahalik eta egokien bete dezan izan dira berriak hautatu eta izendatuak.

Euskara bere xede eta helburu duelarik, bere osotasun eta aberastasunean indartzea da gure asmoa, zure gogo horrelakoxea izango den bezalaxe.

Horrela bada, ez dut uste "bizkaieraren ondamenerako" edota "diktadura-bide ortan beste oinkada bat gehiago" eman denik, ez da hori behintzat Euskara Aholku Batzorde honen jarrera-joera, ahal den neurrian elkarguneak eta euskararen aldeko topaguneak lantzen saiatuko bait gara, orain artean bezalaxe.

Eta amaitu aurretik ohartxo bat: karguak berritzaerakoan euskalkiak erabateko eragina izan ez badu ere, jakin ezazu izendatutako zazpi kideetatik lau bizkaieradunak direla.

Zure gutunaren aldaki bana Lehendakari jaunak, Kultura Sailburuak eta Alderdi abertzaleek jaso dutenez gero, erantzun honen berri ere eman diedala adierazi nahi dizut jakinaren gainean egon daitezen.

Besterik gabe guztion ahalegina euskararen onerako izango delakoan, agurtzen zaitut.



Garmendia Lasa
Politikarako Idazkari Nagusia

"EUSKERAZAINTZA"

Academia Popular de Euskera
Euskeraren Erri Akademia
L'Académie Populaire de la Langue Basque

Getari, 21

DONOSTIA - 5 - SAN SEBASTIAN - 5

1989'go Jorraillaren 24'an

GARMENDIA LASA'tar MARI KARMEN

Andre txit argiari

GASTEIZ'a

AGUR, ANDREA:

Zure erantzuna artu ondoren, aitorten bat eskertu gabe ta ukapen bat argitu barik ez ditzake utzi Euskerazaintza'k.

1'gn: "...karguak berritzezakoan euskalkiak erabateko eragina izan ez badu ere..." idatzi diguzu erantzunean.

Ederki. Eskertzeko aitortena da. Orixe zan, ain zuzen, gure esku-titzaren muiña eta... arrazoi eman diozu gure salaketari.

2'gn: "...jakin ezazu izendatutako zazpi kideetatik lau bizkaiera-dunak dipela..." diozu erantzunean.

Zazpitatik lau "bizkaieradun", baiña zenbat Bizkai'ko? Izan ere, BIZKAIERA BIZIA zaintzekoan, babestekoan eta aberastekoan, ez dira berdin "bizkaieradunak" eta Bizkai'koak. Nabarmen dago, beraz, aldatetako ez-berdintasuna: BOST Bizkai'ko kanporatu ta... BAT sartu.

3'gn: Zure ardurapeko Batzordeak "euskara ta euskalgintza ditu go-goan" esan diguzenez.

Ori ez dizu ukatu Euskerazaintza'k. Baiña nolako euskeranta nolako euskalgintza? Ortan dago arazoaren koska. Eta auxe da salaketa zorrotza: Euskalkietan bizi dan Euskera biziaren kalterako dirala, bai Bizkai'ko bost lagun bazterturik bakarra artzea, eta bai "batua" dalakoari ematen diozuten bultzada berezitzaillea.

4'gn: "...ez dut uste ``diktadura-bide ortan beste oinkada bat gei-go'' eman denik..." idatzi diguzu.

Baiezkoan dago Euskerazaintza. Izan ere, "batua" ta "batasuna" beti dira "diktadura, bai politika-alorrean eta bai izkuntza-eremuan. Itz bi oien erabilkerak, arako "España una" ta "Unidad de España" gogorazten dituzte: gauza guztien gainetik, legeen eta diruaren indarrez, "batua" ta "batasuna" ezarri nairik ari bai-da Jaurilaritza beste zenbait talderen jokabideari jarraituz, Euskera bera baiña garrantzizkoagoa ba'litz bezala.

Eta ez dabil Euskerazaintza asmaketa utsetan. Zenbait ikaste-liburu, maillaka ta multzo aundian, bizkaiera-bizkaieraz idatziak, zertan gelditu ziran? Diruaren trukean aldatu egin zituzten, edo berdin dana, aldatzera beartu zituzten, Ikastetxeetan sartu aal izateko. Eta ori ez da Bizkaieraren mesedetan, eta bai kaltetan.

5'gn: Iñun eta iñoiz ez dute "erreboluzioa" kontu aundiz egin iñor mindu gabe, zaar eta gazte gozoki elkartuz, iñor baztertu barik eta guztiak buru-biotzez bateratzen edo elkartzen saiatuz. Eta politika-alorrean "zaarrak", "eskubitarrak", "aranistak", "apaizkiak", "kontserbadoreak", e. a. esanez baztertu ta zokoratu zituzten, apal-apal burua makurturik ja-

"EUSKERAZAINTZA"

Academia Popular de Euskera
Euskeraren Erri Akademia
L'Académie Populaire de la Langue Basque

-2-

Getari, 21

DONOSTIA - 5 - SAN SEBASTIAN - 5

rraitu ez zietenak. Eta euskerari dagokion alorrean legunago ta gizakoiago agertu ote ziran beren jokabidean, pistolarik erabili ez zutelako? Beren "erreboluzioa" ezartzekoan, bide bakarra zuten bai politikan eta bai izkurtzan. Iturri beretik sortuak ziranez, indarrezko jokabide berak erabili zituzten, bai, politikagintzan eta euskalgintzan alor bietako "erreboluzionario abertzaleek".

Gaur politikan, ETA ta "H.BATASUNA" salatzen eta gaitzesten dituztenei izkuntza-alorrean oraindik aien jokabideei jarraitzen diete. Bete-betean, bestelako iritzidunak eta bestelako euskeradunak baztertuz eta oinperatuz. Bide auxe darama Eusko Jaurlaritzak bere menpeko Batzorde ta Sail guztiekin. Politika-alorrean "pakea" lorturik eta egiñik leukakete Jaurlaritzak eta Alderdiek, izkuntza-arazoetan bezala aien esanetara buruak makurtuko ba'lituzte.

Euskal-iztun, irakurle ta idazle jator edo jatorrizkoak, zenbat eta zenbat baztertu, zokoratu, nazkatu-erazi dituan jokabide berezitzaille gogor orrek, -euskerari biziaren kaltean!- or dituzu lekukorik fiñenak zeure aita ta aitagiareba, beste aibesteren artean Gipuzkoa-Bizkaia'etan.

6'gn: "Batua" ta "Batasuna" aitzakitza arturik, eta Bizkaierari ta Gipuzkerari iges egin nairik, Euskera ez dan zerbait nagusitzen ari da bai idaztietan, bai Ikastetxeetan eta Ikastoletan, bai EITB dalakoan bereziki, -eta oien eragieze umen mintzaeran- jatorrizko euskal-iztunak nazkatu-eraziz. Ez da naikoa arako esaldi zuur ura askotan aipatzea bakarrik: "Izkuntza bat ez da galtzen (ez da galduko), ez dakitenek ikasten ez dutelako; dakitenek itzegiten ez dutelako baizik".

Ondorenak edo ondorioak atera bear dituzute arduradunok, garaiz.

Politika-alderdi batzuek ere otz-otzean eta burutsuki mintzatuz, airtortzen dituzte gauza ederrak; adibidez, EAJ-PNV ta EA alderdiek beren Batzarretan, or bidaltzen dizudan idaztitan ageri danez. Baiña ori betetzeko zer egiten dute? Utsa. Itzez aitortua, egitez ukatu.

Bestetik, zuzen-zuzenean Jaurlaritzari ta zuri dagokizuen aitorten bat, mamitsua ta sakona, arrazoizkoa, Sanchez Carrion euskaldun-berri ezagunak egiña ere bidaltzen dizut, zuzeneko bidea artzen lagundu dezaizuen. Politika-loturarik gabe mintzo da; eta jatorrizko iztunen loturarik ez duan batek ori ain garbiro esaten ba'du, zer esan dezakegu amagandik euskaldun (euskal-iztun) geranazk?

Berandu baiño leen artu bear genituzke elkartasunezko bideak, orain arteko zenbait oker aldatuz eta zuzeneko bideen billa jokatuz.

Zure erantzuna joango zaien jaun eta elkarte beretara joango da gaurk nere eskutitz au ere, aurrekoa bezala, Euskerazaintza'ren izenean.

Gaurkoz besterik gabe, agur, Andrea



Gaspar Aguirre
Idazkariak

AITA LINO OLERKARI

Aita Lino Carmona'ko espetxean egoala, espetxeturiko abade batek sarritan eta go gotsu abestuten ei eban Toselli'ren Serenata, frantsesezko berbekaz.

Ake Solo'k, euskeraz kanta egian, olerki au sortu eban doiñuari dagokion neurkeran. Ez da itzulpen bat, idea barria baiño.

Irudi a espetxe ganean ugari ara ta ona etengabe egaz egien belatz txikiak burura tu eutsoen. Alan be belatzen ordez usoak aukeratu ditu, geznari sinboloak.

Olerkiaren berba esentzialak oneek dira: egoak baitu, maitasun agurra eroateko. Erriaren ondamena. Beraz "erri gaixoa" gana "maitezo egoetan" doa. Eta ondatu ta dagoalako da ain zuzen be bere "zorigaitzaren azkarri" (aztugarri, gozagarri).

Gud a galdu eta espetxean dagozanen sentiera azaltzen dausku olerkiak. Urrintasuna k eta era askotako erriaren ondamenak barrua samurtzen dautse. Begiak ez dagoz euren zoritxarrean josita, erriagana guztiz zuzendurik baiño: badagoz "ordu beltzak" espetxean, eta "zorigaitza", baiña euren gogoa bizgarri dan erriagana doa egaz. Birritan darabil "maitasun" itza. Eta olerki guztia da erriagazko ametsa. Orduko idealismoaren lekuko argia.

Ara olerkia:

Ortzean zear zabilten usoak,
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!
Neure erriraiño nintzake egalari
erbestuaren maitasun-agurraren geznari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu baltzetan,
maitezko egoetan
zuganaño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri!

Luis AROSTEGI

**AITA LINO AKESOLO'RI
OMENALDIA,
DIMA'KO ERRIAGAZ BATEAN
"EUSKERAZAINTZA"
ETA "EUSKERAZALEAK"
ERAKUNDEAK ESKEIÑITA,
1989 urteko utzailla'ren 1'gnean.**

EGITARUA

Goizeko 11'tan: Erri-meza, eleiz nagusian.

Eguerdiko 12'tan: Udaletxean: Jakintza ekiñaldia, era onetan banatuta:
Ondo etorria, erriko alkate jaunak.

"Aita Lino Lekaidea (Frailea)": Arostegi'tar Luis'ek.

"Aita Lino euskal aztertzailea": Etxebarria tar Jose Mari'k.

"Aita Lino idazlea": Onaindia'tar Santi'k.

"Aita Lino espetxean": Dañobeitia tar Kepa'k.

Ondoren, gaztetxo batek Aita Lino'ren idazlan bat irakurriko dau.

Amaitzeko, Aita Lino berberaren berba batzuk.

Ordu bat eta erdietan: Aita Lino'ren jaiotetxean, oroitari bat agertzea.

Ordu bietan: Anaitasuneko bazkaria, Oba'n.

